

Aurkibidea

Hezkuntza eta Psikologia

- 1. Zer da Hezkuntza?**
- 2. Garapena eta Hezkuntza: Zer nolako erlazioa dute hauek?**
- 3. Zer da Hezkuntzaren Psikologia?**
- 4. Hezitzaileok zertarako behar dugu Hezkuntzaren Psikologia?**
- 5. Zein izan da Hezkuntzaren Psikologiaren sorrera eta bilakaera?**
- 6. Zeintzuk izan dira Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegi garrantzitsuenak historian zehar?**
- 7. Zeintzuk dira Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak?**
- 8. Nolakoa izan da Hezkuntza eta Hezkuntzaren Psikologiaren arteko erlazioa?**

Ikastea eta irakastea. Ikaslea eta irakaslea

- 9. Aprestizaia (ikastea, ikaskuntza), zer da?**
- 10. Zeintzuk dira, besteak beste, prestizaiaren ikuspegi teorikoak?**
- 11. Zeintzuk dira prestizai-motak?**
- 12. Zuk nola ikasten duzu?**
- 13. Zer dira prestizai-estiloak?**
- 14. Nola antzematen da ikas-estiloa?**
- 15. Nola azalduko zenukete prestizai-estiloaren eta irakaskuntza-metodoen arteko lotura?**
- 16. Nola ikasiko zenuke hobeto?**
- 17. Irakaskuntza zer da?**
- 18. Zeintzuk dira, besteak beste, Irakastearen perspektiba teorikoak?**
- 19. Izan dituzun irakasle hobereenen izenak gogoratu, zeuzkaten ezaugarri positiboak aztertu eta esan: zeintzuk dira ikasle on baten ezaugarriak?**
- 20. Aurrekoak kontuan hartuz esan: zeintzuk dira irakasle baten ezaugarri negatiboak?**
- 21. Zer ezberdintasun eta antzekotasun daude Ikas-Irakaskuntzari buruzko teoriaren artean?**

Ikuspegi konduktistak

- 22. Zer da konduktismoa?**
- 23. Zeintzuk dira teoriak konduktista garrantzitsuenak?**
- 24. Zer baldintzapen motak daude?**
- 25. Zer da Baldintzapen Klasikoa?**
- 26. Zein izan daiteke Baldintzapen Klasikoaren erabilera Ikaskuntzan?**
- 27. Zer da Baldintzapen Operantea edo Instrumentala?**

28. Zein izan daiteke Baldintzapen Operantearen erabilera Ikaskuntzan?
29. Zer dio Ikaskuntza Sozialaren Teoriak?
30. Zein izan daiteke Ikaskuntza Sozialaren Teoria erabilera Ikaskuntzan?
31. Teoria konduktisten aburuz, zer da ikastea?
32. Teoria konduktisten aburuz, zer da irakastea?
33. Zein da ikaslearen ikuspegia teoria konduktisten?
34. Zein da irakaslearen papera ikaste-prozesuan teoria konduktisten aburuz?
35. Zeintzuk dira teoria konduktistek proposatzen dizkiguten teknikak eta nola erabiliko genituzke?
36. Zer ezberdintasun eta antzekotasun daude teknika edo prozedura konduktisten artean?
37. Teknika konduktistak erabiliz, irakaslea izango bazina, zer egingo zenuke honako egoera hauen aurrean?
- Oso maiz, gela guztiaren aurrean hiru ikaslek irainak eta zakarkeriak besterik ez dituzte esaten.
 - Gelako ikasle batek, askotan, beste ikasleak erasotzen ditu hitzez nahiz fisikoki.
 - Gelan baduzu neskak bat beti bakarrik egoten dena, inoiz ez du besteekin jolastu nahi eta irakaslearen atzetik ibiltzen da beti.
 - Ikasle bat oso larri jartzen da azterketa bezperan: botaka egiten du. Azterketa egiten ari denean azkabalak jaten ditu eta azterketa bera oso zikin entregatzen du. Ondorioak oso txarrak ez izan arren, nola lagun diezaiokegu bere herostura gaintzen.

Ikuspegi Kognitiboak

38. Zeintzuk dira ikusmolde kognitibistak?
39. Zer da konstruktibismoa delako hori?
40. Zer da ikastea ikusmolde kognitibisten aburuz?
41. Zer da irakastea ikusmolde kognitibisten aburuz ?
42. Zein da teoria kognitibisten ikaslearen ikuspegia?
43. Zein da irakaslearen papera ikaste-prozesuan kognitibisten aburuz?
44. Piaget-en aburuz, zer da garapen kognitiboa?
45. Piaget-en garapen kognitiboaren teorian zein estadio edo etapa bereizten dira?
46. Piaget-en aburuz zertan datza Hezkuntza prozesuak?
47. Zeintzuk izan daitezke Piaget-en teoriaren inplikazioak eta ondoak ikasgelan?

48. Piaget-en teoriaren aplikazioa: Nola erakutsiko zeniekete “justizia”-ren kontzeptu abstraktua modu zehatzean pentsatzen duten ikasleei
49. Eta nola adieraziko zenieke “justizia” kontzeptu abstraktu garapenaren etapetan?
50. Vygotsky-ren aburuz, zer da garapen kognitiboa?
51. Vygotsky-ren aburuz, zertan datza Hezkuntza prozesuak?
52. Zeintzuk izan daitezke Vygotsky-ren teoriaren inplikazioak eta ondorioak ikasgelan?
53. Ikaskuntza eta garapenaren arteko erlazioak: zer antzekotasunak eta desberdintasunak daude Piaget-en eta Vygotsky-ren ikuspegien artean?
54. Bruner-en garapen kognitiboaren teoriak zer dio?
55. Bruner-ren aburuz, zertan datza Hezkuntza prozesuak?
56. Bruner-en aurkikuntza bidezko ikaskuntzaren aplikazioa gelan?
57. Ausubel-en Errezeptzioiko Ikaste Esanguratsua-ren teoriak zer dio?
58. Ausubel-en errezeptziozko ikaskuntza esanguratsua-ren teoriaren ekarpenan Hezkuntzaren Psikologian? 59. Ausubel-en errezeptziozko ikaskuntza esanguratsua-ren aplikazioa ikasgelan?
60. Aurkikuntza bidezko eta Aurkezpen bidezko ikaskuntzari buruzko teoriak: zeintzuk dira haien arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak?
61. Ikasleen ikaskuntza esanguratsua bultzatzeko, buruz ikasi ez dezaten eta ulertuz ikastera bultzatzeko. Zer egin dezakegu?
62. Ikusmolde konstruktibista ezberdinen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak?
- Informazio-prozesatzearen teoriak**
63. Zeintzuk dira teoria hauen ekarpenak Hezkuntzan?
64. Zeintzuk dira aprendizaiarekin lotuta dauden oinarrizko prozesu psikologikoak?
65. Zer da pertzepzioa?
66. Zein da pertzepzioa eta sententzioaren arteko ezberdintasuna?
67. Zer da arreta?
68. Zeintzuk dira arretaren ezaugarri orokorrak?
69. Arretaren erakarpina nola pizten da?
70. Arreta nola mantentzen da?
71. Arreta nola hobetzen da?
72. Irakaslea izango bazina zer estrategiak erabiliko zenituzke zure ikasleen arreta sortzeko eta mantentzeko?
73. Zer da meta-arreta?
74. Zer da oroimena?
75. Oroimen-motak, zeintzuk dira?
76. Zer nolako faktoreak dira eraginkorrak oroimenean?

77. Oroimena hobetzea posible da?

78. Zer da Oroimen hutsa?

79. Zeintzuk dira Oroimen hutsa hobetzeko estrategiak?

80. Zer da Mnemoteknia?

81. Zeintzuk dira Mnemotekniak proposatzen dizkigun oroimen-teknikak?

82. Nola lagunduko zenieke ikasleei klasean azaldutako informazioa berreskuratzen eta burua gordetzen?

83. Ikaste errepikatua eta mekanikoa duten lanetan, nekea eta aspertasuna ekiditzeko, teknika berezirik burutzen al zaizu?

84. Zure gelako ikasle askok ez dirudi irakurri dutena asko ulertu dutenik. Nola lagunduko zenieke ulermenaren gainbegiratzen eta bere irakurmenetik etekin handiagoa ateratzen?

85. Nola ikasi dezake ikasle batek asteburu batean gogoetaz kimika sinboloak?

86. Zergatik ahazten dugu informazioa?

Ikaskuntzaren determinatzaile indibidualak

Adimena

87. Zer da adimena?

88. Zeintzuk dira adimenaren garapenean eragina duten faktoreak?

Motibazioa

89. Zer da motibazioa

90. Motibazio-motak, zeintzuk dira?

91. Ikaskuntzari buruzko ikuspegi teorikoen aburuz, ze motibazio motak ditugu?

92. Zeintzuk dira motibazioari buruzko teoriak?

93. Zertan datza A. Maslow-ren beharren hierarkiaren teoriak? 94. Zertan datza H. Murray-ren teoriak?

94. Zertan datza H. Murray-ren teoriak

95. Zertan datza McClelland eta J. Atkinson-en lorpen motibazioaren teoriak?

96. Zertan datza B. Weiner-ren atribuzioaren teoriak?

97. Zertan ezberdintzen dira motibazioari buruzko teoriak?

98. Ikusi ditugu motibazioari buruzko teoria desberdinak, zeintzuk dira haien inplikazioak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan? 99. Motibazioari buruzko teoriak aztertu ditugu, orain esan, zure iritziz egokiena zein da?

100. Irakasleak ikaslea motibatu behar du?

101 Zer egin dezake irakasleak ikasleak motibatzeke?

102. Eta zer egin zezakeen irakasleak bere burua motibatzeke?

103. Ikasleen arteko ikasteko motibazio maila oso aldakorra da. Zergatik ematen dira desberdintasun hauek?

104. Irakaslearen igurikapenak eraginkorrak dira ikaslearengan?

105. Gurasoek zerikusia ba al dute, bere seme-alaben motibazio maila?

106. Ikasleak eskolan motibatuagoak daude beren arrakasta eta porrota pertsonalki kontrola daitezkeen arrazoiei egotzen dizkiotenean, adibidez, bere ahaleginei. Pentsa ezazu ikasle batek bere emaitza txarren arrazoia zuri edota bere gaitasun-ezari egotzen diola. Zer egin dezakezu laguntzeko?

107. Imajina dezagun aurtengo ikasleek lorpen motibaziorik batere ez dutela, behintzat kalifikazio ohizko sistemari dagokionean. Badakizu ikasle hauek emaitza hobekak lor ditzaketela, baina nolabait kompetentzia txarra dela pentsatzen dute. Badirudi 5-a dela lor dezaketenen notarik hoberena edo hala uste dute bederen. Zer egin dezakegu?

Autokontzeptua eta autoestimua

108. Zer da autokontzeptua? (norberaren ezagutza, “self-a”, “ni-a”)

109. Zeintzuk dira autokontzeptuaren alderdiak?

110. Zer da autoestimua (autoestimazioa)?

111. Zein da autoestimua jatorria?

112. Nola alda daiteke autokontzeptua?

113. Zein da autokontzeptuaren eta autoestimua papera ikaskuntza prozesuan?

114. Zer egin dezake irakasleak ikasleen autoestimua sustatzeko?

115. Pentsa ezazu zure gelako ikasle batek autoestimua altuegia duela eta honen ondorioz diziplina arazoak sortzen dituela, zer egingo zenuke?

116. Nola aldatuko zenuke ikasle baten autokontzeptu txarra?

Ikaskuntzaren determinatzaile sozialak

Hezkuntza testuinguruak: Eskola. Ikasle eta Irakaslearen arteko elkarrekintzak

117. “Irakaslearen errendimenduaren erresponzabilitate guztia ezin zaio irakasleari soilik egotzi”, zer deritzozu?

118. Nolakoa izan daiteke irakaslearen eragina ikasleengan?

119. Normala eta ekidin ezina da irakasleak ikasleei buruzko ideiak izatea. Nola kontrolatuko zenuke ikasle honenganako duzun jarrera eta interes gutxi edo irudikapen gutxiko ikasleenganakoa?

120. Ikasleek gelako arauen ezarpenean parte hartu behar dutela uste al duzue? Zergatik bai eta zergatik ez? Nola egin daiteke?

121. Hasi berriak diren irakasle askok ikasleek onar ditzaten ez dute desberdintzen lagun izatea eta lagun bezala jokatzera. Beste lagun berriz, kontrakoa egiten dute eta tinko jokatzearen aholkua diziplina zorrotza eramatearekin nahasten dute. Zer egin dezake irakasle batek onartua eta era berean errespetua izan dadin?

122. Gelako kontrola mantendu ahal izateko, derrigorrezkoa da diziplina arazoak konpontzeko estrategia izatea. Zer estrategia erabiliko zenituzke horrelako egoeretan?

Hezkuntza testuinguruak: Eskola. Ikasleen arteko elkarreragina

123. Zeintzuk dira ikasleen arteko elkarreraginaren ezaugarriak? (alde onak eta txarrak aipatu)

124. Nolakoa izan behar da ikasleen arteko elkarrekintza, aprendizaiak eta garapen kognitiboa sustatzeko?

125. Nola azalduko zenukete ikasleen arteko elkarrekintzaren eta prozesu kognitiboen arteko lotura?

126. Ikasleen arteko lankidetzak aprendizaiari laguntzen al dio? Zein eratan?

127. Nola erabiliko zenuke ikasleen arteko elkarreragina honako arazo hauek konpontzeko?

Hezkuntza testuinguruak: Familia

128. Zer uste duzue dela Familiaren papera Hezkuntzan eta aprendizaietan?

129. Zeintzuk dira familiaren eta eskolaren arteko antzekotasunak?

130. Zeintzuk dira familiaren eta eskolaren arteko ezberdintasunak?

131. Zeintzuk dira familiaren eta eskolaren arteko jarraitasun edo jarraitasunezaren ondorioak?

132. Zeintzuk dira familia eta eskolaren arteko lankidetzaren motak?

133. Zeintzuk dira familia eta eskolaren arteko lankidetzaren ondorioak?

134. Zure ustez, nolakoa izan beharko litzateke familia eta eskolaren arteko lankidetzaren?

135. Eskolako lanak etxean egiterakoan, zein arazo sor daitezke eta nola konpon daitezke?

136. Gaur egungo familia egitura eta eredu berriak kontuan hartuz, zerbait aldatu egin behar da eskolan?

Hezkuntza testuinguruak: Komunikabideetarako eta Informaziotarako Teknologia eta Hezkuntza

137. Zeintzuk dira komunikabideetarako eta informaziotarako teknologia?

138. Zertarako erabiliko zenituzke teknologia berri hauek ikaskuntzairakaskuntza prozesuan?

139. Nola azalduko zenuke Teknologia hauen eta Hezkuntzaren arteko lotura?

140. Teknologien erabileraren alde onak eta txarrak, zeintzuk dira?

01. GAIA: HEZKUNTZA ETA PSIKOLOGIA

1. Zer da hezkuntza?

Hezkuntza ala Ikas-irakaskuntza prozesua ulertu/azaltzea zaila da. Eskolaz gain bizitzako beste espazio guztietan ematen den prozesua da (etxean, kalean, familia, lagunartea...)

-Hezkuntza, hazkuntza, garapen eta heziketa kontzeptuen artean erlazio handia dago.

Hezkuntzari buruzko hainbat ideia

- Jaiotzetik heriotzera arte ematen den bizi osoko prozesua da. Etengabekoa
- Momentu oro eta leku guztietan ematen da. (ikusiz, entzunez, sentituz...)
- Hezkuntza mota asko daude (naturala, formala, informala, ez formala...)
- Gizabanakoaren ezagutza guztia da
- Garapenerako beharrezkoa da. Eragin zuzena dauka pertsonaren garapenean.
- Garapenean eragiten du baina ez du determinatzen.

Hezkuntza prozesua **bikoitza** da. Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan bereizi ditzazkegu.

Eskolaren adibidearekin irakasleak irakatsi eta ikasleak ikasi behar badu, Hezkuntza prozesuak lau osagai ditu gutxienez: ikastea, irakastea, ikaslea eta irakaslea.

Definizio proposamena:

Hezkuntza prozesuak gizakien garapena moldatzen duten eragin multzoa da. Honetan familia, eskola edo berdinengatik jasoa izan daiteke pertsonak ikasi eta ikaskuntzaren bitartez garapena susta dadin.

2. Garapena eta hezkuntza: zer nolako erlazioa dute hauek?

Giza-garapena: Geldiezina den prozesua da. Jaiotzen garen momentutik gudan gertatzen diren aldaketen multzoa da. Garapena hezkuntzaren bidezkoa izan daiteke baina ez da honetara mugatzen, zerbait gehiago da. Beste faktore batzuk ere eragiten dute (genetika, testuingurua, izaera...). Pertsonen gaitasun ezaugarriek (fisiko, psikologiko, testuingurukoak...) ere eragina izan eta garapena baldintzatuko dute.

Hezkuntza: Bizi tarteko prozesua da, momentu eta leku oron jasotzen duguna (entzunez, ikusiz, sentituz...). Mota ezberdinak daude eta garrantzitsua da garapenerako. Garapena ekarri eta bideratzeko instrumentua izan daitekeelako.

GARAPENA ETA HEZKUNTZA: Ez dira independienteak eta elkarreragina dute. Bata bestearen ondorio da eta paraleloki lantzen dira. Bata bestearen beharra du eta haien artean bi norantzatako bidea dago. Garapena naturalki emango da, baina hezkuntzak bultzaturik hobea izango da.

Hezkuntza guztiak dute eragina haurraren garapenean:

- Hezkuntza metodoaren arabera garapen bat edo beste emango da.
- Hezkuntza desegokiak garapenaren abiadura mantsotu dezake.
- Hezkuntza oker batek garapen oker bat eragin dezake
- Hezkuntza mota guztiak (formala, informala...) sustatzen dute garapena. Izan modu batean ala bestan edo gehiago ala gutxiago. Baina guztiak eragiten dute.

Hezkuntzak garapena sustatzeko baldintzak:

- Hezkuntza egokia emateko haurra nola garatzen den jakin behar dugu. Haurra dagoen abiapuntutik abiatuko da. Hortaz, une horretan haurraren garapen maila kontuan hartu beharko dugu, garapen horretatik abiatzeko. Aurrera egin eta une hori gainditzea ahalbidetzeko.
- Pertsonaren erritmoa kontuan hartu behar (aniztasuna eta premiak). Pertsona bakoitzari egokituriko hezkuntza jarduerak.
Ezberdintasun indibidualak kontuan hartu behar dira.
- Hezkuntzaren helburu eta proposamenak ezberdinak izango dira: adina, eskola etapa, ezaugarri indibidualak, genetika, haurraren garapen mailaren arabera...

Garapenean esku hartzea posiblea da eta hau hezkuntzaren bitartez eman daiteke. Hala ere, benetako garapena bermatzeko ezin da prozesu hau nolnahi suertatu. Alderantziz, ondo ulertu eta hobetzeko erak aurkitu behar ditugu.

3. ZER DA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA?

Hezkuntzaren psikologia, psikologiaren adarra edo alor bat da.

Psikologia zientzia bezala ulertzen badugu, Hezkuntzaren psikologia ere zientzia bat da.

Psikologiaren adar honek hezkuntza prozesua (heziketa, irakaskuntza, ikaskuntza...) dauka aztergai

Gaur egun psikologo gehienek: *Hezkuntzaren psikologia Psikologiatik bereizitako disziplina dela diote.*

Disziplina izanda, helburu eta eginkizun propioak izan behar ditu.

Woolfonk-en arabera (1996) Hezkuntzaren Psikologiaren zereginak:

- Hezkuntza prozesuak ulertu (ikaskuntza/irakaskuntza)
- Prozesu hau hobetzeko erak aurkitzea.

Hezkuntzaren psikologiak ikaskuntzaz gain irakaskuntzatz ere arduratzen da, nola irakatsi. Hortaz hezitzaileentzako arlo honetako teoria, aurkikuntza, ezagutza, teknikak... beharrezkoak dira.

4. HEZITZAILEOK ZERTARAKO BEHAR DUGU HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA?

Teorikoki, hezitzaileok Hezkuntzaren Psikologia hezkuntza prozesuak ulertu eta hauek hobetzeko erak aurkitzeko behar dugu.

Ikasle batzuen hitzetan ere erabili dezakegu:

- “Hezkuntza baldintzatzen duten aldagai psikologikoaz gehiago jakiteko.”
- “Haurrak momentu bakoitzean dituen premiak ezagutzeko (...) eta asetzeko modurik eraginkorrenean.”
- “Haurren nortasuna eta testuingurua erabiliz, hauek ikastera motibatzeko”

Norberak galdetu beharko lioke bere buruari zer ezagutu nahi duen gai honi buruz eta zer eskatuko lioke Hezkuntzaren Psikologiari aztertzea.

5. ZEIN DA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAREN SORRERA ETA BILAKAERA?

Hezkuntzaren Psikologiaren sorrera eta bilakaeran 4 fase bereizten ahal dira:

-Aurrekariak -Abiapuntua -Sorrera eta sendotze garaia -Garapena

1. Psikologia filosofikoa eta Hezkuntza teoriaren aurrekariak

Hezkuntzaren Psikologiaren sorrera, Filosofiaren hastapenarekin bat egiten du. Idei hauek ordea, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran hasten dira forma hartzen.

Filosofia greziarraren hasieran, Plantonek eta Aristotelesek Hezkuntzaren Psikologiaren hainbat alor garrantzitsu aztertu zituzten: Hezkuntzaren helburuak, ikaskuntzaren izaera, hezigai eta hezitzailearen arteko harremana...

Garai Modernoko Filosofian, argudio ezberdineko hainbat filosofo landu zuten gaia:

Bacon-ek Aristotelesen ideiei garapen berria eman zien.

Descartes-ek ezagumenduaren oinarrian berezko ideien protagonismoa defendatu. Hau da, kognizioak nolabaiteko egitura duela gizakiaren garapenaren lehenengo momentutik.

Locke-k esperientziaren garrantzia azpimarratu. *Tabula rasa* metafora.

“esperientziatik pasatzen dena soilik finkatzen da gure gogamenean”.

Rousseau-ren Hezkuntzaren planteamenduak aipatzekoak dira.

Honi Pestalozzik (1745-1827) jarraituz, irakaslearen zereginari ekintza hezitzailearen beharra ezarri zion.

Herbart-ek (1776-1841) eragin handia izan zuen XIX. mendeko Hezkuntza teorian. Berere psikologia filosofikoaren arabera: Filosofia moralak Hezkuntzaren helburuak ezarri eta aztertu behar zituen eta Psikologiak berriz helburu horiek lortzeko baliabideak eskuratu.

2. Psikologia zientifikoa eta Hezkuntzaren Psikologiaren abiapuntua. (1890-1920)

XIX. mendearen bukaeran, Psikologia Filosofikotik urrunduz eta metodo esperimentalak erabiltzen dituen disziplina zientifikoa bihurtzen da. Garai honen helburuak:

ezberdintasun indibidualak neurtzeko tresna objektiboak eta garapenaren ikerketa kuantitatiboak.

-F.GALTON (1822-1911) adimena neurtzeko lehenengo metodo psikologikoa asmatu, ezberdintasun indibidualen ikasketan oinarrituz

-G.S HALL (1844-1924):
-Desberdintasun indibidualen ikasketa bultzatu.
-1881. Irakasleei bideratutako larunbateko hitzaldiei hasiera eman.
-1891. Mintegi pedagogiko bat sortu
-1894 nerabezaroari buruzko liburua argitaratu.

-W.JAMAS (1842-1910): *Talks to Teacher on Psychology* liburua. Psikopedagogiaren inguruan.

-J.M CATTEL (1860-1944) -Psikologia esperimental amerikar sartu
-Psikologia arlo guztietara aplikatu. Bereziki desb. indibidualak eta adimen testak.

-”test” hitza berak formulatu 1890ean.

Europar, A.BINET-ek (1857-1911) -*Etude Expérimentale de l’Intelligence* (1902) argitaratu
-adimenaren koefiziente indibiduala neurtzeko lehen tresna sortu
Adimena neurtzeko eskala metrikoa Binet-Simon.

L.M TERMAN (1877-1956). Superdotatu eta atzeratuei buruzko lanak egin. -Bineten eskala egokitu.

Hasieran harrera txarra izan bazuen ere, errendimendu testak eskolan onartzen joan ziren. Bestealde HP bere kokapena hobetuz joan zen, argitalpen zientifikoei dagokionez: HP inguruko ikastaroak, lehenengo katedrak eta sailen agerpena unibertsitate amirrikarretan...

Garai hontan *Journal of Educational Psychology* (1910) aldizkari ospetsua sortu zen. Bi egile:

THORNDIKEk (1874-1949) apendizai prozesuaren lehenengo ikerketa sistematikoa egin zuen: *Educational Psychology*. Ekarpen hauetan ikastearen legeak formulatu eta matematikan eta idazkeran neurtzeko frogak sortu.

Bere asmoa, Psikologia eta Hezkuntza mundua elkartzea zen baina jokabide zientzia hezkuntza prozesuetan aplikatu baina besterik ez zuen egin..

JUDDek (1833-1946) laborategiko esperimenez urrunduz, eskola curriculum eta antolakuntza ikertu zuen. Alor ezberdinetako eduki eskolarren azterketa eta ikas irakaskuntzako prozesuan sortzen diren arazo psikologikoak landu zituen.

Azkenik, garai honetan hobetu irakasteko ikaslea ongi ezagutu behar delaren ideia defendatzen da.

E. CLAPARÉDEk (1873-1940) ideia hau defendatzen du. *Psychologie Pédagogique* mintegia antolatu zuen iraganeko irakasleak Haurren Psiko. eta Psiko esperimentalean prestatu nahian.

Egile honen eragina Europan zabaltzen da hezkuntzaren berrikuntza mugimenduari (eskola berria.)

J.DEWEY (1859-1952) HParen inguruko proposamena egin zuen: jokabide zientzia eta hezkuntza praktikaren arteko zubi zientzia izatea. Egile honen aburuz: Hezkuntzaren helburua garapena bermatzea da eta bere ikuspegi genetiko, funtzional eta soziala ideia honetan oinarritzen da.

3. HEZKUNTZA PSIKOLOGIA DISZIPLINAREN SORRERA ETA SENDOTZE GARAIA (1922-1955)

HP Hezkuntza zientziaren buru bihurtzen da. Ondo baloratzen hasten dira psikologiaren ekarpenak hezkuntzan. Hiru alorretan bereizten da: ezberdintasun indibidualen neurketan, Apendizaiaren Psikologia eta Haur garapenaren Psikologia.

Ezb. indibidualen neurketa:

Froga psikometrikoen sorkuntza eta hobekuntzarako proposamenak egin.

Binet-Simon eskala moldatu eta AEBtan *Stanford-Binet* eskala orokortzen da-SPEARMANek adimen orokorraren faktorea identifikatzen du ("g" faktorea).

Galdeketa, froga. test... berrien argitalpena.

Beste arloen garapena ere azkarra da. 1920. hamarkadan THORNDIKE teoriarekin abiatuz HP aberastuz doa. Beste psikologiaren eragina jasotzen du: Gestalt-en psikologia edo psikoanalisi. Aurrerapen handia HP arlo guztietan ematen da baina eztabaida bat sortzen da:

Batetik, apendizaiaren legeak laborategiko esperimenez bitartez aztertzearen aldekoak eta helburu berdina ikasgelaren testuinguruan aztertzearen aldekoak.

1940. hamarkadatik aurrera HPren gorakada eteten da. Zergatien artean: arlo propiorik ez zuela iruditu, egitarauak atzeratuak ziruditen eta ikerketa esanguratsu gutxi ematen zituen.

4. HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAREN GARAPENA ETA MULTIDISZIPLINARITATEA (1955-...)

50. hamarkadan HPk gorakada handia izan zuen, ikuspegi ezberdinak garatu ziren.

Aipatzekoak diren gertakizun batzuk:

- Psikologiak egindako ikerkuntzen azplikazioa zailtzen denean, laborategiko esperimenduzko eta ikasgelan egindako azterketaren arteko gatazka berpizten da.
- Europa eta AEBen zabalkuntza ekonomikoarengatik, politikak, ekonomia eta kulturak interesa jarzten dute hezkuntza formalaren garapenari. Hortaz: derrigorrezko eskolaratzeko legeak, hezkuntza programen diseinuak eta bestelakoak gauzatzen dira.
- Hezkuntza aztertu nahi duten beste disziplina batzuk agertzen dira (Hezkuntzaren soziologia). Hortaz HParen protagonismoa zalantza jarritz, honek hezkuntzaren teoria eta praktikaren oinarritzen zientifikoaren ardura beste disziplinekin konpartitzera behartuta ikusi.

50. hamarkadan Psikologian teoria konduktistak nagusitu. Skinnerren teoriak eredu instrukzionala sortzen du.

70. hamarkadan eredu kognitibisten eraginez ikastearen ikuspegiak aldatuz doa, ikasten duenarengan sortzen den aldaketa bezala ulertzen da. Aldaketa hau, informazioa prozesatzeko teoriaren abiapuntua izan. Garapenaren Psikologiaren teoria ezberdinek ikaste prozesua azaltzeko klabe ezberdinak ematen dituzte: Piagetek garapen kognitiboaren teoria genetikoa, Vygotskyren teoria sozio-historikoa.

Ondorioz, Hezkuntzaren psikologia Irakaskuntzaren Psikologia bihurtzen da.

6. ZEINTZUK IZAN DIRA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAREN IKUSPEGI GARRANTZITSUENAK HISTORIAN ZEHAR?

Bi multzo orokor bereizi ditzazkegu: Ikuspegi konduktista eta ikuspegi kognitibista. Bi ekarpenen artean hirugarren bat kokatzen da: ikuspegi neokonduktista.

1. IKUSPEGI KONDUKTISTA:

Behaviorismo edo konduktismoak zuzenean behagarriak diren jokabideak aztertzen ditu.

Barneko edo kognitiboak diren aspektuak (sentimendu, pentsamendu...) baztertzeko ditu.

Helburua: organismo bizidun guztien portaeren lege orokor batzuk identifikatzea da.

Lege horiek portaeraren ikaskuntzan aplikatu dira.

Haien metodoa jokabidearen azterketa da, labortegi eta animaliekin gehienetan.

Azkeneko konduktismoaren aburuz: ikaskuntzak jokoaren aldaketa suposatzen duela diote.

Watson, Skinner, Thorndike dira konduktismoaren aintzindariak.

2. IKUSPEGI KOGNITIBISTA:

Pertsonaren adimen edo kognizioan gauzatzen diren barne prozesuetan oinarritzen dira. Hau da ikusten ez diren aldagaiak aztertzen dituzte. (emozio, pentsamendu, sormena...)

Ez dituzte lege orokorrak bilatzen baizik eta ezberdintasun indibidualen arrazoi eta zergatiak.

Haien metodoa ezberdinak dira etapersonak eta behagarriak ez diren zenbait aldagai kontuan hartu.

Ikaskuntza gizabanakoaren barnean ematen den aldaketa da. Behatu ezin den barne prozesua.

Piaget, Wyosky, Ausbel, Bruner.

3. IKUSPEGI NEOKONDUKTISTA:

Hainbeste teoriaren artean eta ulerkeren artean, ikuspegi konduktista eta kognitibistaren planteamenduak erabilgarriak dira osagarriak izaten ahal direlako.

Ikaslearen bi aldeko ezagutza (barne, kanpo) ezinbestekoa baita.

Kanpo/ikusgarriak diren faktoreak eta ikustezinak direnak beraien planteamenduetan murgildu.

Adibidea: Banduraren “ikaskuntza sozialaren teoria”. Honen ustez ikaskuntza ikusten den jokaera baino gehiago da.

Pertsonak, besteak behatuz ikasi dezakete: imitazioa. Baina jarrera horiek mantentzen dira segun eta jasotako errefortzuak. Hortaz ikuspegi honek kognizioaren eragina honartzen du: usteak, pertzepzio asmoak,, testuinguraren eragina jaso eta giza portaerari eragiten diote.

7. ZEINTZUK DIRA H.P.AREN IKUSPEGIEN ARTEKO BERDINTASUN / EZBERDINTASUNAK?

IKUSPEGIA	AZTERGAIA	HELBURUAK	METODOAK	ORDEZKARIAK
KONDUKTISMOA	Kanpoko portaera, jokaera, jokabidea ...	Portaeraren lege orokor batzuk identifikatzea.	Animalien jokabidea laborategian aztertzea.	J.B. Watson E.L. Thordinke B.F. Skinner
KOGNITIBISMOA	Barruko prozesu kognitiboak (asmoak, usteak, sentimenduak, pentsamenduak ...)	Ezberdintasun indibidualen arrazoiak edo zergatiak ulertzea.	Pertsonen pentsamendua, sormena, sentimenduak ...	J. Piaget J. Bruner D. Ausubel
NEO-KONDUKTISMOA	Kanpoko portaera eta ikustezinak diren aldagai pertsonalak.	Portaeraren arrazoiak identifikatzea, barneko onartuz.	Behaketa testuinguru sozialean.	A. Bandura

8. NOLA IZAN DA HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAREN ARTEKO ERLAZIOA?

Hiru fase ezberdinetan bana dezakegu hauen arteko harremana:

1. Psikologiatik hezkuntza zuzendu behar zela zionak.
2. Inolako harremanik ez zutela eta bakoitza bere bidetik jarraitu behar zuela zionak.
3. Bion arteko elkarlana eta interrelazioetan oinarritzen dena.

HEZKUNTA ETA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAREN ARTEKO ERLAZIOA: 3 BIDE				
FASEA	NORABIDEA	ALDIA	ERLAZIOAREN TONUA	PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZAREN ARTEKO ERLAZIOA
1.	Norantza bakarrekoa Bidea	XX.Mendearen hasieran	Baikortasuna	Psikologoek garapen eta ikaskuntza prozesuak aztertu, emaitzak hezitzaileen esku ezarriz hauek aplika ditzaten.
2.	Irteerarik gabeko bidea	XX.Mendearen erdian	Ezekortasuna	Psikologia zein Hezkuntza inolako harremanik gabe jarduten duteneko.
3.	Norantza bikoitzeko bidea	XX.Mendearen bukaeran	Baikortasuna	Psikologoek pertsonak nola ikasi eta Hezkuntza inguruetan nola garatzen diren aztertzen dute hezitzaileen erronka eta kezkek gidatuta eta hezitzaileak, Psikologiak emandako oinarriak euskarri dituela jorratzen du Irakaskuntza.

2. GAIA: IKASTEA ETA IRAKASTEA. IKASLEA ETA IRAKASLEA

9. APRENDIZAIA (IKASKUNTZA, IKASTEA...), ZER DA?

W. Hill-ek (Woolfolk, 1996) dioenez, ikastea zer ez den esanez has gaitzke.

1. Ikastea EZ da soilik gelan ematen. Aitzitik, biztza eta egunerokoan eman.
2. Ikastea EZ du beti zerbait zuzena izan beharrik. Gaizki dagoena ere ikasi daiteke.
3. Ikastea EZ du nahitaezkoa edo kontzientea izan beharrik. Konturatu gabe/nahi gabe ere ikasten da
4. Ezaguerak eta trebetasunak ezezik, jarrerak eta emozioak ere ikas daitezke.

Psikologoek ez dute aprendizaiaren definizio bakar bat egitea lortu, desberdintasun txikiak direla medio. Hortaz, aprendizaiaren definizio orokorra izan liteke:

*“Aprendizaia pertsona batengan gertatzen den kanpoko edota barneko aldaketa da. Aprendizaiak ikasten ari den pertsonarengan **aldaketa** bat suposatzen du. Baina ikasteaz hitz egiteko, aldaketa **esperientzia** eragindakoa izan behar du, edo ingurunearen eraginez gertatutakoa izan behar du.”*

Aldaketa aprendizai moduan hartzeko, esperientziaren erantzunaren beharra dago.

Ikasitakoa aldaketa bat suposatzen du. Kognitibisten usten pertsonaren barnea eta konduktistek ordea jokaeran ematen dela diote:

“Aprendizaia, nahiko iraunkorra den jokaera aldaketa baten oinarria da, ariketa ala esperientzien bidez ematen dena”

Aprendizaia-ren definizioari gehitzeko beste hainbat ideia

- Prozesu bat da. Kontziente edo inkontzientea.
- Aurkinkuntza - Eraikuntza - Transmisioa
- Informazioaren barneraketa eta bereganaketa.

10. ZEINTZUK DIRA, BESTEAK BESTE, APRENDIZAIAREN IKUSPEGI TEORIKOAK?

HParen ikuspegi ezberdinek, aprendizaiaren era desberdinetak interpretatzen dute, perspektiba ezberdinak sortuz.

Transmisiboa-konduktista:

- Aprendizaiaren gertakizunak, trebetasunak eta kontzeptuak hartzea da.
- Praktika gidatuaren bidez, ariketen bidez.

Transmisiboa-informazioaren prozesatzearena:

- Aprendizaiaren gertakizunak, kontzeptu eta estrategiak hartzean datza.
- Estrategia edo tekniken aplikazioari esker eskuratzen da.

Bi hauek ikastea “hartze” prozesu bat bezala definitzen dute.

Portaeraren aldaketan eta estimulu-erantzunaren arteko loturan datza.

Aprendizaiak kanpo aldaketa suposatu eta ikastea erantzunak bereganatzea da, ohiturak hartzea.

Informazio-prozesatzearen teoriaren ustez, “hartze” prozesuak hobetzeko teknikak erabilgarriak dira.

Konstruktibista-Kognitibista:

- Aprendizaiaren eraikitze aktiboa da. Aurretiazko ezaguerak berreraikitzea da.
- Aukera eta prozesu anitzen bidez eman. Aurrekoa berriarekin lotura emanez.

Konstruktibista-Soziala:

- Aprestizaia sozialki definituriko balore eta ezagupenen laguntzarekin oinarritutako eraikitzea da.
- Testuinguru sozialak, aukerak emanez...

Konstruktibisten ustez, prestizaia **eraikuntza** oinarritzen da eta hartze prozesua 1. pausoa da.

Ikaslea hartzeaz gain, zerbait “**jartzeko**” eskatzen zaio: Inf. hartzeko estrategiak, teknikak, motibazioa...

Aprestizaia norberaren eraikuntza prozesua bada, ikasleak prozesua gauzatzeko beharrezkoak diren gakoetat jabetu behar da.

Ikaskuntza sozialaren ekarpena, hartze eraikitze hori testuinguru sozialak ahalbidetzen duela esatea da.

11. ZEINTZUK DIRA APRENDIZAI-MOTAK? (teoria ezberdinen aburuz)

Hiru prestizai mota aipatzen ahal ditugu teoria ezberdinetan oinarrituz:

1. Prestizaia erantzunaren indartzen bezala:

- Konduktismoa portaeraren analisisian oinarritzen duen teoria.
- Prestizaia estimulu baten finkatze edo kentzearen asoziazio bezala ulertzen du (estimulu-erantzun)
- Prozesu mekanikoa, erantzun zuzenak automatikoki konektatu eta okerrak ezabatu.
- Ikaslea hartzaile pasiboa eta irakaslea sari eta zigoren administratzailea da.
- Erantzunen indartze bezala onartzean, hezitzaileek oinarritutako trebetasunen irakaskuntzan azpimarratzen dute (irakurketa, idazkera, aritmetika...). Erantzun motz eta azkar erantzuteko galderak sortzen ditu.
- Adb. Irakasleak ikaslea zeozer ongi egitean saritzea (oso ongi esan) eta gaizki egitean zigortzea (apunteak erreparatzeko esan)

2. Prestizaia ezagutza eskuratze bazala:

- Informazio prozesatzaren teoriak laborategian egindako esperientzietan oinarrituz.
- Prestizaia informazio transferentzia bezala hartzen da.
- Dakien pertsona batek (irakaslea), ez dakien bati (ikaslea) informazioa helaraztea
- Ikaslea informazioaren prozesatzaile da eta irakaslea informazioaren administratzaile.
- Helburua ikaslearen oroimenean ezagutza kantitatea haztea eta aztertzea da.
- Prozesua ezagutzaren eskuratzea bezala hartuta, erabilera ezitzailea ematen du.
- Adb. irakaslea fisikaren inguruko informazioa eman eta gero azterketa bat egin.

3. Prestizaia ezagutzaren eraikitze bezala:

- Konstruktibismoak egoera errealean pertsonen azterketan oinarritutako teoria.
- Prestizaia ezagutzaren eraikitze bezala ulertzen da.
- Ikasleak berak eraikitzen ditu errepresentazio mentalak bere esperientziei zentzua aurkitzen saiatzen den bitartean.
- Prozesu honetan irakaslea laguntzaile eta gida papera jokatuko du.
- Irakaslearen helburua zeregin akademikoaren prestizairako estrategia kognitiboak eraikitzeke ikasleari laguntza ematea da-
- Partehartze gainbegiratu batean datza.
- Irakasleari nola ikasi eta ulertu duten inporta zaio, estrategiak inporta zaizkigo. Ez ikasitakoaren kantitatea.
- Psikologia ebolutiboaren erabilera handitzen da.

12. NOLA IKASTEN DUZU ZUK?

Aprendizai on bati abiapuntua emateko, norberak bere buruari ikastea nola datorkion hobeto edo nola gustatzen zaion ikastea identifikatzea da.

(gehienetan hartze prozesuarekin harremantzen dugu.)

-Material guztia bildu eta antolatu

- Bizitzen...

-Apunteak eginez. Eskemak, laburpenak

13. ZER DIRA APRENDIZAI ESTILOAK?

Bakoitzak bere erara ikasi egiten du eta bata bestearen artean ezberdina da. Hortaz:

“Aprendiza-estiloak, zerbait ikasi nahi dugunean bakoitzak duen modua, edo era ezberdinak eta erabiltzen dituen estrategiak.”

Estiloa orokorra da eta estrategia eta teknika ezberdinekin lotzen da. Aprendizai estiloa aldakorra da pertsonaren unearen arabera, zereginaren arabera eta faktore askoren baldintzapean.

14. NOLA ANTZEMATEN DA IKAS-ESTILOAK?

Fidagarriak diren tresnak erabiltzeak, denbora aurrezteak eta gainera akatsak ez egitea ahalbidetzen du. Mota guztietakoak eta adin guztietarako dira, estilo ezberdinak definitzen dituzte besteak beste:

G.Pask-ek, 2 estilo definitu:

- **Orokortzailea:** Printzipio orokorretan oinarritutakoa
- **Kateatzailea:** metodikoa

Schmeek-ek, 3 estilo proposatu:

- **Sakona:** Ikaslea informazioa multzoka sailkatu, esfortzu handirik gabe ikasteko.
- **Superfiziala / gainazalekoa:** Infomazioa buruz ikasi, esfortzu handirik gabe.
- **Estrategikoa / lorpenekoa:** ahalik eta esfortzu txikienarekin ikastea.

Honey-k eta Alonsok, 4 estilo:

- **Aktiboa:** irekia, gogotsu eta motibatzailea, aurreiritzirik ez. Dena behin probatzeko prest
- **Erreflexiboa:** Asko behatu, aukera guztiak kontuan izan, arduratsuak, 2 plano batean jarri eta eztabaidetan ez dute parte hartzen
- **Teorikoa:** Pentsamendu logikoa. Perfekzio eta objetibitatea, arrazionaltasuna “logikoa=egokia”
- **Pragmatikoa:** Ideiak praktikan jarri eta erabaki azkarrak hartu. Ziurtasuna. “eraginkorra bada ona da.”. Eztabaidetan pazientzia eza. Arazoak konontzerakoan praktikoak.

15. NOLA AZALDUKO ZENUKETE APRENDIZAI-ESTILOAREN ETA IRAKASKUNTZA METODOAREN ARTEKO LOTURA?

-Irakasleak klaseko zereginak antolatu eta ikasgaia modu egokienean azaltzeko, aurretik ikasleek nola ikasten duten eta ikasteko zein metodo nahiago duten jakitea komenigarria da.

-Irakasleak metodo ezberdinak erabili beharko ditu ikasle guztiengana iristeko.

-Orokorrean ikasleek beraien apendizai estiloen araberrako irakaskuntza metodo eta ebaluaketak nahiago dituzte. Ulertzen saiatzen direnak gaiari esanahi pertsonala ematen dioten irakasleak nahiagoko dituzte baina errepikapena nahiaho dutenek hizkuntza xumean transmititzen duen irakaslea nahiagoko dute.

-Hala ere, irakaslea izango da, denboraren bidez, ikasleak apendizai estilo bat edo beste hartzera bultzatuko duena.

-Izan ere, ikasleek hartzen duten apendizai estiloa, irakaslearen irakaskuntza metodo eta estrategiekin lotua egongo da.

G.Pask-en estiloen sailkapenarekin (orokortzaile eta kateatzailea). Apendizai mota bat edo beste hartzera bultzatzen duten metodo edo goerak ikusi daitezke:

- **Kateatzailea edo azaleko estiloa:** *Metodo oso formalei erantzuteko, lan zama eta eduki andiak badira, ebaluaketak oroitzapen apendizai saritzen badu, azterketako galderak pisu handi badute....*
- **Estilo orokortzaile edo sakona:** *Talde lana sustatzen denean, ulermena indartuko duen ebaluaketa sistmea, motibaizorako azalpen deigarri eta ikuspuntu berritzaileak, ikaslea bere jardunaren kontzientzia duenean...*

Gaur egungo ikasketa prozesuaren indikatzaileak notak dira. Horregatik ez da harrizkeoa ikasleen apendizai estiloan eragiten duen faktore garrantzitsuenetakoa, jasango duten ebaluazio mota izatea..

Kateatzaile estiloak, azterketako galderak erantzun eta gaintzeko “zer den beharrezkoa” jakiteari erantzuten dio. Baita galdera itxiak eta irakasleak azaldutakoa errepikatzea eskatzen denean.

Aldiz, orokortzailea, ulermenerako eta edukien berreraikuntzarako diseinatutako ebaluaketari erantzuten dio. Buruz ikastea eskatzen ez duten beste alderdi batzuk ebaluatu: sormena, hausnarketa...

Laburbilduz: ebaluaketa metodo baten aukeraketa, neurri batean, ikasgaiaren ezaugarrien isla izango da eta honek ikasleek ikaskuntza estiloaren aukeraketan eragina izango du.

16. NOLA IKASIKO ZENUKE HOBETO?

Zerbait ikasteko orduan norberak bere teknika ezberdinak erabiltzen ditu. Batzutan ez dugu arreta jartzen ikasten ari garenean edo inkontzienteak dira. Hainbat ikasketa teknika:

1. Testuinguruaren baldintzak:

Ikaslegela eta lanerako materiala.

- Ikaslegela leku lasaia, zarat gabea eta ondo aireztatutakoa izan behar da.
- Laneko material guztia eskura izan behar dugu eta mahaia ondo ordenatu eta antolatua

2. Ordutegia:

Debara alde aurretik planifikatzea:

- Ikasteari denbora mugatu bat eskaini.
- Denbora askoz eserita egoteko gomendioak. 30 minutu ikasi eta produktiboak izan badira 5 minutu atsedean hartzea. Garrantzitsua da esfortzua dosifikatzea konstantea izatea kostatzen badu ere.

3. Irakurketa:

Informazioa irakurtzea ulerkuntza bultzatzeko. Motak:

- Irakurketa mekanikoa, ezagutzen ditugun hitzak ulertu bakarrik, ez da esanahia ulertzen.
- Hitzez hitzezko irakurketa. Gaiaren esanahia superfizialki jaso.
- Ahozko irakurketa.
- Irakurketa isila edo mentala.

Gomendatzen ez diren edo ekidin behar diren irakurketa motak:

- Erregresioa: Paragrafoa bukatu gabe hasierara itzultzea. Normalean inkontzienteki egiten dugu baina ulermena galdu egiten da.
- Ahoskera: Ezpainekin mugimendua egiten denean. Arreta gehiago ematen zaio ekintza honi ulerkerari baino
- Gorputzezko mugimenduak: Irakurtzean gorputza erlaxatua egon behar du. Ez da mugimendu fisikorik egin behar (adb, behatzarekin testua jarraitu, hanka mugitu, kulunkan jarri)
- Hiztegi eskasa: Irakurketa hiztegi desegokia badu edo laburpen laburrak, gure hiztegia eskasa izango da.

4. Azpimarraketa: azpimarratzeak atentzio gehiago jartzea eta ulerketuntza erraztea suposatzen du. Irakurri ondoren gai baten informazio garrantzitsua diskriminatu behar da.

- Inportanteena azpimarratu behar da ez dena (hitz gako, ideia nagusi, datuak)
- Azpimarraketa lineala (koloreekin), loturazkoa (testuaren marginean ikurra eta hitzen bidez informazioa laburtzea).
- Testua edo informazioaren antolakuntza bereiztea (ikurrekin...)

5. Eskemak eta laburpenak prestatzea: Azpimarraketatik eraiki. Ideia nagusiak grafikoki azaltzeko balio du.

- Gaiaren egitura irudikatu: izenburua
- Garrantziaren arabera antolatu: ideei nagusi eta azpian bigarren mailako ideiak.

17. IRAKASKUNTZA ZER DA?

Aspalditik eztabaidatu izan da eta irakaskuntza **arte** ala **zientzia** den. Hezitzaileen artean adostasunik ez dagoen arren, gehienek Irakaskuntzak bi osagai hauek dituela, zientzia eta artea, onartzen dute. Bi alderdiak dira garrantzitsuak:

- Irakaskuntza zientzia den neurriak, jakinduria eta ezaguerak ditu. Hauek ulertu eta aplikatzen jakitea ezinbestekoak dira, Hezkuntza prozesua hobetzeko.
- Artea den heinean, intuizioa, talentua, sormena zein motibazioa ezinbestekoak dira. Zientzia dena talde / pertsona / egoera bakoitzera aplikatzeko, egokitze eta transmititzeko kapazak izan behar da irakaskuntza.
-

18. ZEINTZUK DIRA, BESTEAK BESTE, IRAKASTEAREN PERSPEKTIBA TEORIKOAK?

Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegiaren arabera, Irakastea zerbait bestelakoa izan daiteke:

- **Transmisiboa-konduktibista:** Irakastea zerbait transmititzea igortzea edo ematea da. Konduktisten ustez, zerbait hori peortaera edo erantzun zuzena izan daiteke. Ondorioz emate ona eta zuzena izan behar da.
- **Transmisiboa-Informazioaren prozesatzearena:** Irakastea informazioa transmititzea da. Irakasleak informazioa eta honen prozesamendurako teknika eta estrategiak igorriko ditu.
- **Konstruktibista-kognitibista:** Ikasleak ikaskuntzatik barne prozesua eraikitzea da. Hezkuntzarentzako erronka berri bat da ea ikasleak berak egin behar duen prozesua kanpotik irakasleak nola gidatu behar duen.
- **Konstruktibista-soziala:** Irakaskuntzak ikasleak eraiki behar duen barne prozesua testuinguru batean, giza-harremanetako elkar-erakitze batean sortzen da.

19. ZEINTZUK DIRA IRAKASLE ON BATEN EZAUGARRIAK? (pertsonala)

- **Izatea:** edozein ezin da irakaslea izan, motibatzailea, aktiboa, atsegina, langilea, irekia...
- **Edukitzea:** Enpatia, disziplina, hurbila, erakartzeko gaitasuna, argia, pazientzia, malgua...
- **Jakitea:** Azalpen argi eta lagungarriak, ondo esplikatzeko, ikasleei entzutea, bakoitzaren prozesua errespetatzea, iritziak kontuan hartzea...

20. ZEINTZUK DIRA IRAKASLE BATEN EZAUGARRI NEGATIBOAK?

- **Izatea:** Utzikeria, inpartziala, desatsegina, bokaziorik gabekoa...
- **Edukitzea:** Irakaspen teknika bakarra erabiltzea, klaseak ez prestatzea, errespetu gabekoa, klase monotonoak, gogo txarrekoa, beldurra sartzea...
- **Jakitea:** Azaltzen ez jakitea, ikasleak ez entzutea, hizkuntza ez menderatzea...

21. ZER EZBERDINTASUN ETA ANTZEKOTASUN DADUE IKAS-IRAKASKUNTZAREI BURUZKO TEORIEN ARTEAN?

IKUSPEGIAK	KONDUKTISMOA	KOGNITIBISMOA	SOZIO-HISTORIKOA	INFORMAZIO PROZESATZEAREN TEORIAK
EZAGUERA	Bereganatu behar den ezagutza-multzo finkoa Kanpokoak bultzaturik	Ezagutza-multzo aldakorra Testuinguru sozialean ikasleak dakienean oinarriturik indibidualki eraikita	Sozialki eraikitako ezagutza Ikasleen ekarpenekin eraikita	Prozesatu behar den ezagutza-multzo finkoa Kanpokoak bultzaturik Ezaguerak informazio prozesatzea eragiten du
IKASTEA	Gertakizun, trebetasun eta edukinen hartzea Praktika gidatuak sortzen du	Eraikuntza aktiboa, aurreko ikaskuntzaren bir-eraikuntza Prozesu eta aukera ezberdinek sortzen dute	Eraikuntza Sozialki definituriko balore eta ezagutzarekin erlazionaturik Aukera sozialetan gertazen da	Gertakizun, trebetasun, kontzeptu eta estrategien hartzea Teknika eta estragien aplikazioak sortzen du
IRAKASTEA	Transmizioa Aurkezpen gidatua	Erroka Gida	Ezagutzaren elkar-eraikuntza	Transmizioa Prozesu gidatua
IRAKASLEA	Ezagueraren iturri nagusia Administratzailea Behatzailea Erantzun okerren zuzentzailea	Ezagueraren iturria (ikaslea, materialak eta testuinguruarekin batera) Gidaria, jardueren antolatzailea; ikasleen ideien, kontzeptuen eta pentsamenduen entzulea	Ezagueraren iturri bat (baliabide materialak, sozialak eta testuinguruarekin batera) Gidaria, jardueren antolatzailea Ezagutza-interpretazioren elkar-eraikitzailea	Ezagutzaren iturria (materialekin batera) Estrategien erakuslea eta instruktorea Erantzun okerren zuzentzailea
IKASLEA	Hartzaile pasiboa Langilea Entzule aktiboa	Eraikitzaile aktiboa Sortzailea Subjektu aktibo: pentsatu, azaldu, galdetu, interpretatu...	Elkar-eraikitzailea Elkar-sortzailea Subjektu aktiboa: pentsatu, azaldu, galdetu, interpretatu, kritikatu	Informazioaren prozesatzaile aktiboa Estrategien erabiltzailea Informazioaren antolatzailea Informazioaren erabiltzailea
IKASKIDEAK	Oro har ez dira kontuan hartzen (Ikaskuntza sozialaren teorian imitatzeko ereduak)	Ez dira beharrezkoak baina beraien galderek pentsamendu estimula dezakete.	Ezagueraren eraikitze prozesuaren ezinbesteko kolaboratzaileak eta elkar-eraikitzaileak	Ez dira beharrezkoak eta ez dute eraginik informazioaren prozesamenduan

3. GAIA: IKUSPEGI KONDUKTISTA.

22. ZER DA KONDUKTISMOA?

Konduktismoa / behaviorismoa enpirismoaren tradizioan kokatzen da. Bere aintzindari den J.Locken “*tabula rasa*” ideian oinarritzen da. Arbela hutsaren ideiarekin arabera garapenerako garrantzitsuena ez da organismoaren barruan gertatzen dena baizik eta eta organismo horri kanpotik iristen zaiona.

Ikuspegi honetatik, esperientzia da aldarazten gaituena eta pertsona baten historia bere esperientzien historia baino ez da.

Ikaskuntza bermatuko du, neurtu, behatu zein zenbatu daitekeena eta ez berneko prozesu ikusezinak.

23. ZEINTZUK DIRA TEORIA KONDUKTISTA GARRANTZITSUENAK?

1. I.Paulov: Baldintzapen klasikoa
2. B.F Skinner: Baldintzapen operante / Instrumentala
3. A. Badura: Ikaskuntza Sozialaren teoria.

24. ZENBAT BALDINTZAPEN MOTA DITUGU?

Bi: - Baldintzapen klasikoa
- Baldintzapen operante / Instrumentala

25. ZER DA BALDINTZAPEN KLASIKOA?

Teoria honen arabera gizakiok eta animaliek gertakari (**estimulu**) baten aurrean erantzuten ikasten dute. **Erantzuna** (portaera, jokaera...) baldintzatzen da era automatikoan.

Baldintzapen Klasikoaren ordezkaria den Paulov bere laborategian txakurraren liseriketari buru esperimenduak eginez **erreflexu baldintzatuak** aurkitu zituen.

Esperimentua:

Txakurrek janaria ikusi edo usaintzean listua (**erantzun automatikoa**) jariatzen zuten. Txakurrari janaria ematen zioten aldiro txirrina bat jozen zuen (**estimulu neutroa**). Honakoa janaria ematen zioten aldi oro jotzen zuen. Errepikapenaren ondorioz, txakurrek txirrina (**estimulu baldintzatuak**) entzun bezain pronto listua (**erantzun baldintzatuak**) jariatzen zuten, nahiz eta janaririk ez egon.

Beste adibidea: haurren emoziozko erantzunen ikaskuntza.

Haur bat lehen aldiz dentistarengana dijoa. Dentista, klinika, usaina, tresnak... estimulu neutroak dira haurarentzat. Baina eman dezagun haurrak mina sentitzen duela eta minak beldurra eragiten diola. Gerta daiteke orain arteko estimulu neutroak estimulu baldintzatuak bihurtzea eta beldurraren erantzuna baldintzatu izatea. Hau da, haurra dentistarenganako beldurra ikastea.

Era berean beste erantzun batzuk ikasitakoak izan daitezke. Erantzunak ez dira borondatezkoak izaten baizik eta egoera batzuetan automatikoki ematen ditugunak estimulu neutro bat estimulu **baldintzatu / baldintzatu gabeko???????** batekin lotzen dugulako, azken hau estimulu baldintzatu bihurtuz.

2 ERANTZUN BALDINTZATU MOTAK:

- **Hunkipen erantzunak:** beldurra, atsegina...
- **Erantzun fisiologikoak:** giharretako tentsioa...

Baldintzapen honekin erlazionaturiko fenomenoak:

- **Eskuratzea:** Erantzuk berriak ikastea datza.
- **Orokortzea:** Antzeko estimuluen aurrean erantzun baldintzatua ematen da.
- **Diskriminazioa:** Orokortzearen kontrako prozesua. Antzeko estimuluen aurrean erantzunik ez ematea.
- **Desagerpena:** Eskuratzearen kontrakoa, erantzun baldintzatua desagerraraztea. Horretarako estimulu baldintzatuaren odnoren estimulu baldintzatugabekoa ez da agertzen.

26. ZEIN IZAN DAITEKE BALDINTZAPEN KLASIKOAREN ERABILERA IKASKUNTZAN?

B.K oinarritutako teknikak erabilgarriak dira hiru egoeratan:

1.Portaera arazoaren prebentziorako: Erantzun negatiboak sahiesteko irakaslea eskolako jarduerak, esperientziak, giroa... estimulu positibo eta atseginekin lotzen saiatu behar da. Lehiakortasuna ekidin eta elkarlaguntza bultzatuz.

2. Ikasitako erantzun desegokiei aurre egin eta hobeak ematen ikasteko: Horretarako ikaslea egoera beldurgarrien aurrean jarriko dugu ziur badin badakidu ez dela ondorio txarrik egongo: erantzun perfekturik ez eskatzea, denon partaidetza eta erantzuna eskatzea, ikasle lotsatiak talde txikietan partaidetzar bultzatzea...

3. Ikasle batek beldur / herstura erreakzio bat garatu duenean: Kontrakondizionamendua mailaz maila erabiltzea eta helburua asmatzeko pausu batzuk pentsatu beharko dira.

Adb.: Ikasle batek herstura sentitzen du besteen aurrean hitz egitean. Lehenengo talde txikian garrantziarik gabeko gauzetaz hitz egitera bultzatuko dugu. Gerora, talde txikian irakurtzea. Ondoren klasearen aurrean irakurtzea eta bukatzeko jada klasearen aurrean hitz egingo du. Pausoa pixkanakoak izango dira.

27. ZER DA BALDINTZAPEN OPERANTE EDO INSTRUMENTALA?

Baldintzapen Klasikoen ikusi dugu erantzun automatikoak ikasten ditugula. Baina gizakiok ikasten idtugun erantzun guztiak ez dira automatikoak. Pertsonak ekintza asko nahita egiten ditugu eta askotan nola jokatu erabakitzen dugu. E.L Thorndike eta B.F Skinner dira baldintzapen operantearen aintzidariak.

Thorndikek katuekin egin zituen bere esperimentuak, eta hemendik baldintzapen operantearen lege garrantzitsua ondorioztatu zuen **EFEKTUAREN LEGEA**. Hau da, jokaeraren ondorioa atsegina bada, jokaera errepikatuko da. Eta aldiz ondorioa desatsegina bada, ez da errepikatuko.

B.F Skinnerrek ikasketari buruzko ikerlanak egin zituen. Bere esperimentuan, kaiolaren forma zeukan kaxa batekin egiten zuen. Hemen usoak eta arratoiak sartzen zituen. Hemen barruan janari depositu bat zegoen baina janaria erori zedin palanka edo botoi bati eman behar zitzaion. Animaliak gosez, saiakera batzuen ostera azkenean ustekabeen palanka jotzean janaria erortzen zen depositura. Horrela, behin eta berriz eginda, animaliak ikasten zuen janaria lortzeko zer egin behar zuen eta kaxan sartu bezain laster palanka jotzen zuen.

Ikasitako erantzun baldintzatua ez da soilik mekanikoki sortzen. Animaliak errepikatzen du ekintza ondorio positiboa duelako, errefortzua izan duelako. Esperimentu hauetatik abiatuz, Skinnerrek ondorioek jokabidean duten eragina aztertu eta baldintzapen operantearen legeak formulatu zituen:

- Jokabidearen ondorioa errefortzu bada, jokabidea errepikatuko da
- Jokabidearen ondorioa zigorra bada, ez da errepikatuko.

28. ZER IZAN DAITEKE BALDINTZAPEN OPERANTEAREN ERABILERA IKASKUNTZAN?

Baldintzapen operantearen teoriaren oinarriak PORTAERA / JOKABIDEA jokabidearen ALDAKETA dago. Aprestuz, esperientziak bultzaturiko portaeraren aldaketa bezala ulertzen da. Portaerarekin erlazionaturik dauden bi osagai identifikatzen dira Baldintzapen Operantean:

1. **Aurrekaria:** Aurretik ematen den egoera.
2. **Ondorioa:** Portaerari jarraitzen diona. Zigorra ala errefortzua. (+ edo -):
 - **Errefortzu positiboa:** Portaerak zerbait ona dakar.
 - **Errefortzu negatiboa:** Portaerak zerbait txarraren bukaera dakar.
 - **Zigor positiboa:** Portaerak zerbait txarra dakar.
 - **Zigor negatiboa:** Portaerak zerbait onaren bukara dakar.

Ona ala txarra den oso subjektiboa da eta pertsonaren esperientzien arabera da. Baina errefortzu edo zigorrek ondorioen kontrola, ikastea, dakarte.

Errefortzu edo zigorrak aplikatzeko **PROGRAMA EZBERDINAK:**

1. Programa jarraiak: Portaera gertatzen den bakoitzean ondorioa (errefortzu / zigorra) ematen da.

2. Programa aldizkakoa: Ondorioa ez da jasotzen portaera gertatzen den aldi guztientan:

- **Tarte programak:** Ondorioa aldiro ematen da, hau izanda:
 - **Tarte finkoa:** Denbora finko baten arabera ematen da. (adb. 15 minuturo)
 - **Tarte aldakorra:** Ondorioa emateko denbora aldatuz doa (Hasieran 15 minuturo, gero 30, gero 60 minuturo...)
- **Arrazoi programak:** Ondorioak erantzunen kopuruen arabera da.
 - **Arrazoi finkoa:** Erantzunen kopuru batek ondorioa dakar.
 - **Arrazoi aldakorra:** Erantzun kopurua aldatuz doa (hasieran 1, gero 2, ondore 4...).

Ikasgelatan Baldintzapen operantea erabiltzeko **ORIENTABIDE** batzuk:

1. Errefortzu edo zigorrak ez erabili uneoro edo edozein portaeragatik, bestela ondorioek duten indarra galtzen dute.
2. Portaerak ondorioa dakarrenean berehala emate zigor/errefortzua. Modu honetan, ondorioa jasotzen duen portaerak guk aldatu nahi duguna dela ziurtatzen dugu.
3. Portaera berri bat sortu/indartu nahi dugunean, ondorio ematea indartzea:
 - Portaerarekin erlazionaturik dauden saiakera guztiak errefortzu positiboekin saritzea.
 - Portaera berra zaila bada, ikasleari honetaz jakinarazi eta jarrera positiboak saritzea.

4. Portaera berri bat sortzean, ezartzeko teknikak maiztasunez erabiltzea. Aldez aurretik espero ez duten egoeratan errefortzu positiboak ematea, alegia.
5. Portaera berriak sortu/ezartzeko indizioak erabiltzea: Gelako arauaketa portaera egokiak ikaslegalatan ezarritako mezuen bidez gogoraraztea: “*Behin bukatuz gero, gauza bakoitza bere tokian bilduko dugu*”.

29. ZER DIO IKASKUNTZA SOZIALAREN TEORIAK?

Teoria neo-konduktista bezala aipatu dezakegu teoria hau. A. Bandura da ordezkari nagusia. Konduktistek bezala, portaera aztertzen du teoriak baina portaeraren ikaskuntzan behaketa / imitazioari garrantzia ematen dio.

Banduraren ustez, aprendizai prozesua beste batzuei gauzak egiten behatuz ematen da. Eredu / behaketaren bidezko prozesua horrela gauzatzen da: Eredua aurkeztu - bereganatu - egin (imitatu).

Imitazioa testuinguru sozialean ematen da. Adb.: Haurrek gurasoen portaerak imitatzen dituzte eta gurasoek hauek mantentzen dituzte errefortzu positiboekin sarituz.

Ondorioz, behatzen diren portaera guztiak ez dira ikasten edo behatzen direnak ez dira berdin imitatzen:

- Eredu diren pertsonak edo erakarleak direnak gehiago imitatzen dira.
- Errefortzua eskuratu duten ekintzak gehiago imitatzen dira.
- Zigorituak izan diren portaerak gutxiago imitatzen dira.
- Haurrak helduen portaerak zein adin-kideenak imitatzen ditu.
- Portaera erasokorrak prosozialak baino gehiago imitatzen dira.

Pertsonak jokamolde osoa kopia dezakete, jokaera hori beranduago erakutsi arren. Imitatzeaz gain, jokaera berriak ikasten dituzte, sortutako jokaerak saritzen badira.

Eredu berriak bereganatzeko prozesuak:

- **Arreta:** pertzepzio / trebetasun kognitiboak, ereduaren ezaugarriak, elkarrekintzaren elementu / propietateak.
- **Erretentzioa:** oroitzapena, barne irudikapen sinbolikoak eta praktika.

Ereduak ekintza finkatzeko:

- Ekoizpen egokiak / desegokiak behatzea.
- **Motibazioa eta indartzea:** Autoerregulazioa, kanpoko pizgarri zuzenak eta pizgarri bikarioak (beste baten jokabidea indartua ikusi ostean).

Ikuspegi honetan kognizioaren eragina onartzen da: pertzepzio, asmo usteek... testuinguruaren eraginak jasotzen dituzte eta giza portaerari eragiten diote.

30. ZEIN IZAN DAITEKE IKASKUNTZA SOZIALAREN TEORIAren ERABILERA IKASKUNTZAN?

Ikasgela testuinguru sozial bat da non portaera ezberdinak behatu eta imitatzea posiblea den (iraskaslearena, beste ikaskide batzuen...). Irakaslea eredu egoki bat azaltzen saiatu behar da bere hitzak, jarrerak, etab... imitatuak izan daitezkeela jakinda. Era berean ikasleen portaera txar / desegokiaren imitazioa gerta ez dadkin, portaeraren kontrola gauzatu ahal izateko konduktismoak proposatzen dituen **teknikak** erabiltzen ahal ditu:

1. Irakaslea ikasleen aurrean eredu izatea:

- Gelan motibatua agertzea (proposatutako gaiekin, zeregin eta jarduerekin...).
- Ikasleei eskatzen diena bera ere egiteko prest egotea.

2. Ikaskideak eredu bezala erabiltzea:

- Talde lanetan, zailtasunak dituen ikaslea hobeto egiten dutenekin elkartzea.
- Taldekide bati beste batzuei zeregina azaldu eta laguntzeko eskatzea.

3. Ikasleei konturaraztea beraien portaerak besteentzako eredutzat jotzen dutela:

- Azalpenetan portaera positibo eta ondorio positiboaren arteko erlazioa azaldu
- Ikasle bat portaera desagokoa izatean, portaera egokia duen baten ondoan eseritzea.

31. TEORIA KONDUKTISTEN ABURUZ, ZER DA IKASTEAK?

Ikastea **PORTAERA ALDAKETA** bat da.

Hau izanda:

- Portaera berria sortzea.
- Portaera egokia indartzea
- Portaera txarra gutxitzea.
- Portaera txarra desagerraraztea.

Hezkuntza prozesuan, **aprendizaia portaera / gertakizun / trebetasun / kontzeptuen HARTZEA DA.**
Praktika gidatuaren bidez, ariketen bidez (errefortzu, zigorren emate sistematikoa) lortzen da.

32. TEORIA KONDUKTISTEN ABURUZ, ZER DA IRAKASTEAK?

Irakastea **zerbait (portaera edo erantzun zuzena izan daitekeena) transmititzea / igortzea/ ematea** da.

- Zerbait (erantzuna, portaera, jarrera, prozedura...) berria sortzea.
- Zerbait egokia indartzea.
- Zerbait desagokoa gutxitzea.
- Zerbait desagokoa desagertaraztea.

33. ZEIN DA IKASLEAREN IKUSPEGIA TEORIA KONDUKTISTEN ABURUZ?

Ikas-irakaskuntzako eman-hartze prozesuan, non helburua portaera aldatzea den, **ikaslea hartzaile hutsa** da. Informazio eta estimuluak jasotzen ditu. Berari dagokiona portaera / erantzun egokiak, jarrera zuzenak eta prozedura **lantzea eta bereganatzea** da. Besteek (irakasle, ikaskide, guraso) zuzentzen duten bidea jarraitu behar du.

34. ZEIN DA IRAKASLEAREN PAPERA IKASTE-PROZESUAN TEORIA KONDUKTISTEN ABURUZ?

Irakasleak ikaste-prozesua **gidatu** behar du. Bera da **ezaguera iturri nagusia** edo **bakarra**. Berak badaki zeintzuk diren erantzun zuzenak, portaera egokiak, mantendu beharreko jarrerak... Hortaz teknika ezberdinak erabiliz **ondorioak ematen eta hauek kontrolatzen ditu eta erantzun okerrak zuzentzen ditu**.

35. ZEINTZUK DIRA TEORIA KONDUKTISTEK PROPOSATZEN DIZKIGUTEN TEKNIKAK ETA NOLA ERABILIKO GENITUZKE?

Konduktistek portaeraren azterketan oinarritzen dira, hortaz haiek proposaturiko teknikak jokaera aldatzeko erabili ditzazkegu.

1. **Behaketa** lana egitea.
2. Aldatu nahi dugun **jokaera identifikatu** behaketan lorturiko informazioari esker
3. **Jokaera aztertu**, bi arazo nagusi daude: defizita edo gehiegikeria
 - **Defizita / jokaera gutxiegiezkoa**: ez hitz egitea, bakarrik egon, bakarrik ez janztea...
 - **Gehiegikeria / jokaera gehiegizkoa**: kolpeak, agresibitatea, ostikoak, gaez pixa egitea...
4. **Jokaera aldatzeko** prozedura / teknika ezberdinak erabiliko dira, **helburuaren arabera**.

JOKAERAK ALDATZEKO TEKNIKAK

Jokaera berriak sortu / jokaera berriak mantentzeko teknikak	Jokaerak eliminatu edo jokaerak gutxitzeko teknikak
<ul style="list-style-type: none">- Errefortzu positiboa- Errefortzu negatiboa- Moldatzea (hurbiltze progresiboa)- Imitazioa	<ul style="list-style-type: none">- Iraungikapena- Zigor positiboa- Zigor negatiboa:<ul style="list-style-type: none">-Asetzea-Errieta- Erantzunaren kostua- Bakartzea- Praxis positiboa- Praxis negatiboa

Jokaera berriak sortu / jokaera berriak mantentzeko teknikak:
(eragingarria = errefortzu)

Eragingarri positiboa:

Ugaritu nahi den jokaera ondoren ondorio positiboa ematea da.

Jokaera ondoren saritzen bada hau errepikatuko delako.

Jokaera geratu bezain laster saritu behar da, beste jokaera bat saritzeko arriskua dagoelako bestela.

Errefortzu motak: Jatekoak (goxokiak), sari erabilgarriak (kanika, kromoak), aktibitate eragingarriak (TV ikusi), eragingarri sozialak (atentzioa ematea, irribarrea, hitzezko laudorioak)

Eragingarri negatiboa:

Saria ez ematea da.

Jokaera desatseginarekin segituan bukatzeko eta lortu nahi dugun jokaera egiten hasi dadin.

Moldatzea / hurbiltze progresiboa:

Lehen ez zuen jokaera bat lortzeko erabiltzen da.

Teknika honen bidez, indartu nahi dugun jokaera aukeratu ondoren, jokaeraren elementu batzuk identifikatu.

Elementu hauek sarituko dira, helburu den jokaerara iritsi arte.

Portaera progresiboki indartu nahi dugu, pausoz pauso. Pauso bakoitza aurrekoa baino zailagoa delarik.

Adb. Haur bat hitz bat esaten ikasteko prozedura. adb (47. or)

Imitazioa:

Eredu batek ematen dituen antzeko erantzunak ematea.

Prozedura honekin jokaera ugari ikasten dira errefortzurik eman gabe. Adb: Kirolak, janztea, ahoskera...

Imitazioarekin eragingarri sozialak agertzen badira jokaera indartuko da (laudiorioak)

Jokaera gutxitzeko / eliminatzeko prozedurak:**Iraungikapena:**

Gaizki ikasitako egoerekin erabili.

Jokaeraren ondoren errefortzurik ez ematea da.

Tinko matendu. Errefortzua ez eman nahiz eta jokaera areagotu.

Adb. Haur batek egunean zehar 8 aldiz oihu egin. Andereñoaren arreta lortu. Oihu momentutan kasurik egiten ez badio, denborarekin oihu gutxiagotan egingo du

Teknika honekin komeni da sortu nahi dugun beste jokaera bat indartzea.

Askotan jokabide desegokiei arreta gehiago ematen diegu egokiei baino.

Zigorra:

Jokaera desegokiak kendu edo gutxitzeko.

Behar beharrezkoa denean soilik erabili, beste teknika gutziak huts egin dutenean.

Zigor positiboa: Nahi ez den erantzuna ematean, zigorra agertzen da

Zigor negatiboa: Jokaera desatsegina gertatzean, gogoko ez den gertakizun tar bat gertatuko da. Jokaera azkar mozten da. baina zigortzailea falta bada joakera berriz gertatuko da. Erreakzio emozional negatiboak agertzen dira zigorrarekin batera.

Zigor ezberdinak:**Erantzunaren kostua:**

Pertsonak bere portaera beraren ondorioa jatsotzen du.

Adb, Goxoki asko janda gerora tripako mina izatea.

Errieta: ahozko mezuak.

Asetzea:

Jokaera egiten uztea.

Errefortzua askotan eskainiz, bere balioa galtzen du.

Erantzun bat indartzea, hau desagertu arte.

Adb. Erre nahi badu, zigarro kutxa oso bat erretzen uztea. Erretzeko gogoak joango zaizkio.

Kontuz ibitzeko teknika da ondorioengatik.

Bakartzea:

Errefortzurik gabeko denbora dela esan dezakegu.

- Gelatik kanporatzea eta jokaera desegokia aldatu arte ez sartzea.
- Umea hormaren kontra jarri jokaera desagertu arte.
- Gela bereizi batean ikaslea isolatzea.

Praxis positiboa:

Humeari bere jokaera desatseginarekin batera egin ezin den beste ekintza bat egitaraztea.

4-5 minututako saioak.

Ezeztatu nahi den jokaeraren kontrako jokaerak saritu behar dira.

Adb. Klasean asko hitz egiten duen humeari berari galdetzea edo ozen irakurtzeko eskatzea.

Praxis negatiboa:

Nahi ez den jokaera bera jardutea eskatzea.

Jokaera errepikatzeke saio ezberdinak egingo dira. 10 minututako serieak.

Adb. Hume bat animalien soinuak egiten ditu. Gela batean bakarrik, hauek egiteko eskatu. Gelditzen bada, berriz egiteko eskatu. Horrela egiteari utzi arte.

36. ZER EZBERDINTASUN ETA ANTZEKOTASUN DAUDE TEKNIKA KONDUKTISTEN ARTEAN?

Teknika	Definizioa	Helburua	Adibidea
Errefortzu positiboa	Ugaritu nahi den jokaeraren ondoren ondorio positiboa ematea.	Etorkizunean jokaera hau errepikatzea eta gelutzea.	Etxeko lanak txukun egiteagatik, lagunekin jolastera joatea.
Errefortzu negatiboa	Jokaera desatsegin batekin bukatzeko eta lortu nahi dugun jokaera egiteko erabiltzen da. Egoera desatseginetan jartzea, hauetatik ihes egiteko aukera bakarra bere jokabidea hobetzea duelarik.	Jokaera positiboak gehitzea.	Zure gauzak jasotzen ez dituzun bitartean ezin izango duzu bideoa ikustera joan.
Moldatzea	Lortu nahi dugun jokaerara piskanakako hurbilketa: <ul style="list-style-type: none">• Jokaera aukeratu• Pausuak bereizi• Pausuak indartu	Jokaera berriak bultzatzea.	Oso idazkera narratsa du. Mahaian eta ondo exerita idazten duenean saritu (erdi etzanda beharrean), gero beti arkatzez, gero letra larriaren kaligrafia,..., bukatzeko guztiak txukun.
Imitazioa	Behaketa eta imitazioaren bidez jokabide berriak ikastea. Horretarako eredu onaren agerpenak errefortzu positiboa behar du.	Eredu onak imitazioaren bidez ikastea.	Ona. Dantza egitean txaloak eta muxuak jaso ditu Txarra. Tontoarena egin duenean zaplazteko bat eman diogu
Iraungikapena	Jokaeraren ondoren saririk (eragingarri positiborik) ez ematea.	Jokaera eliminatzea	Kasketa hartzen duenean ez egin kaso eta lasaitzen denean zerbait esan.
Zigorra	Jokaeraren ondoren zerbait desatsegina gertatzea edo zerbait ona bukatzea.	Jokaera desegokiak gutxiagotzea edo eliminatzea	Errekreorik gabe uztea etxerako lanak ez egiteagatik.
Asetzea	Jokaera desegokia nazkatu arte errepika edo egin araztea. (arriskurik ez dagoenean)	Haurra jokabide hori egiteaz nazkatzea eta gehiagotan egiteko gogorik ez izatea.	Erre nahi badu, pakete osoa erosi eta erre arte ez atera gelatik.
Errieta	Egin duenagatik errekriminazioa jasotzea (pribatua eraginkorragoa da).	Egin duen horrekin ados ez gaudela jakitea	Paretak margoekin zikintzeagatik ahozko errieta botatzea.
Erantzunaren kostua	Jokaerak zerbait desatsegina dakar.	Ekintza positiboak egitea.	Parkean jaso gabe geratzen diren jostailuak galtzea.
Bakartzea	Jokaerak sortzen duena desagertzen da, egoera bukatzen da edo pertsona ateratzen da testuingurutik, baita pertsona gela huts batean isolatzea 5-10 minutuz.	Jarrera txarra eliminatzea edo gutxitzea.	Gelakideekin txisteka eta parrez aritzeagatik, gelatik atera eta han uztea.
Praxis negatiboa	Jokabide desatsegina egiten jarraitzea.	Nobedadeak dakarren estimulu positiboarekin amaitzea, behin eta berriz errepikatzea behartuz.	Zaunka egiten badu irakasleak zerbait azaltzen duenean soinua egitea zutik eta gela aurrean irakasleak esan arte.
Praxis positiboa	Jokaera desegokia den jokaerarekin batera ezina edo elkargaitza den beste jokaera bat praktikatzea.	Jokaera txarren aurkakoak diren beste jokaera positiboak sortzea eta ezartzea.	Mahaiaik marraztu ondoren, mahaiaik txukuntzen geratuko zara.

37. TEKNIKA KONDUKTISTA ERABILIZ, IRAKASLEA BAZINA, ZER EGINGO ZENUKA HONAKO EGOERA HAUEN AURREAN?

1. Oso maiz, gela guztiaren aurrean hiru ikaslek irainak eta zakarkeriak besterik ez dituzte esaten.
2. Gelako ikasle batek, askotan, beste ikasleak erasotzen ditu hitzez nahiz fisikoki.
3. Gelan baduzu neskatxa bat beti bakarrik egoten dena, inoiz ez du besteekin jolastu nahi eta irakaslearen atzetik ibiltzen da beti.
4. Ikasle bat oso larri jartzen da azterketa bezperan: botaka egiten du. Azterketa egiten ari denean azkazalak jaten ditu eta azterketa bera oso zikin entregatzen du. Ondorioak oso txarrak ez izan arren, nola lagun diezaiokegu bere herstura gainditzen.

Egoera edo kasu guztietarako:

1. Egoera behatu eta informazio gehiago era sistematiko batean hartzea.
2. Portaera/portaerak identifikatu.
3. Esku-hartzearen helburua zehaztu.
4. Helburuen arabera teknika edo prozedura ezberdinak aukeratu.
5. Teknikak aplikatu ondoren, ebaluatu

4. GAIA: IKUSPEGI KOGNITIBOAK.

38. ZEINTZUK DIRA IKUSMOLDE KOGNITIBISTAK?

- Ikuspegi kognitibistak pertsonaren adimen / kognizioan gautzatzen diren barne prozesuetan oinarritzen dira.
- Ikusten ez diren aldagaiak aztertzen dituzte (pentsamendu, sormena, emozioak, asmoak...)
- Ez dituzte lege orokorrak bilatzen, baizik eta ezberdintasun indibidualen zergatiak eta arrazoiak.

Ikusmolde kognitibioen artean:

- **Ikaskuntza Sozial-kognitiboaren teoria (A.Bandura)**
Teoria neokonduktista den arren, kognizioaren papera onartzen du ikaskuntzaren oinarrian.
- **Konstruktibismoa:**
 - **Ikuspegi Genetiko-kognitiboa (Piaget)**
 - **Ikuspegi kognitibista testuingurukoa (Vygotsky, Bruner)**
 - **Ikaskuntza Esanguratsuen Teoria (Ausubel)**

Konstruktibistentzat ikaskuntza zuzenean behatu ezin den barne prozesua da. Ikuspegi hauek ikaskuntza eraikuntza bezala ulertzen dute. *genetika, sozializazioa, aurkikuntza eta errezeptzioa* esanguratsuak dira kasuz kasu.

- **Informazio prozesatzearen teoriak:**
Informazioaren hautematea eta pertsonaren barruan gertatzen den informazioaren trataera eta berreskuratzeko prozesuak aztertzen dituzte. Metodo ezberdinekin pertsona eta behargarriak ez diren hainbat aldagai kontuan hartzen dituzte. Ikaskuntza, gizabanakoaren barnean ematen den aldaketa, prozesu aktiboa da.

39. ZER DA KONSTRUKTIBISMOA?

Gizabanakoa bere kognizioa (aspektu kognitibo, sozial eta afektuzkoa) ez da ingurunearen ondorio hutsa ezta bere barneko ondorio soil bat ere. Bi osagaien arteko erlazioen emaitza da. Egunez egun moldatzen den eraikuntza propioa da.

- Ikastea ez da errealitatearen kopia baizik eta **eraikuntza** bat.
- Pertsonak aurrez dituen eskemen bidez moldatzen du eraikuntza hori, bere ingurunearekiko harremanetan aurretik eraiki zuen eskema horien laguntzaz.
- **Eskemak** errealitate konkretu eta kontzeptu baten errepresentazioa dira.
- Hauen bidez errealitateko egoera berdintsuei aurre egiteko baliatu gaiten.
- Gizakiak moldaturik dituen eskemen bidez jarduten du errealitatean.

3 konstruktibismo mota:

- Bakarrik baino ezin da ikasi, hau da, ikaskuntza banakako jardura da. Piagetek, Ausubelek eta Psikologia kognitiboa eskaintzen duten ikuspegian, bere ingurukoekin harremanik gabe ikasten ari den norbanakoaren ideian oinarritzen dira.
Ikaslea nagusiki bakardadean ikasten du.
- Bakarrik baino, hobe ikasten da lagunekin. Piaget eta Vygotsky-ren erdibideko konstruktibistek defendatzen duten ideia da. Ezagutza maila ezberdinak dituzten ikasleen arteko informazio trukeak ezagutza-gatazkak eta aldakuntzak sortzen ditu.
Norbanakoaren aldaketa eta ikaskuntza-mekanismoetan elkarrekintzak dituen ondoriak aztertzen dira.
- Lagunekin bakarrik ikasi daiteke. Vygotskyren jarrera erradikala da. Ezagutza giza-harremanen ondorio

da eta ez jarduera indibiduala.

Ikasleak jarduera indibidual bat gauzatzen ari duen arren, trukaketa sozialari emango zaio garrantzia.

40. ZER DA IKASTEAK IKUSMOLDE KOGNITIBISTAREN ABURUZ?

Ikuspegi konstruktibista-kognitibista: (Piaget, Ausubel)

Aprendizaia eraikitze aktibo bat da, aurretiazko ezagutzak berreraikitzen joatea da. Prozesu ezberdinen bidez aurrekoa berriarekin lotuz ematen den prozesua da.

Ikuspegi konstruktibista-soziala: (Vigotsky)

Aprendizaia sozialki definituriko balore eta ezagupenen laguntzetan oinarriturikoe eraikitzea da. Testuinguru sozialak eskaintzen dituen aukerek sortzen dute prozesua.

Ikuspegi transmisiboa - informazio prozesatzearena:

Aprendizaia gertakizunak, trebetasunak, kontzeptuak eta estrategiak hartzea da. Estrategia eta tekniken aplikazioari esker eskuratzen da.

41. ZER DA IRAKASTEAK IKUSMOLDE KOGNITIBISTAREN USTEZ?

Ikuspegi konstruktibista-kognitibista: (Piaget, Ausubel)

Ikaskuntza ikaslearen barne prozesu batenez, irakaskuntzaren erroka / saiakera da ikasleak egin behar duen prozesua irakasleak kanpotik gidatzen jakitea.

Ikuspegi konstruktibista-soziala: (Vigotsky)

Ikaskuntza testuinguru batean irakitzen denez, irakaskuntza giza-harremanetako elkar-erakitze batean sortzen da.

Ikuspegi transmisiboa - informazio prozesatzearena:

Irakastea informazioaren transmisioa da. Irakasleak informazioa igorri eta honekin batera bere prozesamendurako teknika eta estrategiak azalduko ditu (Gordetzeko, antolatze, oroitzeko...).

42. ZEIN DA IKASLEAREN IKUSPEGIA teoria kognitibisten ustez?

Ikuspegi konstruktibista-kognitibista: (Piaget, Ausubel)

Ikaslea eraikitzaile (mental) aktiboa da. Irakaskuntza ikasleak berak eraiki behar duen barne prozesua da. Hortaz, ulertu, pentsatu, adierazi, zalantzan jarri, eztabaidatu... bezalako ekintza mentalak ezinbestekoak dira.

Ikuspegi konstruktibista-soziala: (Vigotsky)

Ikasleak ikaskuntza, hau da, barne prozesuaren eraikitzea, testuinguru batean eraiki behar du. Giza harremanen arteko elkar ekintzetan.

Ikaslea gizabanako bezala hartu behar da eta elkar-erakitze honetan ikaskideen garrantzia azpimarratzen da.

Ikuspegi transmisiboa - informazio prozesatzearena:

Ikastea informazioa hartu eta prozesatzea da. Ikaslea informazio hartzaile eta prozesatzaile aktiboa da. Baita tenika eta estrategien erabiltzailea ere.

43. ZEIN DA IRAKASLEAREN PAPERAK IKASTE-PROZESUAN teoria kognitibisten aburuz

Ikuspegi konstruktibista-kognitibista: (Piaget, Ausubel)

Irakaslearen helburua ikasleak ikaskuntza barne prozesua eraikitzea da.

Irakaslea informazio iturria izateaz gain, ikasleen aurretiazko ideien entzule, premien bilatzaile, jardueren antolatzaile eta ikas prozesuaren gida izango da.

Ikuspegi konstruktibista-soziala: (Vigotsky)

Irakasleak ikasleari lagundu behar dio ikaskuntzako barne prozesua testuinguru sozial batean eraikitzen.

Beraz, irakaslea ezagutzaren informazio iturri, testuinguruaren ezagule, jardueren antolatzaile eta ikas prozesuaren gida izateaz gain, giza harremanetako elkar-ekintzen bultzatzaile izango da ere

Ikuspegi transmisiboa - informazio prozesatzearena:

Irakastea informazioa transmititzea da.

Irakaslea informazioa transmititu eta honen prozedurarako teknika eta estrategien (gorde, antolatu, oroitu...) erakusle eta zuzentzailea izango da.

44. PIAGET-EN ustez, ZER DA GARAPEN KOGNITIBOA?

-Garapen kognitiboa / kognizioa, gogamena, pentsamendua, adimenaren garapena da.

-Piaget-en **teoria genetiko-epistemologikoaren** ustez, garapena etapa ebolutibo ezberdinetan antolatua dago.

-Adimenaren garapenaren alderdi ezberdinak:

1. Antolamendua / adimenaren eskemen egitura:

Ekintza eskemak dira. Antzeko egoeretara aplikatzen ahal dira eta antolakuntza duten ekintza errealean edo mentalen segidak dira.

Elementu sortzaile eta eragile bana dituzte.

Automatizatu egiten dira.

Eskemen bidez ezagutzak eraikitzen eta aldatzen ditugu esperientziaren arabera, egoera ezberdin eta anitzetan erabiltzeko.

2. Adaptazioa / egokitzapena:

Organismoaren elkar trukaketa bere ingurunearekiko. Biak aldatzen dira oreka (mentala) lortzen delarik. Pertsona inguruneari eragiten dio eta oreka kognitiboa (mentala) lortzen du.

2 prozesu daude:

Asimilazioa: inguruaren gaineko organismoaren ekintza. Inguruaren eransketa sinboliko edo erreala. Erantsi ahal izateko ingurunean aldaketak eragiten dira.

Akomodazioa: Inguruaren eraginez organismoan sortutako aldaketak. Asimilazio gaitasuna eta egokitzea gehitzea helburua du.

Oreka (mentala) → Ideia edo esperientzia berria → Oreka eza: desadostasuna, nahasmen galderak.

Adaptazioa → Oreka Asimilazioa → (aldaketa mentala) Akomodazioa → (Berria)

45. Piaget-en garapen kognitiboaren teorian zein ESTADIO edo etapa bereizten dira?

Piaget-en ustez kognizioaren garapena etapa / estadioen bidez hedatu egiten da. Fase ezberdinetan zehar adimenaren aldaketa ematen da. Etapa hauen sekuentzia invariablea da (genetikak bideratzen du).

1. Adimen sensomotorea (0-2):

- Sentimen eta mugimenduei dagokien etapa. Estimulu eta sentsazio anitzeko etapa.
- Pertzepzio, motrizitate, arreta, oroimenaren garapena.

- Haurrak sentimen eta mugimenduak erabiltzen ditu mundua ulertzeko. Objektuak ekintzen bitartez ezagutzen ditu.
Etaparen honetan ulertuko du objektua existitzen dela aurrean ez dagoenean (objektuen permanentzia eta iraunkortasuna).
- Ez dago pentsaera kontzeptualik, gogoetarik.

2. Adimen aurreoperazioana / aurrekontzeptuala: (2-6):

- Pentsamendu sinbolikoa erabiltzen du mundua ulertzeko.
- Irudimena eta lengoaia komunikabidea dira.
- Bere gogamenak muga/ezaugarri asko ditu: zentrazioa, estatismoa, itzulezintasuna, errealismoa
- Mundua bere ikuspegitik ulertzen du baina pixkanaka deszentratzen joango da, ikuspegi desberdinak ulertzen eta koordinatzen joango da.

3. Operazio zehatzen adimena: (7-11):

- Operazioak: ekintza konkretu, barneratu eta errealak dira.
- Arrazoiketaren hobekuntza. Lengoaia, arreta eta oroimenaren garapenari esker.
- Azkarrago pentsatzen dute.
- Operazio logikoak ulertu eta erabiltzen dituzte.
- Pentsamendu intuitibotik, objetibo eta arrazionalitatera pasatzen hasten dira.
- Haurrak: kontzeptu, zenbakiak, sailkapenak zein objektuen kontserbazioa ulertuko du.

4. Operazio formalen adimena: (12-...):

- Helduak bezala pentsatzeko gaitasuna.
- Pentsamendu abstraktu, hipotesiak eta arrazoiketa analitikoa posiblea dauka.
- Arrazoiak pentsatzeko gaitasuna. Ez soilik emozionalki edo intuizioz.
- Gai politiko, filosofiko, etiko, sozialak, moralak... ulergarriak eta interesgarriak aurkitzen ditu.

46. PIAGET-EN ABURUZ, ZERTAN DATZA HEZKUNTZA PROZESUA:

Ikaslearen ikuspegitik:

Personaren aktiboki munduari buruzko ezagutza eraikitzen du. Adimen aktiboa lantzen du ekintzen bitartez

Irakaslearen ikuspegitik: Eraikitzen prozesu honen laguntzaile eta antolatzailea izan behar du.

Ikaskuntza- irakaskuntza prozesua:

Eskemen eraikuntza: Ezagutzak eraikitzen eta aldatzen ditugu esperientzien arabera. Gerora, antzeko egoeratan erabili ahal izateko.

Egokitzapena (asimilazio eta moldatzea): Pertsonak inguruneari elkarreragiten dio eta oreka mentala lortu egiten du.

47. PIAGET-EN TEORIAREN INPLIKAZIOAK ETA ONDORIOAK IKASGELAN:

Irakasleak ikasleen garapen estadia kontuan hartu behar dute (adina) eta aldi honek dituen ezaugarriak.

Etapaka:

1.Sentimen/mugimenduari dagokion aldia: (0-2).

Ezaugarriak: erreflexuak, ekintza-eskemak, jokabide intenzionala...

Orientabideak:

- Ahal denean sentimen eta mugimenduzko laguntzak/osagarriak erabiltzea. Hobeto entzuk, ikusi, usaindu, ukitu, sentitu ahal izateko.
- Adierazpen laburrak egitea. Hitzekin batera ekintza eta keinuak erabili.

2.Eragiketa aurreko/ aurreoperazionala aldia: (2-6).

-Ezaugarriak: egozentrismoa, sinbolikoa, imitazio barneratua, jolas sinbolikoa.

-Azpiestadioak:

Pentsamendu sinboliko eta aurrekontzeptuala (2-4).

Pentsamendu intuitiboa: (4-7).

-Orientabideak:

- Adierazpenerako: marrazki, antzerki jokuak... erabiltzea.
- Mundua bere ikuspegitik ikusiko du bakarrik, beraz bere mundura hurbildu behar dugu.
- Adierazpen zehatzak eta konkretuak erabili.
- Bere erreferentzia eta ideiak ezagutzeko galderak egin.
- Ekintzen inguruko praktika fisikoa eta abileziak eskaintzea.
- Manipulazioa, esperimendazioa, praktika eskuan jartzea.

3.Eragiketa konkretu/ zehatzen aldia: (7-11).

Ezaugarriak: Pentsaera logiko sistemikoa.

Arazo konkretu eta errealei aurre egiteko gaitasuna, pentsaera itzulgarria, logika konkretua.

Orientabideak:

- Objektu eta material ezberdinak erabili eta manipulatzeko aukera ematea. $\frac{3}{4}$ aldagai batera manipulatzeko momentu berean.
- Adierazpenak (ahozko/idatzizkoa), motzak, zehatzak, ondo antolatutakoak.
- Informazio berria eta ideia konplexuak asimilatzeke ezagunak diren ideiak / adibideak erabiltzea.

4.Eragiketa formalen aldia; (12-...).

Ezaugarriak: Pentsaera logiko eta abstraktua, hipotetiko-deduktiboa...

Orientabideak:

- Ikus-entzuneko lagungarri eta euskarriak erabiltzea.
- Eztabaidatu eta miatzeko jarduerak proposatu.
Hipotetikoak diren aztergaiak erabili.
- Erantzun zuzenez aparte, argudioak eman eta beste bideak bilatzen saiatzea

48. PIAGET-EN TEORIAREN APLIKAZIOA:

49. “

”

KASU PRAKTIKOAK DIRA.

VYGOTSKY.

50. VIGOTSKY-ren aburuz, zer da GARAPEN KOGNITIBOA?

Vigotsky garapen kognitiboari buruzko ikuspegi kognitibo-konstruktibista du. Hau da, kognizioaren garapena eraikuntza prozesu bat da baina ez da banakako lanaren emaitza baizik eta elkar-ekintzarena. Testuinguru sozialak garapena kanalizatzen eta honetan eragina dauka.

Garapena zerbait soziala bezala ulerturik, giza portaera soziala da eta ikaskuntza prozesua prozesu sozio-kulturala. Gizarteak sortzen duena eta gizabanakoa transmititzen duena.

Testuinguru zehatz batean (fisiko, kulturala, gizartea...) garapen kognitiboa (adimena) eta hizkuntza, besteekiko harreman, elkar ekintza eta elkarreaginaren bidez garatzen da.

Vigotskyren ustez garapen kognitiboa eta hizkuntzarena hasieran prozesu bananduak dira. Baina haurrak jokaera erregulatzekeo hizketa erabiltzen hasten denean, bi prozesuak elkartzen dira.

Gizakiak hizkuntza erabiltzen dugu: besteekiko harreman komunikatiboetarako eta gure penstaera pribatua erregulatzekeo.

Hizketa pribatuak (norbera bere buruarekin), haurraren garapen kognitiboa eta haurraren jokabidea gidatzen du.

Prozesu honen bidez hizkuntza ekintza kognitibo garrantzitsuenetan erabiltzen ditugu: arazoak konpondu, arreta zuzendu, kontzeptuak eratz, jokaera erregulatu...

Vygotsky elkarreragin sozialaren garapenean hiru eremu ezberdin bereizten ditu:

1. **Garapen erreala:** Une zehatz batean, eremu desberdinetan, pertsonak lortutako garapen mailan. Laguntzarik gabe, bera bakarrik egiteko gai dena.
2. **Garapen potentziala:** Eskuratu ez duen garapena baina lortu dezakeena.
3. **Hurbileko garapen zonaldea:** Garapen erreala eta potentzialaren arteko distantzia da. Bera bakarrik egiteko gai ez dena baina laguntzarekin lortu dezakena.
Garapena eraikuntza bezala ulertuz, laguntza hauek etxea eraikitzekeo aldamioren laguntza bezalakoak dira.

51. Vigotsky-ren aburuz, ZERTAN DATZA HEZKUNTZA PROZESUAK?

Ikaslearen ikuspegia: - Izaera sozial eta kulturala

-Hizkuntza eta goi-prozesu psikologikoak: Arreta, pertzepzioa, oroimena...

Irakaslearen ikuspegia: - Ikusle enpatikoa: Ikasleen artean elkarrekintza sortu-

-Ikaskuntzaren bultzatzailea: Ikasleen arteko lankidetzak.

Hezkuntza proposamenak:

- Heziketa garatzaileak: Aprestuz esanguratsuak garapenari eragin eta aurrera eramaten dituzte.
- Garapen erreala, potentziala eta hurbileko zonaldea kontuan harturik: Pertsonak laguntzarekin garatzen ahal dituen arloak.
- Ezagutza egoera ezberdinekin lotu.

52. Zeintzuk dira Vigotskyren TEORIAREN INPLIKAZIOAK ETA ONDORIOAK IKASGELAN?

Garapenaren teoria gogoraraztea komenigarria da.

Vigotskyren teoriarekin erlazionaturiko hizkera eta garapen zonaldeei dagokionez:

Hizkera pribatua eta sozialari dagokionez:

Bi hizketa motak pertsonari bere garapenean (kognitibo zein soziala) laguntzen diote. Horregatik, bere erabilera eskolan bultzatzean, ikasleei bere pentsamendua erregulatzen lagunduko genieke.

Autoinstrukzio kognitiboko prozedurek, ikasleei apendizaiak gidatzeko hizketa erabiltzen erakusten die.

Adb. Ikasleak bere buruari galderak egitea: Zer egin behar dut orain? Nola lortuko dut?...

Garapen hurbileko zonaldeari dagokionez:

Garapen erreala eta potentzialaren artean kokatzen delarik, honetan esku-hartzea proposatzen du. Laguntzaren bitartez bakarrik lortu dezakeena gerora pertsona horrek bakarrik lortu ahalko duelako.

Hizkuntza bera laguntza izan daiteke. Irakasleak ikasleari galderak egiten, pentsatzen ikasten eta autoerregulatzen bere garapenari lagunduko dio.

Horretarako, ezinbestean irakasleak haurren garapen errealearen ezaugarriak ezagutu beharko ditu, bere arlo guztietan:

- Ikasleei ze informazio eta nola eman jakin beharko du.
- Eginkizuna aurkeztu baino lehen, ikasleen aurrezagutza ezagutu beharko ditu.
- Eginkizuna hurbileko zonaldearen erdialdean kokatu beharko da.
- Eskaintako laguntza alderantziko proportzionala izango da. Ikaslearen garapen maila handitzen doan heinean laguntza txikitzen joango da.

53. IKASKUNTZA eta GARAPENAREN arteko erlazioak: Vigotsky eta Piaget-ten ikuspegiaren arteko antzekotasun eta desberdintasunak.

1) Piageten adimeraren garapenaren etorriak adimenak kualitatiboki ezberdinak diren garapen aldietan iragaten ditu. Eskema eta egitura eskemak lotzen dira estadio (garapen-aldi) batetik bestera pasatzeko.

Vigotskyren teoriaren arabera subjektua nagusiki izaki soziala izanik pertsona elkarrekintza eta elkarreragin sozialaren eta kulturaren bidez garatzen dela dio. Goi mailako prozesu psikologikoak (arrazoiketa, hizkuntza) lehenik ingurune sozial batean eskuratu eta ondoren pertsonak bere kognizioan barneratzen ditu. Teoriaren ekarpen nagusia hurbileko garapen zonaldearen eta beste bi zonaldeen kontzeptuak dira.

2) Piageten ustez haur batek ikasi dezakeena adimen garapen mailarengatik baldintzatua dago.

Vigotskyren ustez adimenaren garapen maila ikaskuntzari baldintzaturik dago.

3) Hizkuntza:

Piageten ustez, eragiketa-aurreko aldiko hizkuntza egozentratuaren kasuan adibidez, hizkuntzak ez duela eraginik garapen kognitiboan dio. Haurrak besteren ikuspuntua ulertzeko duen gaitasun faltaren adierazpena dela.

Vigotskyren ustez ordea, hizkuntza egozentratuan garapen kognitiborako berebiziko ekarpenak ikusi zituen. GARapen alditarako oinarritzko izanzen zen hizkera barneratua moldatu zedin urrats bat zelako, uste baino komunikazio gaitasun handiagoak zituelako.

4) Garapena eta hezkuntzaren arteko erlazio estua:

Piageten ustez garapena hezkuntzaren aurretik ematen da, etapen sekuentzia genetikoki determinaturik baitago. Hortaz, garapenaren sekuentzia ezagutu behar dugu haurra etapa batetik bestera pasatzen den bitartean laguntza emateko.

Vigotskyrentzat berriz, hezkuntza garapenaren aurretik doa. Haurraren garapen errealetik abiatuz, ikaskuntzak garapen potentziala bultzatu nahi du garapen hurbilko zonaldean esku hartuz.

Azken hamarkadetan ikerketa ezberdinek baieztatu dute elkarrekintza sozialek ikaskuntzan duten garrantzia. Ikaskideekin harremanetan jarduten duten ikasleek era emankorrangoan ikasten dutela.

BRUNER.

54. BRUNEREN GARAPEN KOGNITIBOAREN TEORIA:

Aurkikuntzaren bidezko aprendizaietan, Brunerrek Piageten antzeko heziketa kognitiboaren hiru etapa bereizi zituen.

- 1) **Arituzko etapa:** haurrek hartu, sentitu, zatitu, usaindu... daitezkeen gauzeekin ulertzen dute mundua (Piageten etapa sensomotorea).
- 2) **Etapa ikonikoa:** Haurrek irudiak eratzen hasten dira munduan gertatzen dena irudikatzen eta ulertzen (Piageten etapa aurreoperazioanala).
- 3) **Etapa sinbolikoa:** Haurrek ideia abstraktuak, sinboloak, lengoia eta logika ulertu eta erabiltzeko kapazak dira.

Maila sinbolikoa duten pertsonen, arituzko eta pentsamendu ikonikoa erabiltzen dute bereziki zerbait berria ikasi behar dutenean. Zerbait berria ezagutzean arituzkotik hasi eta ikonikora pasatzen gara sinbolikora iritsi arte. Honetarako ekimen aktiboak erabiltzea prozesuari lagunduko dio.

55. Bruner-ren aburuz, ZERTAN DATZA HEZKUNTZA PROZESUAK?

Bruner-ren ustez ikastea eraikuntza aktiboa da non ikasleak ulerkuntza era aktibo batean aurkitzen dute.

-Ikaskuntza azterketa aktiboa da eta arazo kognitiboen irtenbideak aurkitzea ikasteko modu egokia eta naturala da.

- “aktibismo” metodologiko honek ikaskuntza memoristikolari konfrontatzen zion.

Aurkikuntza bidezko ikaskuntzan, irakasleak ikas prozesua antolatzerakoan zereginak eta gela era aktibo batean izan behar zen. Horretarako ikasleengan jakinmina sortzen duen galderak bota, egoera harrigarriak edo arazo interesgarriak planteatu...

Adb. Zergatik dolesten da arkatzen irudia ur barruan?.

Eta erantzuna eman ordez ikasleei baliabideak eman haien hipotesiak atera eta ulertzen saiatzeko.

Esperimentazioaren bidezko aurkikuntza honetan entsegu-akatsa metodoa erabiltzen da. Irakaslea gidatu arren normala da ikasleek akats egitea eta gainera lagungarria izango da akats horietatik informazioa ateratzeko.

Ikaskuntza hau induktiboa da: Esperimentazio konkretutik, abstraktura doa ezaguera.

Irakasleak zehaztutako zeregin zehatzetatik printzipio/ondorio orokorretara ailegatu behar dira ikasleak.

Intuizioko pentsamenduaren agerpena bultzatzen du ikasleak ondorioak, suposizioak egitera animatuz.

Sormena ere saritua da.

Aurkikuntza bidezko bi mota bereizi: (adinarekin lotua)

- 1) Ikasleek neurri handi batean lan egiten dute: Haur hezkuntzan egokia, jakinmina eta interesa pizteko.
- 2) Irakasleak neurri handi batean aurkikuntza gidatzen du: Lehen hezkuntzan egokiagoa

56. BRUNER-REN AURKIKUNTZA BIDEZKO IKASKUNTZAREN APLIKAZIOA GELAN?

adibide praktikoa. egiteke. teoria ere badago pero me da pereza.

AUSBEL.

57. Ausbel-en ERREZEPZIOKO IKASTE ESANGURATSUA-ren teoriak zer dio?

Lau aprendizai mota ezberdintzen ditu Ausbelek:

1. **Ikaste mekanikoa / oroimen hutsakoa:** informazio hartze hutsa da, logika eta ulertu gabe. Buruz ikastea da.
2. **Errezeptzioko aprendizaiak:** Ikasleak irakasleak emandako informazioa hartu, ulertu eta barneratuko du, gerora berreskuratzeko.
3. **Aurkikuntza bidezko aprendizaiak:** Ikasleak aktiboki informazioaren egitura bilatzen arituko da. Irakaslea bere gidaria izango da.
4. **Ikaste esanguratsua:** Informazio berria hartu, ulertu eta aurreko informazioarekin lotzea da.

Esanguratsua izateko bi baldintza:

- 1) Ikaslea ikasteko prest egotea.
- 2) Ikasgaia, potentzialki esanguratsua izatea. Hau da, ikaslearen garapen kognitiboarekin eta aurretiazko kontzeptuekin lorutara izatea. Ikaslea oso ezaguna badu edo ezin badu ezerrekin erlazionatu, potentzialitate hori galtzen da.

Ausbelen ustetan, pertsonenek errezeptzioaren bidez ikasi egiten dugu. Hau da, kontzeptu, ideia, printzipioak aurkezten eta ulertzen ditugunean.

Bere errezeptzioko ikaste esanguratsua: dedukzioan oinarritzen da. Hau da, irakaslea informazio orokorretik abiatzen da zehatzera heltzeko.

Informazioa modu sekuentzialean egon behar da antolatuturik.

Informazio berria eta aurretiazko ezagutzaren artean adostasuna ematen bada, aprendizaiak esanguratsua izango da.

58. Ausbelen ERREZPEZIOKO IKASKUNTZA ESANGURATSUAREN teoriaren EKARPENA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAN?

Ausbelen ustez, pertsonarentzat ikasten ari duen hori esanguratsua izan behar da. Esanguratasun aurretiazko jakintza eta ikasten berri ari denaren arteko loturetan oinarritzen da.

Ausbelen iritziz ikastea eta ulertzea gauza bera dira. Ulertzen duena izango da benetan ikasiko dugena eta gerora oroitu duena. Horregatik irakasleak ikasleak dakienera moldatu beharko ditu edukiak.

Ikaslearen barne prozesu zein kanpoaldetik jasotzen dituen erantzunetan oinarritzen da ikuspegi hau.

Ikaslearen aurretiazko ezagutza eta ezagutza berriaren arteko erlazio egokiak sortzen laguntzeko, irakasleak egiten dizkion aurkezpeni **aurretizko antolatzaile** izeneko kontzeptuak dira.

Ikaslearen ikuspegia:

- Hartzaile aktiboa
- Ikaslearen alderdi kognitibo, sozial eta afektiboa kontuan hartzen da.

Irakaslearen ikuspegia: - Ikaskuntza aktiboaren bermatzailea.

Hezkuntza proposamenak:

- Ezagutzaren eraikuntza:
 - Barneko eskemen berrantolaketa prozesua.
 - Gatazka kognitiboa: Dakiena eta jakin behar duenaren artekoa.
- Ideia eta kontzeptu berriak ikaslearentzat esanguratsuak izatea:
 - Aurre ezagutzak kontuan hartu
 - Ikaskuntzarako materialak ondo antolatzea.

59. AUSBELEN ERREZPZIOKO IKASKUNTZA ESANGURATSUAREN APLIKAZIOA IKASGELAN?

ADIBIDE PRAKTIKOA DA. EGITEKE GERATZEN DA.

60. AURKIKUNTZA BIDEZKO ETA AURKENPEN BIDEZKO teoriaren arteko ALDEAK/ANTZEKOTASUNAK.

Kontuan hartutako faktoreak:

- Ikuspegi Teorikoa - Egilea -Ikaste prozesua/aprendizaia
- Irakaslearen ikuspegia - Ikaslearen ikuspegia - Irakaskuntza proposamenak

Teoria	Aurkikuntza bidezko ikaskuntza	Aurkezpenen bidezko ikaskuntza
Egilea	Bruner	Ausubel
Aprendizaia	<ul style="list-style-type: none">• Aurkikuntza eta ulermena• Induktiboa:<ul style="list-style-type: none">○ Konkritetik abstraktura○	<ul style="list-style-type: none">• Ulerkuntza esanguratsua• Deduktiboa:<ul style="list-style-type: none">○ orokorragotik zehatzagora
Ikaslea	<ul style="list-style-type: none">• Aktiboa da:<ul style="list-style-type: none">○ Ikasleak aurkitu behar du ulertu behar denaren egitura○ Ikasleak esperientziaren bitartez, gertatzen dena ulertzeko hipotesiak formulatuko ditu eta teoria kontzeptu eta azpikontzeptuetara iritsiko dira.	<ul style="list-style-type: none">• Aktiboa da:<ul style="list-style-type: none">○ Irakasleak aurkezten duena hartu behar du (errezeptiboa)○ Irakasleak aurkezten duena aurreko informazioarekin lotu behar du○ Informazio berria esanguratsua bihurtu behar du
Irakaslea	Ikasteko egoera eta baliabideak prestatuko du.	Azalpen egituratua egingo du.
Irakaskuntza	<ul style="list-style-type: none">• Esperimentala<ul style="list-style-type: none">○ Entsegu-errore metodoa erabiltzen du.○ Pentsamendu hipotetikoa eta intuiziozkoa garatuko du• Pausoak:<ol style="list-style-type: none">1. Irakasleak galderak egin ikasleek jakin-mina piztu.2. Arazo edo egoera interesgarri bat aurkeztu.3. Esperimentatu ahal izateko egoera planteatzen da eta material egokia eskaini.4. Ikasleak esperimentatu praktikan eta gertatzen dena behatu.5. Azkenik praktika honetatik abstrakzioa bilatu eta beste adibide batzuekin konparatu.	<ul style="list-style-type: none">• Sekuentziala:<ul style="list-style-type: none">○ Aurretikako antolatzaileak ezagutarazi (definizio, adibide edo generalizazioen bitartez).○ Menpeko edukinak (informazio berria) eta azpikontzeptuak aurkeztu.○ Azpikontzeptuak eta aurretikako antolatzaileen arteko loturak egin• Pausoak:<ol style="list-style-type: none">1. Irakasleak aztergaia ondo prestatu eta antolatu.2. Aurretiazko antolatzaileekin abiatu.3. Adibide asko duen ariketa proposatu.4. Berdintasun eta aldaerak ikusteko elkarrizketa proposatu.5. Ikasleak oroimen bidezko ikasketara animatu (mekanikoa edo esanguratsua)

61. Ikasleen ikaskuntza esanguratsua bultzatzeko, buruz ikasi ez dezaten eta ulertuz ikastera bultzatzeko. Zer egin dezakegu?

Aurretik emandako adibideak, haien iradokizunei erantzuteko erabili.

Bi aukera posible:

- 1) Aipatu dugun teoria bat hartu eta horretan oinarritu erantzuna.
- 2) Ideia orokor batzuk honera ekarri konginitibstak diren ikuspegiak eta proposamenak aipatuz.

62. IKUSMOLDE KONSTRUKTIBISTEN ARTEKO ALDERAKETA:

TEORIA KONSTRUKTIBISTAK				
Egilea	Piaget	Vygotsky	Bruner	Ausubel
Teoria	Epistemologiko -genetikoa	Sozio-historikoa	Aurkikuntza bidezkoa	Aurkezpen esanguratsua
Aprendizaia	Eraikuntza aktiboa Adimenaren Garapena Egokitzapena (asimilazioa eta moldatzea) Oreka berreskuratzea	Elkar-eraikuntza soziala Hurbileko Garapen zonaldean	Aurkikuntza Ulerkuntza	Hartze esanguratsua
Irakastea	Eskemen eraikuntza	Heziketa garatzailea Garapen Hurbilaren Zonaldea (GHZ-ZDP) aldarnatzea	Esperimentazio gidatua Induktiboa	Aurkezpen antolatuaren hartze esanguratsua
Ikaslea	Adimen eraikitzaile aktiboa (eskema-ekintzen bitartez)	Eraikitzaile soziala	Esperimentatzaile aktiboa Zientzialaria	Hartzaile aktiboa
Irakaslea	Laguntzailea, antolatzailea,...	Ikusle enpatikoa Ikasleen elkar-ekintzen sortzailea. Ikaskuntza bultzatzailea	Baliabide eta esperientzien administratzaile, behatzailea, gidaria	Antolatzaile, aurkezle ona eta dinamizatzaile

5. GAIA: INFORMAZIO-PROZESATZEAREN TEORIAK:

63. ZEINTZUK DIRA TEORIA HAUEN EKARPENAK HEZKUNTZAN?

Informazioa-prozesatzearen teoriak, teoria konitiboen artean kokatzen dira.

Hauen arabera, pertsonak informazioa prozesatzen dute (ordenagailuak bezala): kanpoko informazioa hartu, sinboloen bidez kodifikatu, beste informazio batekin konbinatu eta mundura bidali deskodifikatu ondoren. Metafora honekin azalduta pentsamendua (eta jokaera) prozesu batzuen bidez eraikitzen da: ezagutza, pertzepzioa, azterketa, apendizaiia, barrurapena...

Prozesu honetan gogamen egitura ez da aldatzen baina operazio mentalak bai. Hasieran konszienteak dira eta gero automatizatu egiten dira. Hobetzeko estrategiak erabiltzea ere badago.

Teoria honen ekarpena:

Ikaslearen ikuspegia: Informazio hartzaile eta prozesatzailea da. (Ordenagailuaren metafora).

Irakaslearen ikuspegia: Ezagutzaren transmititzailea eta informazioaren igorlea.

Hezkuntza proposamena:

- Apendizaiia, kognizioa eta jokamoldea prozesu batzuen bidez eraikitzen dira: Pertzepzio, arreta...
- Operazio mentalak hasieran konszienteak eta gero automatikoak dira.
- Apendizaiarako estrategia eta teknikak badaude.

64. Zeintzuk dira APRENDIZAIAREKIN LOTUTA DAUDEN OINARRIZKO PROZESU PSIKOLOGIKOAK?

- Pertzepzioa - Arreta - Oroimena - Adimena - Lengoia

PERTZEPZIOA

65. Zer da PERTZEPZIOA?

Pertzepzioa definitzeko aukeren artean:

- Informazioaren bilketa ahalbidetzen duen ezaugarri fisiologikoa da.
- Zentzu organoek eta nerbio-sistemek burutzen duten informazioaren prozesamendua.
- Pertzepzioa zentzu organoetara iristen den informazioa aukeratu, antolatu eta interpretatzen duen prozesu oro da.
- Trebetasun eraikitzailea, fisiologia eta esperientzia konbinatuz.

65. PERTZEPZIO eta SENTSAZIOAren arteko DESBERDINTASUNAK:

Sentsazioa.

Estimulu bat jasotzea da. Bost zentzumenen / organo sentsorialen bidez jasotzen dugun informazio / estimuluak dira. Estimulu baten bitartez bapateko esperientzia sortzen dugu zentzumenetan. Fisikoa da eta zentzumen organoetan kokatzen da.

Pertzepzioa.

Sentsazioari ematen diogun esanahia / zentzua; nola ulertzen dugun. Bakoitzak errealitatea nola interpretatzen duen da. Estimuluan informazio moduan hautemateko gaitasun kognitiboa da. Sentsazioen interpretazioa da eta garunean kokatzen da.

Biak oso erlazionaturik dauden gaitasun kognitibioak dira baina ezberdinak:

Sentsazioa: Objektiboa da, sensoriala, mundu errealekin lotuta dago eta fisikoa da.

Pertzepzioa: Subjektiboa da, kognitiboa, pertsonaren barneko munduarekin lotua, selektiboa.

Arretaren baitan dago eta funtzio kognitiboa du. (Estimulu esperientzie ematen diegun esanahia da.)

ARRETA

67. Zer da ARRETA?

Definizioa emateko psikologen artean eztabaida dago. Batzuen ustez, pertzepzioaren alderdi bat besterik ez da. Beste batzuen ustez, informazio konkretu bat baztertzen duen informazioa da.

- Adi egotea.
- Mekanismo kognitibo bat da.
- Ekintza kognitibo bat egiteko gure organismoak dauzkan baliabideak aktibatzen diren prozesua.
- Kanpoko informazioa barneratzeko beharrezkoa. Informazioa jasotzeko prest egotea eta asimilatze edo eginkizunen eskakizunei erantzuteko.

Ekintza egiteko jartzen dugun interes maila ere kontuan hartzeko da. Baita zenbat gauza batera egiten ahal ditugun. Arreta gaitasuna zereginetarako beharrezkoak diren baliabideen araberakoa da ere.

68. Zeintzuk dira ARRETAREN EZAUGARRI OROKORRAK?

Arreta mantentzea erne egotea da eta hori da bere ezaugarri nagusia. Erne dagoen ikasle batek hobeto ikasi eta ulertuko du lehiotik begira dagoena baino.

- **Trebetasun selektiboa da.** Aurrean daukagun informazioaren artean selekzioa egiten dugu. Elementu batzuk hautematen ditugu besteak baztertuz: deigarrienak, berrienak, gustokoenak... Interesatzen zaiguna aukeratzen dugu. Estimuluen bereizketa edo aukeraketa egitea da.
- **Ahalmen mugatua da.** Adi egon arren ezin dugu aurrean dagoen informazio guztia jaso. Adb. ezinezkoa da bi ekintza batera egitea edo zaraterekin zailagoa da arreta mantentzea.

Arretaren iraupena / arreta mantentzeko denbora mugatua dela, kontuan hartu behar da.

Baita informazio kopurua ere, ezin dugu informazio gehiegi zuzenean prozesatzeko gaitasunik.

- Barne gaitasun kognitibo hau jarreraren erregulazioarekin eta erantzunaren automatizazioarekin lotuta dago. Arreta mantentzea ezinbestekoa da zerbait entzun, hartu... nahi badugu.

69. Nola pizten da ARRETAREN ERAKARPENA?

Arreta sortu eta mantentzea ez da erraza, iraukortasuna landu beharra dago.

Arreta selektiboa izanik, estimulu batzuek ezaugarri zehatz batzuk izanda arreta erakartzeko gaitasun handiagoa dute. Ohiko gauzetatik kanpoko baliabideak erabiltzea aukera bat izan daiteke:

Letra tipo ezberdinak, kolore biziak, mugimendua, ahotsaren tonu aldaketa....

Arreta gaitasun mugatua da eta denborarekin oso lotuta dago. Haur askori ariketa bat egiteko ordu erdiz adi egotea kosta egiten zaie. Horregatik estimuluak behin eta berriro berritu behar dira, monotoniarekin apurtzeko.

Faktore pertsonalak kontuan hartzekoak dira. Estimulugarria dena, arreta erakartzen duena ezberdina izan daiteke pertsonaren arabera.

Adb. Pertsona erreflexiboek estimulu baten aurrean deitailuetan ohartu eta informazio asko jasotzen dute.

Pertsona inpultsiboek ordea azkar erantzuten dute eta eginkizunak eskatzen duen denbora ez dute hartzen.

70. ARRETA NOLA MANTENTZEN DA?

Arreta mantentzeko prozesua:

- Hasteko ekintzari (aurrean daukaguna), behar duen denbora eskaini behar zaio. Erne egon eta estimuluak jasotzeko eta asimilatze prest egotea beahrrerzkoa da (arreta mantentzea lan gogorra izan daiteke).
- Baldintza nagusia iraukortasuna da. Arreta mantentzeko esfortzua egin behar da. Batzuetan, errealitatean adlaketak daude elementu berriak agertzen direlarik eta hortaz, arreta errealitatera egokitu behar da.

Automatizazioa eta erregulazioa arretarekin lotuta daude, hau da, arreta hobetzea teknika eta estrategiak erabiliz posiblea da.

- **Erregulazioa:** Arreta mantentzen jakiteaz gain, **portaera egokia** edukitzea garrantzitsua da. Adb. uuAriketa hasi bezain garrantzitsua da bukatzen jakitea. Haur askok etxerakolanak egiten hasten dira baina gerora distraitu egiten dira eta arreta galtzen dute.
- **Automatizazioa:** Zerbait automatikoki egiteko gaitasuna hartzea da. Modu honetan azkartasuna eta arreta beste aspektu batzuetan jartzeko aukera ematen digu. Adb. Idazten ikastea. Hasieran letren formetan jartzen dugu arreta. Behin idazkera automatizaturik arreta beste aspektu batzuetan jartzeko aukera ematen digu.
- **Entrenamendua:** Estrategia ezberdinak erabiliz arretaren funtzionamendua hobetzea posiblea da.

71. ARRETA NOLA HOBETZEN DA?

Bariabte asko dira arretaren hobekuntzan eraginak dutenak:

-Pertsonaren bariabteak -estragiak -zereginen bariabteak -egoeraren bariabteak

1.Pertsonaren bariabteak:

Norberak azaltzen dituen karakteristikak dira. Hauek pertsona batetik bestera aldatu egiten dira.

Izan ere ez dute errendimendu maila bera izango 5 edo 18 urteko pertsona batek. Hala ere adinaz gain beste faktore batzuk dute eragina errendimenduan:

Interes maila, motibazioa, gaitasunak, trebetasunak, auto-erregulazioaren maila, eskolatzearen maila...

2. Estrategiak:

Trebetasun kognitiboen hobekuntza estrategiak menderatzearekin datozte. Oso zaila da arreta hobetzea estrategiarik gabe.

Hauen artean: Denborarekin erlazionatuak, testuinguruaren antolamendua, egitekoarekin, jardueren kontrolarekin...

3. Zereginen bariabak:

Erabiltzen diren estrategiak eginkizuneko mailarako eta honen ezaugarrietara egokituak izan behar dira.

Gaia, lana, eginkizuna, prozesua... kontuan izan behar dira.

(Zailtasun maila, informazioaren egitura, praktikotasuna, interesa, eskakizunak...)

4. Egoeraren bariabak:

Pertsona bat zeregin bat egin behar duenean, hau burutzen ahal dituen espazio ezberdinak: eskola / etxean.

Leku hauetan egoerak ere baldintzatzen du: isiltasuna / zarata, gelaren tamaina, koloreak.

Lekuaren zein testuinguruaren ezaugarriak baita giza-harremanak eta afektibitatea ere.

72. Irakaslea izango bazina, ZE ESTRATEGIA ERABILIKO ZENITUZKE ZURE IKASLEENGAN ARRETA SORTU ETA MANTENTZEKO?

Psikologoek, besteak beste, iradokizun hauek erabiltzea proposatzen digute (Woolfock eta McCune, 1983):

- Ikasleak erakutsi nola ikasi behar duten.
- Jakin-mina, kuriositatea sortarazi galderen bidez: "zer gertatuko litzateke...?"
- Harridura sorrarazi ez ohiko, harrigarriak edo espektakularrak ekintzak sartuz (ahotsa altxatu, baxu hitz egin eta gero altuago...) eta baliatuz.
- Ingurugiroa aldatu: gelaren antolaketa, dekorazioa, gelatik kanpo joan...
- Zentzuen kanal ezberdinak landu (usaimena, ukimen., sentimena...) eta aldatu.
- Mugimenduak, keinuak eta ahots aldaketak erabili: gelatik paseatu, margotu...

Bere ikasleak proposatutakotik:

- Ikasgaiak beraiengan duen praktikotasuna ulertarazi eta frogatu.
- Azalpenean zehar ikasleen partehartzea sustatu, galdera, iritzi, irakurketa... erabiliz

ARRETA LANTZEKO TEKNIKAK		
Proposamena	Helburua	Adibidea
Ikasgaiaren helburua Transmititu	Ikasleei ikasgaiaren helburua zein den esan behar da beraien motibazioa eskuratzeko	<i>Gaurko saioan zera hau landuko dugu...</i>
Ikasgaiaren garrantzia Azpimarratu	Ikasleen interesak ezagutu ikasgaiaren garrantziarekin lotzeko	<i>Zertarako balio du norabideak ikasteak?</i>
Jakin mina sortu	Galdera desberdinekin ikasleen arreta sortzeko	<i>Zer gertatuko litzateke eguzkirik ez balego?</i>
Harridura sortu	Ikasleen harridura sortu ekintza ez-ohikoak beraien arreta mantentzeko	<i>Komunikazioari buruzko gai bat hasi aurretik oso ozen hitz egin</i>
Ingurugiroa aldatu	Gelaren antolaketa aldatu edota beste leku batera joan klasea ematea	<i>Zuhaitz mota ezberdinak ezagutzeko basora edota parkera joan</i>
Zentzuen kanalak aldatu	Informazioa transmititzeko eta prozesatzeko kanal desberdinen erabilera bultzatzea	<i>Uraren egoera desberdinetaz jabetu; usainduz, dastatuz edota ukituz</i>
Aldaketak	Mugimenduak, keinuak eta ahots aldaketak erabili	<i>Gelatik paseatzea, margotzea, baxu hitz egin eta gero altuago, ...</i>
Arreta mantendu	Arreta galdu arazten duten jarrerak ekidin	<i>Arkatzarekin mahaian jo, eskua iletik pasa, ...</i>

73. Zer da META-ARRETA?

Meta-arreta, arretaren inguruko informazio guztia da. Hau da, arreta zer den eta zertan datza jakitea. (elementuak, estrategiak, giro egoki baten lorpena, haur bakoitzaren arreta gaitasun maila...).

Bere funtzioa arretaren ezagutza areagotu eta hobetzea da, arretaren berri ematea. Baina ez modu teorikoan bakarrik, praktikaren bidez baizik.

Adb. Haur bati arreta mantendu dezan egin behar duena azaltzea: Hau irakurri, ez egin kasu aldamenekoari.

OROIMENA.

74. Zer da OROIMENA?

Gaitasun kognitiboa da, barruko prozesu psikologiko bat zehaztuz.

Lehendik ikasi dugun zerbait gogora ekartzeko ahalmena da.

Funtzioa: aurretik bizitako esperientzia (jakintza) eskuratzea, berreskuratzea, hartzea edo eustea da.

Oroimenik gabe orainaldian bakarrik biziko genuke, iraganaren inguruan ez genuke ezer jakingo.

Hezkuntzan aplikatuz gero:

- Ikasi ez dena ez dago gogoratzerik.
- **Ikaskuntzarik gabe ez dago oroimenik ez nago ados.**
- Oroimenik gabe ez dago ikasterik.

75. OROIMEN MOTAK:

Informazio prozesatzearen teorien arabera, gizakiok informazioa prozesatzeko egitura batzuk ditugu: **errezpezio sistemak** (organo hartzaileekin).

Testuingurutik errezpetorea iristen denean, sentimenezko erregistroak jasotzen du eta hiru oroimen mota posible daude: oroimen sensoriala, epe motzeko oroimena eta epe luzeko oroimena.

1. Oroimen sensoriala:

Hartzaile sensorialen bidez jasotzen dugun informazioa gordetzen du.

Zentzumen bakoitzarentzat erregistro mota ezberdin badago: ukimena, entzumena, ikusmena, dastamena eta usaimena.

Erregistro sensorial honetan, informazioak 0'5-2 segundu irauten ditu. Gero ahazten da edo epe laburreko oroimenera pasatzen da.

2. Epe motzeko oroimena (E.M.O.):

Oroimen sensorialetik datorren informazioa memoria erregistro honetan gordetzen da.

Epe laburra irauten du han (15-18 segundu).

Denbora guztian aktiboki mantentzen da eta erabili daiteke (batuketak egiteko, telefono zenbakiak gero idazteko, alegia). Gero, ahazten da edo epe luzeko oroimenera pasa daiteke. Edukiera mugatua du.

3. Epe luzeko oroimena (E.L.O.):

Informazioa gordetzen da epe mugarik gabe. Informazioa mantendu ahal dugu nahiz eta ez erabili.

Epe laburreko oroimenak erabiltzen duen informazioa arakatzeko erabiltzen da.

Edukiera mugagabea da eta denboran limiterik ez du.

76. Zer nolako FAKTOREAK dira ERAGINKORRAK OROIMENEAN?

Oroimena prozesu aktiboa da eta bere **errendimendua** faktore batzuen mendekoa da. Faktoreak:

- 1) **Motibazioa**; Jarrera positiboa, ikasteko prest egotea, gogoz egotea
- 2) **Egoera pertsonala eta fisikoa**: nekea, goxea, gaixo egotea, urduritasuna...
- 3) **Informazioa hartzeko arreta eta kontzentrazio maila**: Ikasteko arreta jartzea ezinbestekoa da.
- 4) Informazioa bereganatzen **pasatako denbora**: Geroz eta denbora gehiago errepikatu, praktikatu, atenditu, orduan eta informazio gehiago erregistratuko da.
- 5) Informazioa hartu eta gordetzeko **erabilitako estrategiak**:
- 6) **Aurretiazko ezagutza**: Gaia genekienarekin daukan lotura eta esanguratsutasuna
- 7) Informazioa edo materiala **egitura eta kodifikazio sistema** (Grafikoa, kode lingüistikoa..) (ez ulertu)
- 8) **Informazioa / material kantitatea**: Gero eta kopuru gehiago orduan eta zailagoa da gordetzea. Zatika ikasi edota atsedanak egita gomendatzen da.

77. Oroimena HOBETZEA posible da?

Arretaren kasuan bezala, estrategia ezberdinak erabiliz gero oroimena lantzea eta hobetzea (kapazidade, errendimendu azkartasuna) posiblea da.

Lindsay eta Norman-ek (Woolfolk, 1996 zitaturik) hiru arau ematen dituzte oroimena hobetzeko:

- 1) Oroimenean lan eta esfortzu nabarmena egitea
- 2) Erretenitu nahi dugun informazioa beste gauza batzuekin harremandu.
- 3) Oroimena antolatu. Materiala zati txikitik banatu eta bukaeran dena batu. Ahal denean mnemoteknika erabili.

78. Zer da OROIMEN HUTSA?

Oroimen hutsa buruan sartu nahi duguna behin eta berriz errepikatzean datza, lortu arte (alfabeto, zenbakiak...). Trukorik gabe, beharturik ikasi behar ditugun gauzak, bestelako teknika gabe, errepikapena da metodo egokiena.

79. OROIMEN HUTSA HOBETZEKO ESTRATEGIAK.

Memorizazio hutsez ikasteko estrategiak badaude. Harremanik ez duten eta buruz ikasi behar dugun hori ikasteko erabiliak. Hiru estrategia:

- 1) **Ikaste partziala:** Informazioa antolatu eta zatika lantzea da. Zerrenda luzea bada edo kantitate handiak ikasteko baliogarria da. Helburua da, ikasterako orduan zatitxoak bukatzea. Dena jarraian ikasten badugu edukia bukaezina irudituko zaigu frustrazio batean eroriz. Zatika egitean ordea, zatitxo bat bukatzearen arrakasta hurrengo ikasteko motibazioa eskainiko digu.
(Historian etapaka, gaika...)
- 2) **Kokalekuaren efektua:** Zerrenda bateko hitzak gogoratzekoan, lehenengoa eta azkena hobeto gogoratzen ditugunak izaten dira. Hortaz hitz zailenak leku horietan kokatzea komeni du. Era berean, zerrenda luzea denean, zerrenda motzetan zatikatzea balio du, erdiko tarteak ahalik eta gehien murriztuz. Komeni da ere zerrendako hitzen ordena aldatuz joatea hobe ikasteko.
- 3) **Praktika banandua:** Denboran banatua hobeto ikasten da. Zerrenda luze bat ikasteko, hobe da denboran banatutako saio motzak egitea saio luze bakarra baino. Saio luzeek nekea eta oroimenean zuloak eragin dezakete, oroimena mugatua baita. Saio motzekin ordea, ahaztutakoa errazago gogoratzen da.

80. MNEMOTEKNIKA.

Mnemoteknika informazio berria gordetzeko estrategiak dira, oroimen esanguratsua lortzeko. Informazioa gogora ekartzeko teknikak. Edukia zentzurik ez duenean ikasteko erabilgarria da. Baita oroimen esanguratsua lortzeko, dakigunarekin teknika ezberdinen bidez informazio berria lotzeko.

81. MNEMOTEKNIKAK proposatzen dizkigun OROIMEN-TEKNIKAK:

Oroimen esanguratsua lortzeko estrategiak:

- **Kateatzea lotzea:** Zerrenda bateko elementu bat hurrengoarekin lotzea erlazio bat osatuz hobeto gogoratzeko.
Adb. Esaldi bat egin gogoratu behar ditugun hitzekin.
Gogoratu nahi ditugun elementuen artean loturak irudi bitxi batekin egin, are eta arraroagoa hobetu gogoratzeko.
- **Lekua (locis):** Leketaz baliatu informazioa oroitzeko. Ikasi beharreko elementuak leku zehatz eta ezagunekin lotzea. Horrela lekuaren irudia etorriko zaigu gogora terminoa oroitzuz.
Adb. ornodunen zerrenda gelako tokiekin erlazioan. Txakurra atean, txori lehioan, katua berogailuan...
- **Hitz gakoa:** Ikasi behar ditugun hitzak ezagutu eta ulertzean, antzekotasunak dituzten hitzekin lotu, zentzurik ez izan arren. Baliogarria da ospetsuen izenak edo herrialdeenak ikasteko. Hitz klabea asmatu behar da, antzekotasuna duena memorizatu beharreko hitzarekin.
Metodo mugatua dirudien arren ikasleei estatuak eta hizkuntzak erakusteko erabiltzen da.
Adb. The chicken in the kitchen.

- **Hitz gakoen zerrenda:** Hitz klabeen zerrenda egitean datza, errimak erabiltzen dira laguntzeko. Hitzen sekuentziak dira.
Adb. Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zai, zoi, bele, arma tiro pum...
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10.
- **Akronimoak:** Oroitu nahi dugun hitzen lehenengo letrarekin hitz bat sortzea.
Adb. HLINAKA. La YENI kopula
- **Errimak (Entzumenezko indizioak):** Kontzeptua soinuarekin erlazionatzea. Errimak sortu eta errepikatu ikasi arte.
Adb. “bibibi ez naiz ondo ibili, hiruhiruhiru kolkua bete diru...”
- **Irudiak (Ikusmenezko indizioak):** Irudiak erabiltzea haur txikiek erabiltzeko egokia da. Hitzak soinu eta errimekin osatu datieke. Baina ume txikiengan ez du arrakasta handirik objektuak identifikatzea kostatzen zaielako. Soinuaren bidez hobetu lantzen dute.
- **Taldekatzea:** Zerikusirik daukaten hitzak taldekatzea eta informazioa modu esanguratsu batean antolatzea multzoka. Informaziozko zati isolatu batzuk pilatzen dira eta horrela epe laburreko memoriak gehiago jaso dezake.
Adb. telefono zenbakia zati txikitan 648-145-102

Ondorio gisa, informaizo berria barneratzeko estrategiei dagokionez erlazioa bilatzen oinarritzen dira esan genezake. Dakigunarekin erlaizonatuz: soinuak, irudiak, melodiak...

(LABURPENAREN TAULA 90. ORRIALDEAN DAGO)

82. Nola lagunduko zenieke ikasleei klasean azaldutako informazioa berreskuratzen eta burua gordetzen?

PRAKTIKOA DA.

Gogoan izatekoa:

- Lehenik, oroitzeak esfortzu eta lan bat suposatzen du.
- Bigarrenik, oroitu beharreko informazioa beste batzuekin erlazioa izan behar du.
- Azkenik, antolaketa eta estrategiak erabiltzea beharrezkoa da.

Irakurleentzako erronka: teknika egokiena proposatzea eta aukera argudiatzea. Zeregin honetan laguntzeko asmoz estrategien zerrenda ondorengo taula islatu ditugu.

83. Ikaste errepikatua eta mekanikoa duten lanetan, nekea eta aspertasuna ekiditzeko, teknika berezirik burutzen al zaizu?

PRAKTIKOA DA

Irakurleentzako erronka: teknika egokiena proposatzea eta aukera argudiatzea. Zeregin horretarako ondorengo taulara jotzea proposatzen diogu.

84. Zure gelako ikasle askok ez dirudi irakurri dutena asko ulertu dutenik. Nola lagunduko zenieke ulermenaren gainbegiratzen eta bere irakurmenetik etekin handiagoa ateratzen?

PRAKTIKOA DA.

85. Nola ikasi dezake ikasle batek asteburu batean gogoetaz kimika sinboloak?

PRAKTIKOA DA.

86. ZERGATIK AHAZTEN DUGU INFORMAZIOA?

Autore ezberdinek, informazioa ahaztearen zergati eta prozesuen teoria ezbedinak eskaintzen dituzte.

-Lindsay eta Norman-en arabera, E.M.Oko oroimena denbora mugatua dauka eta E.L.Ora pasatzen ez den informazioa ahaztu egiten da. E.L.On dagoen informazioa ordea baldintza egokiak badaude eta estrategien bidez berreskuratu daiteke: logika edo seinaleak erabiliz... Berreskuratzen horretarako informaziorik ez badugu beste informazio mota bat erabili beharko dugu, harremanduak daudenak.

Adb. Aspaldiko liburu bat aurkitzeko, agian ez zara izenburuaz oroitzen baina bai azalaren koloreaz. Objektuaren ezaugarri fisiko horretatik baliatuko gara bilaketa hasteko

-Ebbinghaus-en arabera, **denbora** da ahaztearen arrazoi nagusia. E.L.On dugun informazioa ez badugu erabiltzen gutxinaka iraingitzen joango da, denbora pasa ahala galduko dena.

Ahaztea horrela ulerturik, **prozesu pasiboa** da.

-Muller eta Pilzecker-en teoriak ere dio **ahaztea prozesu pasiboa** dela. Hauen arabera informazioaren ahartzea ez da prozesu berarekin bukatzen baizik eta prozesuak jarraitzen duela informazioa finkatu egiten den arte. Denbora basatzen den heinean ahazten da edo **finkatuta gradualki desagretze da.** (ez dut ulertzen)

- Thorndike-ren arabera, **erabilera falta** ahaztearen arazioa da. Informazioa gero eta gehiago erabili orduan indartzen da eta arte eta gutxiago erabiliz ahuldu.

-McGeoch-ek **interferentziaren teoria** proposatzen du. Bi mota daude: **retroaktiboa eta proaktiboa.**

Interferentzia retroaktiboa informazioa hartzen gertatzen da.

Adb. bi kontzepturen definizioa ikasi behar dugu, bigarrena ikasi ondoren lehenengoa ahaztu badugu, ahazte retroaktiboa da. Alderantziz, lehenengo kontzeptua barnerati eta bestea ahazten badugu interferentzia proaktiboa izango da.

Honakoa ekiditeko, gorde beharreko informazioa handia bada praktika zatitua erabiltzea aholkatzen da.

-Luria-ren teoriaren arabera, E.L.Oko informazioa bizitza osoa iraun dezake, nahiz eta gehiegi ez erabili. Gu geu informazioa **nahita** ahazten dugula dio berak, inhibiditzen dugula.

-Freud-en iritziz, pertsonak oroimen desatsegin eta meingarriak ahazten ditugu. Prozesua **inkonsziente** bezala artzen du eta **defentsa mekanismoa** balitz bezala ikusten du. Modu honetan, esperientzia desatseginen aztarnak ez dira kontzientziara iristen eta hola ez du sufrimendua eragiten.

Zergatik ahazten dugu?		
Teoria	Egilea	Azalpena
E.M.O.	Lindsay eta Norman	Ez dugu ahazten. Informazioa ez da E.L.O.ra pasatu.
Denbora	Ebbinghaus	E.L.O.n dagoen informazioa ez bada erabiltzen denboraren poderioz ahazten da.
Finkatzea	Müller eta Pilzecker-en teoriak ere dio	Informazioa finkatzen da denboran zehar eta ez bada erabiltzen pasiboki galtzen da.
Erabilera	Thorndike	Informazioa erabiltzen bada indartzen da eta ez bada erabiltzen ahultzen da.
Interferentzia	McGeoch	Bi interferentzia mota: informazio asko badago barneratzeko, hasierako informazioa (interferentzia retroaktiboa) edo azkena (proaktiboa) ahazten da.
Nahia	Luria	Pertsonak nahita ahazten du.
Errepresioa	Freud	Ahaztea defentsa mekanismo inkonszientea da.

ADIMENA

87. Zer da ADIMENA?

Adimena, kognizioa edo gogomena barne gaitasun bezala aztertu dugu teoria kognitiboen aburuz. Piaget-en garapen kognitiboaren teoriak adimena eskemez bidez antolatuz eta etapa ebolutibo batetik bestera genetikak bultzaturik pasatzen dena bezala azaldu dugu. Baina adimenari buruzko teoria ugari ditugu.

Psikologo batzuentzat adimena neurtu daiteke trebetasun bat da eta beste batzuentzat, ordea, munduari aurre egiteko modua da.

Adimenari buruzko teoria ezberdinak:

- **D.Wechsler-en** teoriak adimena “Gizakiak modu zehatz batez jokatzeko, arrazonalki pentsatzeko eta bere testuingurunera egokitze duen gaitasun orokorra.” bezala definitzen du.

Egile honek kontzeptu honetan abiatuz, **adimena neurtzeko testak sortu** zituen.

- **Thurstone eta Spearman-en** teoriaren arabera adimena gaitasun orokor bat da (gogoratu lehehenago aipatu dugun bezala “g” faktorea?????? izendatu zuela Spearmanek). Baina beste zenbait **gaitasun zehatzez osatua dagoela gaineratzen** dutela diote.

- **J.P. Guilford-en** teoriak dio gaitasun kognitibo asko ditugula. Hiru alderdietan bereizturik gaitasun ezberdinak identifikatzen ditu adimenean:

1. **Operazio mentalak:** kognizioa, oroimena, pentsamendu dibergentea eta ebaluazioa.
2. **Edukin motak:** irudikorra, semantikoa, sinbolikoa eta konduktista.
3. **Produktu desberdinak:** unitateak, klaseak, erlazioak, sistemak, transformazioak eta inplikazioak.

Kontuan hartzen badugu operazio mentalak eduki mota batekin eta produktu desberdin batekin erlazionatzen direla, 120 gaitasun ezberdinak identifikatzen ditu.

- **H. Gardner-ek** Adimenaren egiturak (1983) lanetan gaitasuna gogamen trebetasun multzo bezala azaltzen du. Adimenean gutxienez zazpi kategoria deskribatzen ditu:

1. Konbentzionalak: hitzezkoa, matematikoa eta espaziala.
2. Besteak: muskarako trebezia, gorputz gaitasunak, harremanetarako trebezia eta autoezagutza.

• **R. Sternberg**-ek hiru alderdiko teoria proposatzen du:

- 1. Planifikazioa:** pertsonak eginkizun bat antolatzeko eta aurrera eramateko erabiltzen dituen operazio mentalak.
- 2. Esperientziaren efektua:** aurreko esperientzak murgiltzen dira eta arazo ezagunak mekanikoki konpontzeaz gain, berriak konpontzeko gaitasuna da.
- 3. Ezagutza tazittoa edo sen ona:** adimen praktikoarekin zer ikusia duena, inoiz erakusten ez diren gauzetaz jabetzeko eta aplikatzeko gaitasuna.

88. ZEINTZUK DIRA ADIMENAREN GARAPENEAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK?

Ikerketa ezberdinak esanda, faktore ezberdinak egon daitezke erlazionaturik adimenaren garapenarekin:

1-Haurtzaro goiztiarran jasotako estimulazioa:

Haurtzaro goiztiarra aldi kritiko eta aldaezina bezala azaltzen da garapenaren psikologian. Estimulazioak garapenean duen eragina frogaturik dago eta faktore ezberdinekin erlazionatzen da: atxikimendua, maitasuna, babesa...

2. Izaera pertsonala:

Pertsona nolakoa den adimenaren kalitatean eragina izango du. Pertsona baikorra / ezkorra, oldarkorra / zuhurra, barnekoia / kanporakoia...

Adb. Barnekoia den pertsona adimen mota errektiboarekin erlazionatzen da (iniziatiba falta, egoera berriak sahieste...). Pertsona kanporakoiak berriz aktiboa, erasokorra, inizatibaduna izatearekin lotzen da. Azken honek errutinazko bizitzan porrota izan dezake baina inizatiba eta ardura behar denean emaitza onak izango ditu.

3. Hizkuntza testuingurua:

Hizkuntza garrantzi handia dauka adimenaren garapenean (Vigotskyren teoria??). Hasierako ahozko estimulazioaren apera garapen kognitibo eta linguistikoan aipamen berezia behar du. Haurren ahozko errendimendua familiaen hizkuntzarekin erlazionaturik daudela eztabaidagai hartzen da gaur egun.

4. Gurasoen kontrol estilo eta jarrera:

Gurasoen heziketa moduak eragina dauka adimenaren garapenean. Faktore ezberdinak daude erlazionaturik: Maitasuna-etsaitasuna (Garapen intelektual altuko haurrak maitakorrak izaten dira gurasoekin), kontrol-autonomia (jarrera estiloak: demokratiko, autoritario eta permisibo).

5. Eskola giroa:

Irakaslearen ezaugarriak (enpatiko, motibaitzaile, zorrotz...), beste ikaskideekiko harremana (elkarrekintza, onarpen maila...), jardueren antolakuntza... adimenaren garapenarekin lotzen da.

MOTIBAZIOA

89. ZER DA MOTIBAZIOA?

Motibazioa ekintza bat burutzearen arrazoia ematen duena da. Zerbait ekitera bultzatzen (sena), beharra, pizgarria... bezalako faktore pertsonalak edota sozialak dira.

Motibazioa hezkuntza prozesuan on bateko oinarrizko ezaugarria da. Motibaziorik gabe ezin izango da jarduera bat behar bezain ongi burutu.

Psikologoek hitzetan pertsona guztiok motibaizoa daukagu, baina motibatzen gaituen horrek ezberdina izan

daiteke pertsonaren arabera. Horregatik ezin dugu hitz egiten ikasle ez motibatuetaz. Ikasgela kasorik egiten ez duen ikaslea ere motibatuta dago, baina ez irakasleak planteatutakoarekin baizik eta beste gauzaren batekin.

Bi motibazio mota duade:

Barne motibazioa: Norberaren gaitasuna hobetzeko nahia edota norberarekin interesagatik zerbait egiten denean.

Kanpo motibazioa: Beste pertsonen aldetik onarpena jaso edota sari bat lortzea helburu denean jarduerak burutzen direnean.

90. Zeintzuk dira MOTIBAZIO MOTAK?

Bi motibazio mota nagusi ditugu, bultzatzen gaituen zerbait honen sorreraren arabera:

1) Barnekoa (intrinsekoa):

Barneko motibazioa kanpo errefortzurik gabe edo saria jasotzeko itxaropenik gabe eginkizun edo jarduera bat egiten denean da, hau da, ikasteko gogoa barrutik ateratzen denean, interes propioarengatik. Pertsonak bere barnean duen estimulua da. Ez dago kanpoko estimulurik. Automotibazioan oinarritzen da. Eraginkorragoa, osatuagoa eta formatiboagoa da..

Adibidez: hizkuntza bat ikasterakoan, barneko motibazioa izango litzateke ikasleak bere burua motibatu hizkuntza hori ikasiz, nahi duelako, ongi sentitzen delako bere ahozko, idatziko, adierazteko lorpen berriekin...

2) **Kanpokoa (estrinsekoa):** Ikasleei (pertsoneei) kanpotik ematen zaien estimulua. Ikasleen beharrei kanpotik erantzuten diete... pizgarri sozial eta materialak eskaintzen dizkiete. Gidatukoak dira gauzak lortzeko arrazoiak. Kanpoko motibazio,ordea, kanpo errefortzuak (sariak, dirua...) eta ukaezinak (errekonozimendu publikoa) jasotzen direnean esaten da.

Adibidez: hizkuntza bat ikasterakoan balore ematea kurtsoa edo hizkuntza maila gainditzeari, titulua eskuratzeari, laudorioei ("oso ondo ari zara egiten", alegia).

Kanpo motibaizoaren iraupena momentukoa izango da eta aldiz, **motibazioa barnekoa** bada motibazio horrek **iraupen luzea** izango du.

Motibazio estiloak pertsonaren arabera aldatzen dira. Egin behar berdina pertsona ezberdinentzat motibazioa ezberdina izan daiteke.

Adb. Txalpelketa batean esfortzu handia egiteko lehen saria lortu nahia (kanpo motibazioa) edo zure buruari jartzen diozun erronka bezala hartu eta zurekin ongi sentitzen (barne motibazioa)

Laburbilduz:

- Motibazioa aldakorra da eta alda dezakegu (motibazio iturria, helburua, estiloa...)
- Motibazio motak edo arrazoiak ezberdinak dira.
- Pertsona bakoitzak bere motibazio estiloa du.

91. Ikaskuntzari buruzko ikuspegi teorikoen aburuz, ze motibazio motak ditugu?

Hiru ikuspegi nagusi ditugu Hezkuntzaren Psikologia: konduktista, neokonduktista eta kognitibista.

Horiekin batera ikuspegi humanista aipatuko dugu.

1. Ikuspegi konduktista:

Konduktisten arabera portaera kanpoko faktore edo estimuluek sortzen dute. Ondoren portaeraren motibazioa pertsonaren kanpo kokatzen da. Beraz **motibazioa kanpokoa edo estrinsekoa** izango da

Aurretiko ikaskuntzak edo ohiturek geroko portaeraren norabidea zehaztuko dute. Eta portaerak jarraituko du sortzen (motibatzen) duen estimulua desagertu arte. Adibidez: telebistan janari bat ikustea eta gose izatea; goserik egon eta hozkailua irekitzea, bertan janaria egoten dela ikasi dugulako...).

Ikaskuntzan aplikatuz, irakasleak ikaslea motibatu nahi du, konduktistek proposatzen dizkiguten aipaturiko teknikak erabili ditzake: portaera desegokiak gutxitzeko edo eliminatzeko teknikak (ikas-motibazioa edo jarduera baten ekoizpena oztopatzen duten portaerak) edota portaera egokiak sortzeko edo areagotzeko teknikak (ikas-motibazioa, arreta, jarduera baten ekoizpena ahalegintzen duten portaerak). Besteak beste, nota onak, puntu positiboak, errekonozimendu soziala... (errefortzu positiboak) erabil ditzake irakasleak.

2. Ikuspuntu neokonduktista

A. Banduraren Ikaskuntza Sozialaren Teoriak konduktismoaren portaeraren kanpoko estimulazioari zenbait faktore kognitiboen eragina gaineratzen zaio. Teoria honen arabera pertsonak bere testuinguru sozialean ikusten dituen portaeren artean batzuk imitatzen ditu eta beste batzuk ez. Imitazio sozialaren bidez portaera batzuk ikasten dira. Portaera ez da, ondorioz, zerbait automatikoki gertatzen dena, baizik eta pertsonaren usteek, ideiek, asmoek, itzarobideek eta abarrek zerikusia duten motibazioan. Ikuspegi honen arabera pertsonaren **motibazioak kanpokoak izateaz gain, barnekoak ere izan daitezke.**

3. Ikuspegi kognitibista

Ikuspegi kognitibisten arabera pertsonak ez dute portaera ikasten kanpoko estimuluei automatikoki erantzuten dietelako, baizik eta pertsonak gizaki aktiboak dira. Hori dela eta, gizakiok kognizioa, pentsamendua, jakinmina dugu eta gure **motibazioaren iturria barnekoa** izango da, edo giza-motibazioa barnekoa dela esan dezakegu. Ikuspegi honen arabera motibazioaren iturriak, eta ikas-motibazioarenak, gure asmoak, desioak, usteak, jakinminak, lorpenak, porrotak... dira.

4. Ikuspegi humanista

Ikuspegi psikologiko honek pertsonaren garapena, askatasun pertsonala, hautaketa, autoerrealizazio pertsonala azpimarratzen ditu. Pertsonak berak gidatzen du pertsona bihurtzeko prozesu pertsonala eta horretan kognizioak (eta pentsamendua, usteak, ideiak...) balore handia du. Ordezkarri nagusiak, C. Rogers eta A. Maslow dira. Ikuspegi kognitiboaren ikuspuntu askorekin bat egiten dute eta **barneko motibazioa edo intrinsekoa** azpimarratzen dute.

92. Zeintzuk dira MOTIBAZIOARI BURUZKO TEORIAK?

Motibazioari buruzko lau teoria aipatuko ditugu:

1. A. Maslow-ren beharren hierarkiaren teoria.
2. H. Murray-ren bi beharren teoria.
3. McClelland eta Atkinson-en lorpenerako motibazioaren teoria
4. B. Weiner-en atribuzioaren teoria.

93. A. MASLOW-ren BEHARRAREN HIERARKIAREN TEORIA:

Psikologo humanista honen arabera, pertsonen arteko motibazioen artean behar ezberdinak agertzen dira. Behar hauek hierarkia edo sailkapen baten bitartez identifikatzen eta sailkatzen ditu.

Hierarkia horiek 7 maila ezberdinetan banatzen ditu. Maila baxuko eta maila altuko beharrak ezberdintzen ditu. Behin maila baxuko beharrak asetuak mailaz-maila igotzen joango da altuagokoak lortzea motibaturik. Maslowren ustetan, goi-mailako beharrak asezinak dira eta hauetan zentratzen garenean motibazioa etengabe berritzen doa.

1. **Biziraupena:** oinarritzko janaria, edaria, airea, loa, etxe... beharra.
2. **Segurtasuna:** fisikoki eta psikologikoki seguru eta arriskuetatik libre sentitzeko beharra.
3. **Taldekitza:** onartua eta maitatua izateko beharra.
4. **Autoestimua:** nork bere burua baloratua izateko beharra.

- 5. **Lorpen intelektuala:** ulertzeko, ezagutzeko, aztertze... beharra.
- 6. **Baloratze estetikoa:** ordena, egitura eta edertasunaren bilatzeko beharra.
- 7. **Autoerrealizazioa:** nor bere burua aurkitzeko beharra.

Teoria hau kritikak jaso ditu bi arrazoiengatik bereziki. Batetik, pertsona guztiak ez dutelako hierarkia hori jarraitzen. Hau da ez dira mailaz-maila linealki pasatzen baizik eta gora eta behera egiten dute. Bestetik, badaude behe mailako beharrak asetu gabe goi mailakoak asetzen saiatzen diren pertsonak.

94. H. MURRAY-ren BI BEHARREN TEORIA:

H. Murray-ren iritziz, pertsonaren ezaugarriak, beharrak eta testuingurua motibazioaren determinatzaileak dira. Bi behar mota bereiztu zituen:

- 1) **Lehen mailako beharrak edo behar fisikoak:** ura, janaria, alegia.
- 2) **Bigarren mailako beharrak edo behar psikogenikoak:** erlazionatzeko beharra eta lorpen-beharra...

Murray-k pertsonak haurtzaroko esperientzien bidez ikasten ditugun 28 behar psikogeniko identifikatu zituen. Gehien ikertua "lorpen-beharra" izan da eta badirudi lorpen motibazio altua duten haurrak, bere testuinguruengatik eta txikitatik lorpenerako izan dira estimulatuak.

95. McCLELLAND eta ATKINSON-en LORPENERAKO MOTIBAZIOAREN TEORIA:

Egile hauek lorpen motibazioa edo erdiespenerako motibazioa aipatzen dute motibazio determinatzaile nabarmen bezala. Honakoa lorpena lortzeko desira da, eta porrotari beldurra izatea.

Bi faktore hauek erlazionaturik daudenez egoera batean lorpen beharra porrotoaren beldurra baino altuagoa bada, orduan arriskuari aurre egingo dio pertsonak eta lorpena lortzeko gai izango da.

Pertsona guztietan eta maila desberdinetan daude lorpena eskuratzeko beharra eta porrota ekiditzeko beharra.

Ikerketen arabera desberdintasun batzuk daude lorpen motibazio handia duten pertsonen artean eta porrota ekiditzeko motibatuak daudenen artean:

- 1. Lorpen motibazio handia bada eta porrota txikia bada, aurrera jarraitzeko motibazioa gehitzen da. Baina lorpena oso erraz eskuratzen bada lortutako arrakastak motibazioa jaitzi dezake.
- 2. Lorpen motibazio handia duten pertsonak, erronka egokiak (ez oso handiak ezta txikiak ere) bere buruari planteatzen dizkiete. Lorpen motibazio txikia dutenek, aldiz, arazo oso errazak aukeratuko dituzte.
- 3. Lorpen motibazio handia dutenak asko saiatzen dira arazo zailen aurrean eta bere burua motibatzen dute.
- 4. Lorpen motibazio handia dutenek lankideak edo lagunak bilatzen dituztenean nabarmetzen diren pertsonak aukeratzen dituzte. Lorpen maila baxua dutenek, aldiz, kide lagunkoia aukeratzen dituzte.

96. B. WEINER-en ATRIBUZIOAREN TEORIA:

B. Weiner-en egozpenaren teoriaren arabera motibatzen gaituena ulerkuntza bilatzea da. Pertsona guztiak gertaeren zergatiak ulertzen saiatzen dira. Interpretazio honen arabera azalpen batzuk formulatzen dituzte eta gertatukoaren arrazoia faktore ezberdinei erantzen / atribuitzen dizkiete.

Weiner-en arabera, arrakasta edo porrotaren oinarriko zergatiak hiru ataletan sailkatzen dira:

1. Kanpoko edo barneko egozpena.

- **Kanpoko:** pertsonak bere arrakasta edo porrotaren zergatia bere arduratik kanpo dauden faktoreei leporatzen dizkienean (irakasleari, zorteari, eginkizunaren zailtasunari...).
- **Barneko:** pertsonak arrakasta edo porrotaren zergatia bere baitan kokatzen duenean (bere gaitasunari, konfidantza, autoestimazioa, harrotasuna. Erruduntasuna, lotsa, ahaleginari... leporatzen dizkio).

Faktore honek gertaeraren “kontrol-lekua”ari egiten dagokio.

2. Egozpen egonkorra edo ezegonkorra:

- **Egozpen egonkorra:** Pertsonak gertaeraren zergatia ez dela aldatuko (betiko delako) usten duenean da.
- **Egozpen ezegonkorra:** gertaeraren zergatia alda daitekela uste duenean (beste batean ezberdina izango delako)

Faktore hau ulertzeko pertsonak sortzen duen zergatiaren iraunkortasunari dagokio.

3. Egozpen kontrolgarriak edo kontrolaezinak:

- **Kontrolgarriak:** zergatiak pertsonak berak alda ditzakeenak dira.
- **Kontrolaezinak :** pertsonaren kontrolpetik kanpo dauden egozpenak dira.

Faktore honek pertsonak duen arrazoiaren kontrolari dagokio.

Weiner-en egozpenaren teoriaren adibideak (Braun, Woolfolk zitaturik)				
Egozpena	Barneko		Kanpoko	
	Egonkorra	Ezegonkorra	Egonkorra	Ezegonkorra
Kontrolgarria	“Oro har eguneratua daramat eta asko ikasten dut.”	“Oraingo honetan ez dut prestatu.”	“Irakasleak begitan hartu nau.”	“Eskerrak lagundu zenidatela, zuk gabe..”
Kontrolaezina	“Hau ez da nirea.”	“Egun txarra izan dut.”	“Azterketa hau oso zaila zen.”	“Ze zorte, azterketa baino lehenago irakurri nuena tokatu zait!”

97. MOTIBAZIOAREN TEORIEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK:

Motibazioren Teoria				
Teoria	Piramidea	Beharrena	Lorpena	Atribuzioa
Egilea/k	Maslow	Murray	McClelland Atkinson	Weiner
Motibazioa	Beharren hierarkia	Beharrak	Arrakasta edo Porrota	Egozpena
Motibazio Motak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Biziraupena 2. Segurtasuna 3. Taldekitza 4. Autoestimua 5. Lorpen intelektuala 6. Baloratze estetikoak 7. Autoerrealizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen mailako beharrak edo behar fisikoak • Bigarren mailako beharrak edo behar psiko-genikoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lorpen motibazio handia edo txikia 	Faktoreak: <ul style="list-style-type: none"> • Kanpokoak • Barnekoak • Egonkorra • Ezegonkorra • Kontrolgarria • Kontrolaezina

98. MOTIBAZIOAREN TEORIEN INPLIKAZIOAK IRAKASKUNTZA- IKASKUNTZA PROZESUAN:

EGITEKE

99. PRAKTIKOA DA. EGITEKE DAGO,

100. IRAKASLEAK IKASLEA MOTIBATU BEHAR DU?

Irakasleek ia eguneroko esaten dute: “ikasleak ez daude motibaturik”, “ikasleak gero eta motibazio gutxiagorekin etortzen dira”... Motibazio gehiagoko edo gutxiagoko ikasleak daudela pentsatzea erraza da. Baina motibazioarena ezezik beste faktore ugari parte hartzen duten irakas-ikaskuntza prozesuan.

Norberak izan behar du motibatuzeko gaitasuna (barneko motibazioa), eta halako ideiak jaso ditugu horrekin erlazonaturik:

- Ikasteko motibazioa beharrezkoa dela (baita irakasteko ere).
- Ikaslea arrazoi ezberdinengatik motibatzen dela
- Motibazio estiloak pertsonaren ezaugarriekin lotuta daudela: baikorra, ezkorra...
- Motibazio ona bada nota altuekin lotua dagoela eta motibazio txarra bada, aldiz, nota baxua izango dela.
- Motibazio oso garrantzitsua dela ikasketetan eta motibazio faltak errendimendu falta dakarrela.
- Motibazio faltaren errua ez dela ikasle edo irakaslearena soilik, denen arteko elkarlan bat dela. Pertsona baikorra eta itxaropentsua izateak asko laguntzen duela motibatzerakoan.

- Motibazioa eskolan gauzatzen den ikaskuntza-prozesu on bateko oinarritzko (ezinbesteko, beharrezko) osagaia edo aldagaia da.
- Ikasleak ezin izango du burutu jarduera bat modu egoki batean motibaziorik ez badu.
- Izaera baikorreko pertsona baldin bazara, lorpen handia izateko ziurtasuna dago.
- Motibazio gabe ez da eskola ikaskuntza onik izango/ikasleen errendimendua ez litzateke egokia izango, hau da, porrota nagusituko litzateke edo emaitza txarrak lortuko ditu ikasleak.
- Eskola-ikaskuntza “ez dela posible” motibaziorik gabe (ez: beti zerbait ikasten da, nahiz eta motibaziorik gabe)

Irakaslearen betebeharra: motibazio aldaketa bera eginarazteko baliagarria izan daitekeen esku hartze egokia burutzea besterik ezin du egin. Ikaslea bere ahaleginak egiterakoan helburu baten atzetik dabil eta lortu nahi duen helburu horretan bere eragina izan dezake. Horrela, "xede" kontzeptua oinarritzko bilakatzen da ikasteko motibazioarekiko erlazioan. Baina mota ezberdinetako xedeak berezi beharko lirateke: Aurretik azaldutako barne eta kanpo motibazioa

Ikasle batek bi motako xedeak izan ditzake eta biak dute bere garrantzia. Lehenbizikoak gaitasun eremukoak lirateke (GM=gaitasun-motibazioa) eta bigarrenakoak betetzearen eremukoak (BM=betetze-motibazioa).

Eginkizun bat egiterakoan GM-duten pertsonak "Nola egin dezaket?" galdetuko dute; BM-dutenak berriz "Egin ote dezaket?". Lanak burutzerakoan akatsak badituzte GM-dutenek, ikasteko aukerak eskaintzen dituzten gertakari arruntetat joko dituzte, BM-dutenentzat berriz porrota adieraziko luke. GMpertsonak irizpide pertsonalez eta malguz baliatzen dira, xedeen lorpena epe luzera planteatzen dutelarik. BM-dutenek, berriz, epe motzera planteatutako irizpide arauemaile eta moldakitzak dituzte.

Argi dago, GM-xededun ikasleek errendimendu hobea eta iraunkorragoa lortuko dutela. Beraz ezinbestekoa da motibazio estiloa aldatzen joatea, horretarako kanpotikoaren aurka barnetik bideratutako motibazio estiloa eragingo duten neurriak indartzea komenigarria litzateke.

Orientabideak:

- Ikasteko gaitasuna norberaren ahaleginaren bitartez nola alda daitekeen adierazten duten informazioak eskaintzea.
- Norberaren autonomi-sentipena gehitzea.
- Eginbeharrak burutzerakoan beren norabidea autoerabakitzen eta bitarteko helmugak jartzen irakastea.
- Eginiko ikaste-lorpenetan zentratzea.

Irakaslearen ahaleginek ez dute motibazio ezberdin bat eragingo, hori ikasleak bakarrik egin dezake.

101. Zer egin dezake irakasleak ikaslea motibatuzeko? (praktikoa da).

Galdera honi erantzuteko zeregina, testuingurua, ikasle eta irakasle berarekin erlazioaturiko iradokizun batzuk azalduko dira. Guztiak ez dira beti erabili dira eta kasu batzuk haien artean osagarriak dira. Irakasleak, egoerearen arabera aukeratuko du egokiena/k direnak.

1-Testuinguru eta ikas egoerak antolatu:

- Erronka suposatzen duen lanak proposatu baina zailegiak izan gabe, lorgarriak
- Ikaskuntzaren esperientzia ikasleen interesekin erlazioan (musika, kirola, ordenagailuak...)
- Irakaslearen jarrerak ikaslearen autonomia bultzatzeara bideratuta egon behar du
- Ikaskuntza egoera kooperatiboak bilatu
- Lanak ikasleen gaitasunetara egokitu
- Ariketa praktiko/ dinamikoak proposatu: jokuak, gaiarekin erlazioan tutako eztabaidak...

2-Ikasgelan konfidantza eta irugikapen positiboak sortu:

- Ikasleen interesak eta motibazioa ezagutu

- Ikasleen motibazio intrisenko eta autoestimua bultzatu
- Ikasleen mailatik hasi lanean
- Helburuak: argiak, zehatzak eta lorgarriak izatea

3- Ikastearen balorea demostratu:

- Egun ikasiko dutena eta etorkizuneko bizitzaren beharrak azaldu.
- Egindako saiakera eta lanei garrantzia ematea.
- Notetan ez jarri enfasi handiegirik (ez da egia gero notak daudelako eta hortaz normala da hurrek hauengatik arduratzea.)

102. ZER EGIN DEZAKE IRAKASLEA BERE BURUA MOTIBATZEKO? (Praktikoa da.)

1. Ikas-irakas egoerari dagokionez:

- Ikasleak ulertzen saiatu eta bakoitzaren eta ikasgela osoaren alde positiboak azpimarratu.
- Egindako lana ez gutxiestea, eta hobe egitera bere burua bultzatu
- Irakastearen balorea demostratu.

2. Bere baitan konfidantza eta igurikapen positiboak sortu:

- Bere lanerako grina eta gogoia mantendu
- Bere burua bizidun bezala tratatu: akatsak eta mugak onartuz.

103. IKASLEEN ARTEKO IKASTEKO MOTIBAZIO MAILA OSO ALDAKORRA DA. ZERGATIK EMATEN DIRA DESBERDINTASUN HAUEK?

Edozerren aurrean motibazio handiko eta txikiko pertsonak egongo dira guztiei ez dietelako gauza bera motibatzen. Faktore ezberdinek motibazioan eragina izaten dute: kanpokoak (irakasle, familia, metodoa, edukia...) eta barnekoak (nortasuna, izaera, autoestima, ahalmenak...)

1. Nortasun faktoreak:

- Motibazioa norberaren izaerarekin lotuta dago. Zerbait (eginkizun, ikas-prozesua,..) burutzeko egiten den ahaleginaren eta ahalegin honen emaitzaren artean motibazioa kokatzen da. Egoera eta emaitza berdin baten aurrean pertsonak (eta ondorioz ikasleek) ikuspegi ezberdina izan dezakete, beraien baikortasun edo ezkortasunaren arabera:
 - Baikorra: ikasleek ahalegin gutxi egin beharko dutela pentsatzen dute. Ondorioz, burutu dezaketena baino gehiago egiten saiatuko dira. Argi dago motibazioa areagotuko duela izaera honek.
 - Ezkorra: ikasleek ahalegin handia egin beharko dutela uste dute. Zenbait gauza ezingo dutela egin pentsatuko dute. Eta ondorioz izaera hau ez du motibazioa piztuko.

o Motibazioa autokontzeptua eta autoestimuekin erlazionaturik dago. (Osatu informazio hau 108., 109., 110., 111., 112., 113. eta 114. galderekin.)

2. Familiako faktoreak:

- Haurraren haziera moduak. McClelland eta Atkinson-en arabera lorpen motibazioaren determinatzaile garrantzitsuenatako bat haurra hezteko modua da. Badirudi lorpen maila altua dutenen hurrek beraien jokabide autonomoa bultzatu duten gurasoek dutela. Adin goiztiarrean eskaerak egiten dituzten eta ekintza independenteak saritzen dituzten gurasoek, haien hurrek lorpen maila altua garatzen dute. Ondorioz, lorpen motibazioa bultzatzeko, haurraren haziera modu egokiena eskakizun maila altua eta haurraren autonomia estimulatzeko duena da.

- Gurasoek haurrekin dituzten elkarreraginaren arabeko estiloak. Hiru estilo nabarmenak dira (Coll, Palacios eta Marchesi, 1999):
 - guraso demokratikoak
 - guraso permisiboak
 - guraso autoritarioak
- Familiako giroa. Lorpen motibazioarekin erlazionatzen diren faktoreak ezberdinen artean aipatuko ditugu, besteak beste:
 - parte-hartzea ekintza kultural ezberdinetan
 - errekurtso kulturalak: etxean daude irakurtzeko materialak...
 - egonkortasuna
 - hezkuntza eta kulturari buruzko jarrera positiboak
 - hizkuntza maila
 - seme-alabekiko dituzte asmoak eta helburuak
 - seme-alaben ahalmenetan duten konfidantza

3. Eskolako faktoreak:

- Irakaslearen itxaropenen eragina (“Pigmalion Efectua” edo “itxarobiden autoerrealizatutako profezia” efektua): irakasleak alde aurretik egindago igurikapenak ikasleengan islatzen dira.
- Irakaslearen jarreraren orientazioa (autonomia edo kontrolera zuzendurik) eta ikasleekin ezartzen dituen harremanak
- Ikaskuntzaren esperientzien lotura ikasleen interesak eta jakinminarekin.
- Eskolako jarduera eta zereginen mota ezberdinetako konplexotasun, zailtasun eta diskrepantzia maila.
- Gelaren egituraketa eta sustatzen duen ikasleen arteko elkarrekintza mota (kooperatiboa, lehiakorra eta indibidualista)..

Azaldu dugun bezala faktore asko dira eta, horregatik, garrantzitsua da irakasleak ikasleak oso ondo ezagutzea motibazio hori lantzeko teknika ezberdinak erabiltzeko. Eta berak ere ikaslearen motibazioa ez agortzeko...

104. IRAKASLEAREN IRUNGIKAPENAK ERAGINKORRAK DIRA IKASLEARENGAN?

Zalantzarik gabe, baietz esan dezakegu.

"Pigmalion-en teoria" edo "itxarobiden autoerrealizatutako profezia" efektua (Rosenthal eta Jacobson):

Irakaslearen igurikapenen efektua azaltzeko balio du. Egile hauen arabera, irakasleak egiten duen ikasleari buruzko alde aurretiko igurikapenak badu eragina ikaslearengan eta azkenean bete egingo du.

Irakaslearen igurikapenen iturriak ikasleei buruzko informazio ezberdinak izan daitezke:

- Adimen testen emaitzak
- Sexua: mutilengandik neskengandik baino arazo gehiago izatea espero du irakasleak.
- Izenak: ez oiho izenak dituztenak galtzaileak izatea espero dute.
- Aurreko istoria akademikoa eta txostenak Etnia Senideen aurreko ezagutza
- Ezaugarri fisikoak
- Aurretik lortutako lorpenak
- Maila sozio-ekonomikoa
- Irakaslearen jarrera eta portaera

Irakasleek igurikapen arabera ikasleak ezberdin tratatzen dituzte:

- Irakasleak ikasle bati transmititzen badio emaitza onak ateratzea espero duela, ikasleari estimulatu dio.
- Eta irakasleak bere igurikapenaren eraginda ikasleari emaitza txarrak ateratzea espero duela adierazten badizkio, edo mezua negatiboak bidaltzen badizkio ikaslea ez da gai izango eta bere autoestimuan eragin negatiboa izango du.

Era berean irakaslearen igurikapenak desegokiak izan daitezke, informazio faltagatik, jarrerak islatzen direlako, esate baterako.

Irakaslearen igurikapenen **ondorio negatiboak ekiditzeko** orientabide batzuk:

- Test, historia, beste kurtsoko informeak ... edozein informaziorekin kritikoa izatea, erlatibizatzea eta kontuz erabiltzea.
- Taldekatze estrategiak malgutasunez erabiltzea, talde berriak sortuz kide ezberdinekin eta zeregin desberdinetako.
- Ikasle guztiei erronkak proposatzea, bere gaitasunen arabera, zailtasun anitzeko lanak egiteari estimulatu.
- Lorpen motibazio baxua duten ikasleei arreta berezia eta denbora ematea, eta beren emaitza onak goraiatzea.

105. GURASOEK zerikusia dute haien seme-alaben MOTIBAZIO MAILAN?

Gurasoek paper berezia jokatzeko dute haurraren motibazio mailan, familia eta testuinguruak eragin handia duelako. Izan ere, gurasoek haurrekin denbora gehien igaro eta hoberen ezagutzen dutenak dira.

Gurasoek txikitatik haurra estimulatu behar dute irudimena eta kuriositatea pizteko. Horrela haurra txikitatik motibazio maila altua eta gurasoekiko konfidantza izango du.

Gurasoek seme-alaben afizio eta ikasketen gainean interesa erakusten badute, motibatzen lagunduko diete. Interesik jartzen ez badute ordea, haurrek garrantzitsua ez dela pentsatuko dute. Lorpen motibazionalaren ardura hartu behar dute.

Adibidez, eskolarengatik arduratzen diren gurasoak. Maiz irakaslearekin biltzen direnak haurraren errealitatea ezagutu eta etxean jarduerekin nola lagundu eta zer egin jakingo dute. Era berean, etxean giro ona izanez gero, familia egonkorra, hezkuntzarekiko jarrera postiboa... errazagoa izango da haurraren lorpen motibazioa bultzatzea.

-Haurrak osotasunean onartzen duten gurasoak
-Konparaketan erortzen ez direnak

-Hauen ikas prozesuan inplikatzeko direnak
-Askatasuna ematen dietenak

106. Ikasleak eskolan motibatuagoak daude beren arrakasta eta porrota pertsonalki kontrola daitezkeen arrazoiei egozten dizkiotenean, adibidez, bere ahaleginei. Pentsa ezazu ikasle batek bere emaitza txarren arrazoiak zuri edota bere gaitasun-erantz egotzen diola. Zer egin dezakezu laguntzeko? (PRAKTIKOA DA.)

Proposamen bat egiten saia gaitzekean ere, oso erlatiboak direla kontuan hartu behar da, pertsona, egoerak ... ez dira berdinak eta ekintzak egoeretara egokitu behar ditu irakasleak.

Lehenengo aztertu porrotaren zergatia, irtenbidea aurkitzeko, kasuak desberdinak direlako eta horregatik modu desberdinean aurre egin behar diegu:

o Irakasleari errua botatzen dionean:

- Egoera (ikaslea) behatu eta aztertu egin behar da eta honen arabera berarekin hitz egitea eta hurrengo batean hau gerta ez dadin neurriak hartu
- gure jarrera aldatu
- motibatzea saiatu beste era batera
- beste modu batera klaseko ekintzak moldatu

o **Bere gaitasun ezari botatzen badio errua:**

- bere gaitasuna goraiatu
- motibatu
- autoestimua eta autokontzeptua landu
- konfiantza eman bai guk bai beste bideen bidez (kideek, familiak,...)
- gai dela frogatu bere lorpenen errekonozimenduaren bidez
- errefortzu positiboak eman... 1
- orpen txikiak jarri hasieran, gero handiak izatera iristeko.
- Ikas-prozesu osoa hartu kontuan, epe luzeko lorpenak baloratu.

o **Errua bie leporatuz gero:**

lehenik egoera aztertuz eta arazoa aurkitu bigarrenik, aurreko bietan esan duguna aplikatu

107. Imajina dezagun aurtengo ikasleek lorpen motibaziorik batere ez dutela, behintzat kalifikazio ohizko sistemari dagokionean. Badakizu ikasle hauek emaitza hobekak lor ditzaketela, baina nolabait kompetentzia txarra dela pentsatzen dute. Badirudi 5-a dela lor dezaketenen notarik hoberena edo hala uste dute bederen. Zer egin dezakegu? (PRAKTIKOA DA)

Irakasleak estrategia motibagarrien bila joan daiteke.

1) Horretarako gelako ikasleen analisi sakonagoa egin behar du, ze nolako faktorek eragiten ari dira egoera honetan argitzeko eta horietan bere estrategia oinarritzeko.

2)Ikasgelaren errealitate sozial ondo ezagutu behar du, aipaturiko kompetentzia kontuan harturik. Banan-banan norberaren ezaugarriak, izaera eta motibazio eta ikas estiloa aztertzea

3)Informazio horrekin klasean proposatzen diren jardueran, zereginak, dinamikak, taldekatzeak... eta ebaluazio sistema ere aztertuko luke.

4) bukatzeko, erkatze honen emaitzen arabera, estrategia zehatzak (indibidualak, taldekoak...) martxan jarriko lituzke.

Hala ere, 5-a, hau da nota indikadore hutsa da. Irakasleak zer dagoen nota honen atzean aurkitu behar du irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bere ardura delako. Nahiz eta ikasleen helburua “aprobatzea” soilik izatea, irakaslearena ikasle horren hezkuntza eta garapena bermatzea da.

AUTOKONTZEPTUA ETA AUTOESTIMUA

108. Zer da autokontzeptua? (norberaren ezagutza, “self-a”, “ni-a”)

Definizio asko egoten ahal diren arren, autokontzeptua norberak bere buruaz duen irudi edo kontzeptua da. Esperientzian eta hauen interpretazioan oinarritzen dena.

Dimentsio askotako errealitate baten errepresentazio bat da.

“Autokontzeptua alderdi anitzeko errealitate konplexu bat da. Norberaren errealitate oparora iragazten duten edo eskema kognitibo batzuek osatzen dute. Eskema horiek ez dute norberaren errealitate osoa islatzen; iragazpen mekanismoak direnez, errealitate horren iragazpen edo selekzio bat egiten dute.” (Haranburu eta Guerra, 2002, 105 orr.)

109. Zeintzuk dira autokontzeptuaren alderdiak?

Aurretik esan bezala autokontzeptua dimentsio askotako errealitate baten errepresentazioa da eta errealitatea isladatzen duten egitura kognitiboaz osatuta dago.

Dimentsio batzuk balore gehiago dituzte batzuentzako eta beste batzuk orde besteentzako.

Gure bizitzan zehar autokontzeptu ezberdinak izaten ahal ditugu. Hau da, aldakorra da eta bakoitzak “self” ugari ditu hierarkikoki antolatuak testuinguruaren arabera.

Burns-ek hiru alderdi definitu zituen autokontzeptuan:

- 1) **Kognitiboa:** Nork bere buruari buruz duen irudi kognitiboa, kontzeptuak, ideiak, usteak, iritziz osaturik
- 2) **Konportamentala:** autokontzeptu kognitiboaren arabera pertsonaren jokabidea. Bere buruaz duen ideiaren arabera pertsonak jokatzeko era.
- 3) **Afektiboa:** autokontzeptuaren ebaluazioa edo judizioa, sentimenduz eta afektuz beterik (autoestimua).

Kognitiboaren alderdian, egile batzuk “ni erreala” eta “ni ideala”ren arteko desberdintasuna egiten dute. Bi hauen artean desberdintasunak egon daitezke. “ni erreala” “ni idealetik” hurbil badago, pertsonak bere autokontzeptua positiboki baloratuko du. Ordea urrun kokatzen bada, pertsonak modu kritikoa baloratuko du bere autokontzeptua. Denboraren poderioz bi terminoen artean desberdintasuna handitzen bada, emozio negatiboak sortuko dira.

Horretaz gain, autokontzeptuaren “**kontrol lekua**” (edo “**locus**”) ezberdina izan daiteke. Hau da autokontzeptua eraikitzen da hainbat bidetik:

1. **Pertsona soziotropoek** besteengan kokatzen dute bere autokontzeptuaren kontrola eta garrantzia handia ematen diete besteen iritziz eta judizioei. Pertsona hauek dependienteak direla edo bere kontrol lekua soziala dela esan daiteke.
2. **Pertsona autonomoek** bere baitan kokatzen dute bere autokontzeptuaren kontrola eta, ondorioz, besteak baino askeagoak dira, ez baitaude inorren menpe. Hauek barne kontrol lekua dute.
3. Beste pertsona batzuek, aldiz, “**locus**” **inpultsiboa** dute eta esan dezakegu bere kontrol-lekua ez dute lortuta.

110. Zer da autoestimua (autoestimazioa)?

Norberak bere buruaz duen irudiaren (hau da, autokontzeptuaren) balorazioa dela esan dezakegu.

Ezin dugu ahaztu, autoestimua autokontzeptuaren alderdi bezala deskribitu dugula.

Kontzeptu horri buruzko balorazio eta judizio guztiak jasotzen ditu ondorioz eta nolabait autokontzeptuaren dimentsio ebaluatiboa da.

Bere eraikuntza soziala denez, bestek gutaz duten iritzien eragina jasotzen du.

Eta funtzio ugari ditu, besteak beste: bazterketa sozialetik babestea, norberaren inklusioari eta esklusioari buruzko (onartua edo baztertua izateko) besteen erreakzioak azkar ebaluatzea.

Eta hona hemen proposatzen dugun definizioa:

“Besteek guri buruz dituzten hautemateen isla bezala kontsidera daiteke autoestimua; gizabanakoaren gizarte bizitzaren isla moduko bat da.” (Harunburu eta Guerra, 2002, 109)

111. Zein da autoestimua jatorria? (ez dakit oso ondo ulertu dudana)

Autoestimua autokontzeptuaren dimentsio ebaluatiboa da.

- **autoestimua:** Besteek guri buruz dituzten hautematen isla bezala kontsidera daiteke
- **autokontzeptua:** gizarte inguruneke pertsona esanguratsuek norberari buruz duten pertzepzioan oinarritzen da.

Ikerketek adierazi dutenez, gizabanako baten auto-pertzepzioa ados egon ohi da inguruko pertsona esanguratsuek berari buruz duten pertzepzioarekin. Hala ere, autopertzepzioa ez da besteek gurekiko duten benetako hautematea, hautemate horretaz guk uste duguna baizik.

Auto-goratzearen teoria: geure nortasunaren ezaugarri positiboak buruzko informazio zehatzagoa bilatzen dugu pertsonak, nortasunaren alde negatiboak diren ingurukoak baino.

Auto-egiaztapenaren teoria: bai ezaugarri positibo, bai ezaugarri negatiboen informazio zehatza bilakatzeko joera gugu. Hala ere, pertsona bere irudikapenarekin ados datorren errealitatearen irudiak eraikitzen saiatzen da.

Honela jasotzen dute Harunburu eta Guerrak (2002, 110 orr.) autore ezberdinen ekarpenetik:

- Errezaga gogoratzen ditugu arrakastak, porrotak baino (Silverman, 1964).
- Alderdi positiboak eta distiratsuek gainbaloratzeko eta negatiboak gutxieteko joera dugu (Campbell, 1986).
- Geure burua beste pertsonak baino hobetzat jotzeko edo pertsonen batezbestekoa baino hobeak garelako pentsatzeko joera dugu. Ondorioz, geure buruak besteak baino hobeto ebaluatzen ditugu (Alicke, 1985).
- Geure taldeko pertsonak beste taldeetakoak baino hobeto ebaluatzeko joera dugu (Tajfel eta Turner, 1986).
- Geure etorkizuna besteena baino hobea izango dela pentsatzeko joera dugu. Hots, guri besteei baino zoritxar gutxiago gertatuko zaizkigula pentsatzen dugu (Taylor eta J.D. Brown, 1999).

Azkenik aipatu behar dugu **auto-goratzek afektibitatearekin duela lotura eta autoegiaztatzeak kognizioarekin**. Bi alderdi hauek dira, ondorioz, inportanteenak gure autoestimuan: afektibitatea eta kognizioa.

112. Nola alda daiteke autokontzeptua?

Besteengandik jasotako informazioaren arabera aldatzen dugu pertsonok gure buruaren pertzepzioa; besteek seinatzen digute aldaketaren norabidea aldagai modulatzailerik batzuen arabera (Harunburu eta Guerra, 2002):

- Besteengandik jasotako informazio iturriaren arabera sinesgarritasun ezberdina edukiko du. Sinesgarritasun handia badu, zenbat eta handiagoa ebaluazioaren desadostasuna, informazioak probokaturiko aldaketa ere handia izango da.
- Informazio positiboak negatiboak baino aldaketa handiagoak eragiten ditu.
- Informazioa desadosten dagoenean aldaketa handiagoa izango da informazio objektiboaren gain oinarritua dagoela

hautematen denean.

- Informazio iturriari egozten zaion gaitasuna faktore erabakikorra izango da bere ebaluapenek aldaketa izango duten eragina zehazterakoan. Informazioa aditu batengandik datorrenean, eragin nabarmena izango du.
- Desados dagoen informazio iraunkorrak iragankorrak baino aldaketa handiagoak eragiten ditu.
- Desadostasunezko informazioari buruzko adostasun mailak eragina izango du haren sinesgarritasunean.
- Informazio positiboak eragin gehiago du autoestimua altua duten subjektuengan eta negatiboak eragin gehiago du autoestimua baxua duten subjektuengan.
- Subjektu ebaluatuek gehiago aldatzen dute beren buruaren pertzepzioa informazioa negatiboaren zentzuan, ebaluazio berri bat egingo zaiela uste dutenean.

113. Zein da autokontzeptuaren eta autoestimua papera ikaskuntza prozesuan?

Hausnarketa egiteko proposatzen dugu. Hona hemen ideia batzuk:

- Biak oso garrantzitsuak (eragingorrak) dira, hauen gora-behereen arabera hobeto edo okerrago ibiliko baita.
- Irakasleak ikasleek autokontzeptua eta autoestimua ezagutu behar dituzten momentu oro, eta horren arabera esku hartu edo ez.
- Autokontzeptu eta autoestimua positiboak izateak ikaskuntza prozesuan lagunduko du, nahiz eta ez du bermatzen emaitza onak lortzea. Motibazioarekin gertatzen zen bezala. Inguruneak, adinak eta pertsonaren nortasunak eragina dute hauek eraikitzeke garaian.
- Autoestimua altua izanez gero, jarritako helburuak lortzen saiatuko da. Motibatua eta iraunkorago agertzen dira lanak burutzerakoan. Beraz, positiboak izango da eta aurrera jarraitzen lagunduko dizu.
- Beste kasu batzuetan, ordea, autoestimua altua izanez gero, emaitza onak lor ditzakela pentsa dezake ikasleak eta ez du esfortzurik egiten, ez dago motibaturik,... eta emaitza txarrak agertzen dira.
- Autoestimua baxua duenak ez du motibazioarik agertzen eta ekintzaren ondorio negatiboak aurreikusten ditu.
- Norberak bere autokontzeptua onartzen badu gauzak egiteko orduan konfiantza handiagoa izango du. Azken finean ekintzak egitera bultzatzen gaituena ekintza hori egiteko gai izatearen ustea da.
(kontuz: gai dela pentsatzen badu, hau da autokontzeptu positiboak badu bai; ez badu autokontzeptu hori aldatu egin behar du. Eta autokontzeptu negatibo honen ondorioz, bere autoestimua txarra edota baxua bada, hortaz aparte autoestimua hori ere landu behar dugu) ez dut ulertzen.
- Autokontzeptu altua izanez gero ikasleak emaitza onak lortzea errazagoa izango da (“ikasle on bat naizelako kontzeptua” dudanez, ikasle on batek egiten duena egingo dut: arreta mantendu, ikasi, lanak burutu,...)

114. Zer egin dezake irakasleak ikasleen autoestimua sustatzeko?

Jarraian proposamen batzuk adieraziko ditugu:

- Autoestimua eta autokontzeptua egunereko bizitzan lantzen eta handitzen dela gogoratu.
- Irakaslea oso pertsona esanguratsua dela ikaslearentzat eta bere ebaluapenen garrantzia eraginkorra dela kontuan hartu.
- Ikaslea onartu eta kontuan hartu (bere ezaugarriak, nortasuna, zaletasunak, gustuak...).
- Ikaslea ez baztertu inoiz.
- Lorpenak baita saikera eta esfortzua ere baloratu.
- Ikasleei beren lorpenak ebaluatzen erakutsi
- Ikasleari lagundu bere xede errealista eta objektiboak ezartzen.
- Ikaslearen alde onak eta ondo burutako ekintzak baloratu/goraipatu; eta txarrak deuseztatu, ikasle bera deuseztatu gabe
- Bere sentimenduak adierazteko eta hitz egiteko gaitasuna eman
- Fisikoki eta psikologikoki ikasleei segurtasuna emango dien giroa sortu
- Irakasleak ikaskuntza prozesuan ekintzaren subjektua dela, eta ez objektu soilik, jakinarazi.
- Konparaketak eta lehiakortasun ezkorrak ekiditu.
- Berarengana joan/hurbildu, laguntza eskaini eta animatu.
- “Laguntza tadeak osatu” gelan ikaskideen artean.

115. Pentsa ezazu zure gelako ikasle batek autoestimua altuegia duela eta honen ondorioz diziplina arazoak sortzen dituela, zer egingo zenuke? (PRAKTIKOA DA)

Galdera honen helburua aurreko galderetan landu duguna aplikatzea da.

- Kasorik ez egin. (Hau da, portaera txarra denez, konduktistak diren prozedurengana joko genuke eta iraungikapena erabiltzea proposatuko genuke oraingo honetan ere.)
- Askotan ez genituzke goraipatuko. (Aurrekoan bezala)
- Atentzioa deitu (Gogoratu behar dugu teknika konduktisten ildotik aipatu genuena eta ondo pentsatu behar da errieta hori nola egin: publikoki?, personalki?... eta ondorioak aldeztatik kalkulatu.)
- Adieraziko genioke: “ikasle guztiak berdinak direla”, “besteak bezalakoa dela” (Hau da kognitiboa izan daiteke ikuspegia erabiliko genuke, bere ulerkuntza prozesua landuz eta bere ideiak aldatu beste ekintza-estrategiak eta trebetasunak landuz.)
- Ahozko mezuak bidali: Bera ez dela bestak baina hobea esan, adibidez, eta ez ahozko mezuak erabiliz, keinuak esate baterako, besteak ez konturatzeko, eta berak nahi duen protagonismoa gutxitzeko. (Aurrekoan esan dugun bezala bere jokabide errepertorioa aldatu nahi dugu konstruktibista den arrazonamendua eta ulerkuntza bultzatuz.)

116. Nola aldatuko zenuke ikasle baten autokontzeptu txarra? (PRAKTIKOA DA)

- Berarekin hitz eginez (ahozko errefortzuak: “gai dela besteak adina egiteko”, “denok ditugula alderdi onak eta txarrak” “denok akatsak ditugula” “inor ez dela perfektua”).
- Bere ezaugarri onak gorai patuz (hau da, motibazioa bultzatu eta autoestimua indartu).
- Bere lorpenak baloratu eta gorai patu (aurrekoan bezala)
- Ziurtasun afektiboa eman (autokontzeptuaren alderdi afektiboarengana jo).
- Bere burua den bezala onartzen erakutsi (egoeraren eta pertsonaren arabera hainbat proposamen aipatu dugu horretarako).
- Autokontzeptuaren kontrol-lekuaren arabera, adibidez: o Locus in pulsi boia: saiatu laguntzen bere burua onar dezan o Locus soziala: familia, kideak, ikasgela... testuinguru horretan zerbait egiten saiatu

Oro har 112. galderan agertzen dena.

HEZKUNTZA TESTUINGURUA: ESKOLA IKASLE ETA IKASLEAREN ARTEKO ELKARREKINTZAK

117. “Ikaslearen errendimenduaren erresponzabilitate guztia ezin zaio irakasleari soilik egotzi”, zer deritzozu? (PRAKTIKOA, HAUSNARKETA)

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan parte hartzen duten faktoreen inguruan hausnartzeko ariketa.

Argi dago **irakasleak** eragin handia izan dezakeela ikaslearen hezkuntza prozesuan (Klase emateko modua, izaera, baliabideak...). Baina onartu beharra dago **ikasleak** bere prozesuaren ardura handia daukala, bera baita protagonista (motibaioa, autokontzeptua, arreta, autoestimua...).

Irakasleak bere aportazio eta esfortzua egin behar du hezkuntza prozesuan (jakinduria zabaldu, teknika, gogo, berrikuntza...). Baina ikasleak ere bere aldetik ere esfortzua egin beharko du: gogo, motibazio, gaitasunak, estrategia, autoestima... Honetaz gain, erabakiak hartu beharko ditu, ikas-prozesua auto-erregulatu beharko du.

Askotan nahiz eta irakasleak ahalegindu, ikasleek ez badute beraien partea jartzen eta ondorio nabarmena bere errendimendu eskasa izan ohi da.

Ikasleak arreta mantentzen saiatu behar da, beste elementu guztiak lantzearekin batera (motibazio, teknika, estrategia...). Argi dago, **ikasleak ez badu ikasi nahi ez du ikasiko**.

Hala ere, ikasi “nahi ez izan” horren atzean beste faktore eraginko batzuk daude: familia, testuinguru, eskola...

Hortaz, **errendimendu arazo** bat egonez gero, arazo bat suertatzen ari dela argi dago. Beraz, irakaslea behatze prozesu bat hasi eta eraginkorrak izaten ari diren faktoreak identifikatu beharko ditu. Honen arabera eskuhartze egokiena diseinatuko du eta praktikara eraman beharko du ikaslearen ikaskuntza prozesua bideratzeko.

118. Nolako izan daiteke irakaslearen eragina ikasleengan?

Ikasgela **talde psikosozial** bat bezala eratua egoten da eta hartu-emanak eta interakzioek bertan parte hartzen duen kide bakoitza eta guztiak afektatzen ditu. Ez da egia irakasleak eragiten duela soilik ikasleengan. Irakasleen ekimenen aurreko ikasleen erreakzioek modu erabakiorrean eragiten dute irakasleengan.

Irakasleak zein ikasleak informazio-prozesatzaile aktiboak eta esanahien eraikitzaile subjektiboak dira.

Azken finean, Vygotsky-ren teorian aztertu dugunez, ikastea testuinguru sozialean (ikasgela) eta elkar-ekintzen bitartez gertatzen da.

Hala ere, irakasleen eragina ikasleengan testuinguru zehatz batean ematen da eta irakaskuntza ereduaren arabera izango da. Irakasle eta ikasleen arteko erlazioen inguruan bi eredu nagusi aipa daitezke: tradizionala eta progresista ala berritzailea.

Eredu tradizionala:

- irakaslea helarazlea da eta ikaslea hartzailea.
- Urte luzez izan da erabilia: irakas teknikak irakasleari zuzenduak ziren eta teknika hauek hobetzearekin, ikasleen errendimendua hobea izango zela uste zen.
- Ebaluazioetan ikasleek ateratako emaitzak hartzen ziren kontuan. (Prozesu-produktu eredu, alegia.)
- Irakasle eta ikasleen arteko **harremana instrumentala** da, aprendizaiaren helburuei zuzendua, eta autokratikoa.
- Bien arteko **komunikazioa norabide bakarrekoa**: irakasletik ikaslera, eta beraz ez dago inolako elkarrekintzarik.

Eredu progresista

- ikaslea ez da ikusten hartzaile hutsa soilik, baizik eta eraikitzailea da.
- Irakas-ikas **prozesua bi norantzakoa** da
- Ikasleak kontuan hartzerakoan, **beste faktore** batzuk agertzen dira prozesu honetan: nortasuna, motibazioak, ikas-estiloak...
- Lineala ez den harreman sozial honetan, bi protagonistak, irakaslea eta ikasleak **elkar-prozesu** batean inplikatzeko dira.
- Beraien arteko **harreman soziala gertuagoa** izango da.
- Elkarezagutza eta elkar-eragina ikastea bezain garrantzitsua izango da.
-

119. Normala eta ekidin ezina da irakasleak ikasleei buruzko ideiak izatea. Nola kontrolatuko zenuke ikasle honenganako duzun jarrera eta interes gutxi edo irudikapen gutxiko ikasleenganakoa

Irakasleak ikasleen gainean dituen irudikapenak hezkuntza prozesuan eragina izan dezaketela ikerketen bidez baieztatua dago.

Honi aurre egin eta ekiditeko, lehendabiziko pausoa hau gerta daitekeela kontuan hartu eta bigarrena halako egoera identifikatuz gero jarrera aldatzea da.

120. Ikasleek gelako arauen ezarpenean parte hartu behar dutela uste al duzue? Zergatik bai eta zergatik ez? Nola egin daiteke? (PRAKTIKOA, HAUSNARTZEKO)

Baietz, **ikasleak ikasgelako parte dira**, ez dira hartzaile hutsak. Egia da jarrera positiboa eta giro ona izateko arauak errespetatu behar direla. Ikasleak ezarritako arauak bere sentitzen baditu, hobeto errespetatuko ditu eta arauai kasu gehiago egingo diete.

Horretarako, kontuan hartu behar da arauak ezartzerakoan pauso batzuk ematea komenigarria litzatekeela. Adibidez, adostasuna, inplikazioa eta partehartzea sustatzea arauak ezarpenean. Hala ere, irakasleak gidatu behar die hainbat arau jartzen, funtsezko arau batzuk beharrezkoak direlako.

Oro har elkar hitz egitea legoke.. Adibidez: taldeka jarri, irakasleak edota ikasle bakoitzak bere ideia proposatuz, talde handian eztabaidatuz, batzuk onartuz, adostasuna landuz, akordioak lortuz.

Ikasleen adinaren arabera (eta beste ezaugarri batzuen arabera) **gelako batzarra**, norberak hitz egiteko eskubidea, iritzia emateko aukera,... eta beste prozedura ezberdinekin hainbat kontzeptu eta balore landuko dira (errespetua, konpromisoa...).

Garrantzitsua da denen parte hartzea eta ez bakarrik gutxi batzuen. Bestela ez dituzte bere sentituko eta gelan ikasle guztien adierazpenerako eskubidea bermatu behar da, batzuei besteei baino gehiago kostatzen zaiela kontuan hartuz.

Positiboa da prozesu horretan irakasleak ikasleak hobeto ezagutzeko aukera edukiko duelako: beraien interesak, motibazioak, arrazonamenduak, zergatiak, sentimenduak...

121. Hasi berriak diren irakasle askok ikasleek onar ditzaten ez dute desberdintzen lagun izatea eta lagun bezala jokatzea. Beste lagun berriz, kontrakoa egiten dute eta tinko jokatzearen aholkua diziplina zorrotza eramatearekin nahasten dute. Zer egin dezake irakasle batek onartua eta era berean errespetua izan dadin?

Irakasle berriak **denbora** beharko du irakasle-lanetan ongi izateko eta segurtasuna edukitzeko. Hori esperientziak emango dio.

Baina, irakaslea eta lagunaren paperak desberdindu beharko dira:

Goxoa izatea, baina mugak jarri; serio azaldu baina jatoritasun puntu batekin; oreka aurkitu; errespetua erakustea; zorrotzegia ez izatea; laguntasunarekin jokatzea; konfiantza eman pixkanakapixkanaka eta puntu bateraino...

Hasieran bakoitzaren betebeharrak azaldu eta denbora pasa ahala eta errespetu irabazi ondoren, harremana estutzeko aukera egongo baita; baina osotasunean konfiantza ematea ere ez baita ona.

Hasierako momentuetan bakoitzaren papera erakusten diote elkarri eta hori argi badago, ez da nahasketarik eta arazorik egongo

Bukatzeke, hasieran esan dugun bezala, Monterok (1990, 293 orr.) dio, irakaslearen jarrerarik nagusia malgutasuna dela eta ikaslearen helmugun funtzioaren arabera zentzuzko estrategiak erabiltzean datza.

Denbora eta esperientziaren behaketa eta analisia ezinbestekoak izango dira irakasle berriak erabaki horiek hartzeko.

122. Gelako kontrola mantendu ahal izateko, derrigorrezkoa da diziplina arazoak konpontzeko estrategiak izatea. Zer estrategia erabiliko zenituzke horrelako egoeretan? (PRAKTIKOA, TEORIAK JAKITEAN EGIN, ORAIN EZ DU ZENTZURIK.)

• Etxerako lanak inoiz egiten ez dituzten ikasleak

- o Konstruktibismorengana jo eta beraiekin hitz egin, banan-banan eta zabalki, arrazoi eta konponbideen bila.
- o Beraien portaeraren zergatia jakiten (gogo-motibazio falta, alferkeria, etxeko lanei ematen diete garrantzia, lanen edukia edo ezaugarriak...) saiatu eta beraiekin hitz eginda eta beren iritzia jasota arazoa konpontzen saiatu (kognizio aldera proposamen honetan ere jo dugu).
- o Konduktismoarengana jo eta errefortzu eta zigorrak erabili: arbelara aterarazi; jolas garaian gelan gelditu; klaseak amaitutakoan klasean utzi; lanak bukatu arte etxera ez joan; gustuko duen ekintzan etxerako lanak egin; lanak bukatzen dituztenei pribilegioak eman; etxerako lanei pisu handia eman amaierako ebaluazioan...
- o Elkar-ekintza bultzatuz eta elkar-eraginaz baliatuz: ikaskideak inplikatzan saiatzen ... (nola proposatuko genuke egoeraren arabera).
- o Familiarekiko erlazioa baliatuz inplikatzan saiatzen: gurasoei informatu eta arazoa azaldu; gurasoen inplikazioa lortu/aurkitu; elkarlana guraso eta irakaslearen artean...

• Bere ikaskideak iraindu eta jotzen dituzten ikasleak:

- o Beraiekin hitz egin, banan-banan eta zabalki, eta horren zergatia jakiten saiatu eta beraiekin hitz eginda eta beren iritzia jasoa arazoa konpontzen saiatu.
- o Erakutsi denak berdinak garela.
- o Besteak nola sentitzen diren ulertarazi.
- o Ikasleak elkartu eta konpromisoa har dezala saiatu.
- o Klasean ikasle guztiak indarkeri horien inguruan eztabaidatu, materialak ikusi... (aurreko proposamen hauek "kognitiboak" direla gogoratu).
- o Euren gurasoekin hitz egin eta arazoa azaldu, irakaslearen eta ikaslearen iritzia eman eta beraiena galdetu eta konponbide bat bilatzen saiatu. (famiaren partaidetza eta elkar-lana). Bain ez haiek errieta egiteko baizik eta modu egoki batean lanketa bateratua egiteko.
- o Diziplina arauak gogoraraziz eta konduktistak diren estrategiak aplikatu: kopiak egin (100 aldiz "ez dut jo eta irainduko") zigorra bezala edota errefortzatu beste portaera positiboak (zigorra erabili baino lehen errefortzuak erabiltzen saiatu). **(EZ)**

• Irakasleari errespeturik ez dioten ikasleak

- o Beraiekin hitz egin, banan-banan eta zabalki, eta horren zergatia jakiten saiatu eta beraiekin hitz eginda eta beren iritzia jasoa arazoa konpontzen saiatu.
- o Irakasleari ezezik klase guztiari errespetua galtzen dioteka azaldu, eta klasearen aurrean bere jarreraren azalpen bat ematera gonbidatu.
- o Euren jarrerak jarraitu eta klasea oztopatzen badu klasetik bidali horrelakorik egiten duten bakoitzean. **(EZ)**
- o Irakasleari kasu egin behar zaiola eta adi egon behar dela ulertarazi (Aurreko guzti hauetan, kognitibo aldera ko dugu: hitz egin...)
- o Konduktismoarengana jo eta zigorrak edota errefortzuak eman: isolatu; kasurik ez egitea; pasilora bidali... **(ez)**
- o Familiaren partaidetza eta kolaborazioa lortu: gurasoekin hitz egitea; gurasoei oharra bidali, elkar-proposatu zer egin...

- **Goizero, ikasleek 15 minutu behar dituzte prestatu eta lanean hasteko**

o “Kognitibistak” diren planteamendutaz baliatuz: Ikasleekin klase-bilera egin, arazoaz hitz egin eta horren arrazoia jakiten eta egoera konpontzen saiatu; Adinaren arabera eta gelako partaide guztiak kontuan harturik “zertarako balio duen guztion artean arauak jartzea gero betetzen ez baditugu” eztabaida proposatuko genieke.

o Portaera aldatzeko teknika konduktistak erabiliz: Indiferentzia agertu; gelan sartu ezer esan gabe, egunkaria ireki eta minutuak halaxe pasa haiek galdetu arte ea klaserik ez dagoen; isilik egon haiek konturatu arte; ordutegiak errespetatu behar direla esan; minutu horiek jolasgaraiari edo bazkal orduari kendu; klasearen bukaeran erreperatu galduriko denbora hori; gelatik 15 minutu beranduago atera; etxerako lana bidali; klasea luzatu eta jolas-ordura edo etxera hamabost minutu beranduago aterarazi. **(ez)**

IKASLEEN ARTEKO ELKARRERAGINA

123. Zeintzuk dira ikasleen arteko elkarreraginaren ezaugarriak? (alde onak eta txarrak aipatu)

Ikasleen arteko elkarreraginari dagokionez kontuan hartu behar da ez dela nahikoa ikasleak elkar jarri elkarreragina bultzatzeko. Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegi ezberdinek aztertu dute ikasleen arteko elkarreragina (Muñoz: Trianes Torres eta beste batzuk, 2004).

- Ikuspegi genetiko-kognitiboak autonomia moralean (Piaget, 1971; Kholberg, 1980) gatazken konponketan (Blatt eta Kholberg, 1975) eta negoziazioan (Corsaro, 1981) duen eragina azpimarratzen du.
- Ikuspegi sozio-historikoak goi-mailako prozesu psikologikoen garapenean duen garrantzia, autoebaluaziorako eta autoerregulaziorako (Vygotsky, 1978) frogatu zuen.
- Ikuspegi etologikoen arabera agresibitatearen kontrolarako eta garapen prosozialarako ezinbestekoa da (Furman, Rahe eta Hartup, 1979). Ikuspegi sozialaren aburuz, kulturalak diren balore eta arauen transmisioa bermatzen du eta egokitzpen emozionalari eta autoestimuaeren garapenari laguntzen dio (Roff, Sells eta Hymel,
- Ikaskuntza sozialaren teoriaren arabera (Bandura, 1981) kideek emandako informazioa imitatzeke eredu garrantzitsuenetakoa da.

(sinmas, denbora baldin badut ongi, bestela fuera.)

Mayer (1976), Michaels (1977), Johnson eta Johnson (1978), Slavin (1980), beste batzuen artean, hiru ekintza antolaketa nagusien arabera banatzen dute ikasleen elkarreragina: **kooperatiboa, lehiakorra eta indibidualista.**

1. Egoera kooperatiboan ikasleen helburuak bat datoz, norberarenak lortzeko besteek ere lortu behar baituzte. Beraz, taldeko bakoitzak lortu nahi dituen etekinak besteentzat onuragarriak dira.

2. Lehiakortasun egoeran ordea, ikaslea helmugara iritsiko da besteak ez badira heltzen, nahiz eta helburuak berdinak izan. Beraz, bakoitzak norberarentzako emaitza onuragarriak bilatzen ditu baina besteentzako ez dira onuragarriak izango.

3.egoera indibidualistan ez dago helburuen inguruko erlaziorik. Emaitzak indibidualak dira beste emaitzekin harremanik izan gabe eta taldekide baten jardunak ez du besteengana eraginik.

Ikerketa ezberdinen arabera, ikasketa jardueren antolakuntza kooperatiboa nabarmenki eraginkorragoa da

konpetitiboa eta indibidualista baino, errendimendu mailari dagokionean zen parte hartzaile produkzioari dagokionean.

Kideek dituzten funtzioak batzuetan helduen antzekoak dira, eta adiskidetasun loturak atxikimendu harreman bilakatu daitezke. Kideen eragina helduek erabiltzen dituzten antzeko mekanismoen bidez gauzatzen da. Kideen arteko harremana helduekin ez bezala simetrikoa izango da.

Kideen estatus soziometrikoari dagokionez lau talde bereiz daitezke:

- **Ospetsuak:** ikaskideengatik puntuazio altuak jasotzen dituztenak. Atseginak, aktiboak, ederrak... bezala deskribatuak.
- **Gaitzetsiak:** ountuazio negatibo altuak dituztenak. Erasokor, hiperaktibo, gizarte arau hausleak...Baztertuak izango dira.
- **Arretarik jasotzen ez dutenak:** puntuazio baxuak jasotzen dituztenak. Lotsatiak eta ez oso elkarreragileak, baketsuak, berekoiak eta arauak errespetatzen dituztenak.
- **Polemikoak:** muturreko puntuazioak izaten dituztenak. Ezaugarri hauetako haur gutxi egoten dira talde-gela bakoitzean. Portaera antisozial zein elkarreragin positiboetan parte hartzen dute. Trebetasun intelektual, sozial eta atletikoak dituen haur aktiboak dira, ikaskideekin elkarreragin agresiboak izaten dituenak.

Estatusen ezaugarri orokorrenak izaten ohi dira urteetan zehar baina haurrek besteengan baloratzen dituzten koalitateak aldatzen dira hazi orduko. Estatus baten barruko taldea nahiko egonkorra izaten da, gaitzetsien estatusa egonkorrena izanik.

Amaitzeko elkar-ekintza eta bere elkar-eraginaren ondorio positiboak gehi negatiboetako batzuk:

- **Alde onak:** elkarreragin afektiboa, espezifikoa, unibertsala eta partikularra, sozializazio prozesua, harreman sozialak, adskripzioa eta status soziala, habilezia eta gaitasunen eskuratzea; inpultso eta agresibitatearen kontrola; ezarritako arauen onarpena; egozentrismoa gainditzea; norberaren ikuspuntu eta iritzi gainetik besteena onartzea; itxarobide maila eskolari begira; eskola errendimendu maila; gatazka kognitiboa, laguntza, lankidetzeta...
- **Alde txarrak:** isolamendua, mehatxuak, irainak, isekak, kolpeak, tratu txarrak, biolentzia fisikoa eta psikikoa, bullying-a, konpetentzia, boterearen nahia, iruzurra, lehiakortasun negatiboa, indibidualismoa, norberaren buruarekiko gehiegizko konfiantza, elkarreragin zirriborrotsua ...

124. Nolakoa izan behar da ikasleen arteko elkarrekintza, apendizaiia eta garapen kognitiboa sustatzeko?

Aurreko galderarekin zerikusi handia.

Gogoratuko dugu hiru elkarrekintza mota aipatu ditugula: kooperatiboa, lehiakortasuna eta indibidualista. Apendizaiia eta garapen kognitiboa sustatzeko kooperatiboa egokiena da, lankidetzeta lantzen baitu. Lehiakortasuna modu egoki batean erabili behar da beharrezkoa ere izan daitekeelako, motibazioa lantzeko.

Hala ere elkar-ekintza guztiek ez dute bultzatuko apendizaiia eta garapen kognitiboa. Elkar egitea ez da elkarrekin egitea, hau da elkar-eragina sustatzeko elkarrekin egoteaz gain elkarri egin behar diote lanari gure ikasleek.

Hortaz aparte, elkar-ekintzaren bidez lortzen den elkarreragina positiboa edo negatiboa izan daiteke.

- **Elkar-ekintza positiboa**, hau da, errespetua, konfiantza, gelan giro ona (bai afektiboki, bai akademikoki), laguntasun eta berditasun giroa, elkar-lana, lankidetzeta, kooperazioa eta aniztasuna bultzatu behar dira. Lehiakortasuna ere, baino puntu bateraino. Baita motibazioa, autoestimua ona, autokontzeptua, ...ere landu behar dira. Haurra gainontzeko ikasleengandik onartu izatea garrantzitsua izango da.

- **Negatiboa** (konpetentzia, lehia,...) dena ekiditu. Hori suertatzen bada, gainera, landu eta gainditu egin behar da: agresibitatea, egozentrismoa...ekiditzeko.

Aipatzekoa da ere, talde edo taldekide batek gainontzekoei jardueraren nondik norakoak azaldu behar dienean eta taldeko rolen koordinazioa taldekideen artean denean erabakia eta onartua, aprendizai eta garapen kognitiboa sustatzeko onargarria dela.

Orduan, garapen kognitiboa sustatzeko bete behar diren baldintzak hauek dira:

- Ikasleen artean egin beharreko eginkizunaren inguruan iritzi edo ikuspegi moderatuki kontrajarriak daudenean, eta euren artean gatazka ematen denean (gatazka soziokognitiboa izanda).

- Parte hartzaileetako batek besteei irakasten edo instruitzen dienean, eginkizunaren inguruko azalpen, instrukzio edo direktirik emanez.

- Taldekideen artean onartutako rolen inguruko koordinazio bat, lanaren kontrol komuna eta eginkizunaren garapenean erantzukizunen banaketa ematen denean

125. Nola azalduko zenuke ikasleen arteko elkarrekintzaren eta prozesu kognitiboen arteko lotura?

Aurreko galderarekin erlazio estua.. Nolabait ere aspektu batzuk azpimarratuko genituzke, hala nola:

- Lehenik, ikuspegi ezberdinen arteko konfrontazioaren ondorioz sortzen diren gatazka soziokognitiboek prozesu kognitiboak estimulatzen dituzte eta informazio berrien bilaketara edo jadanik ditugun informazioen birplanteatzera bultzatzen dute.

- Bigarrenik, egoera interaktibo batek ematen duen elkar laguntza eta euskarria birestrukturazio intelektuala behartzen du; lehendabizi parte hartzaileek beraien artean egiten duten elkar-erregulazioaren bidez, eta gero progresiboki autoerregulazio indibidualaren bidez.

Teoriak teoria Vygotsky-ren Garapen Hurbileko Zonaldearen teoria kontuan hartu behar dugu. Berak zionez hartueman soziala bihurtzen da garapen motorra, garapen hau “interpsikologikoki” funtzionatzen, “intrapsikologikoki” funtzionatzera pasatzen da. Garapen Hurbileko Zonaldea (GHZ) teoriak adierazten du pertsona batek bere gaitasunaren garapenarekin, besete pertsona baten laguntzaz gauza bera egiteko dagoen aldea. Ikasleen arteko elkarrekintzak lotura zuzena du prozesu kognitiboarekin, taldeetan sortutako eztabaidek jarduerak egiterakoan, ikuspuntu ezberdinak, eta abarrek erlazio zuzena izango dute ikasleen prozesu kognitiboetan.

126. Ikasleen arteko lankidetzak apendizaiari laguntzen al dio? Zein eratan?

Behin baino gehiagotan esan dugun bezala (123., 124. eta 125. galderak) talde lana, giro ona, harreman ona izatea, denak onartuak izateak, ezberdintasun pertsonalak positiboki baloratzea... elkarreragina sustatzen du.

Lankidetzaren ekarpena apendizaiari erabat positiboa izango da:

- Helburuak komunak dira talde guztiarentzako. Talde kide bakoitzak helburua lortuko du, baldin eta talde osoak lortzen badu. Era berean, taldekide batek emaitza ona lortuz gero, onura talde guztiarentzako izango da.
- Iaioa denak bestei lagun diezaieke. Irakaslearen papera hartzen duenak oso argi duelako azaldu behar duena. Askotan berdin arteko azalpenak errazagoak eta ulergarriak dira.
- Irakasleak ikasleei lagundu egin behar die, baita ikasleek beste ikasleei ere. Eta elkar-laguntza honi esker denon garapenak (eta ikasteak) aurrera egingo du.

127. Nola erabiliko zenuke ikasleen arteko elkarreragina honako arazo hauek konpontzeko? (PRAKTIKOA DA)

- *Bere ikaskideak iraindu eta jotzen dituzten ikasleak*
- *Irakasleari errespeturik ez dioten ikasleak*
- *Goizero, ikasleek 15 minutu behar dituzte prestatu eta lanean hasteko*

122. galderan hauetako egoera batzuk aztertu ditugu konduktismoak proposatzen dizkiguten teknikak erabiliz eta arrazonomendua erabiliz nahiko kognitibista den ikuspegitik.

Galdera honen helburua ikasgelan eta ikas-kideengan zentratuz egoera ezberdinei aurre egitea da.

• **Bere ikaskideak iraindu eta jotzen dituzten ikasleak:**

o Haurren artean aipatu gertatutakoa.

o Denon artean, gelako jardueran kolektiboki ekintza honen informazioa bilatu (zeini egiten dio, noiz, ...) eta soluzioa eztabaidatu.

o Talde agresiboa talde desberdinetan banatu. Erasotzaileak baztertzera.

o Beste ikasleei erakutsi zer esan ("ez jo" oihukatu), estrategiak eman, eta kasurik ez egitea esan.

o Ikaskideek beste ikaskideei erakutsi behar diete: berdinak garela, elkar errespetoa...

o Biktima psikologikoki indartu: bere burua defenditzeko, dependentzia murrizten saiatzeko, bere nortasuna, autoestimua, motibazioa,..garatuz publikoki guztien aurrean.

• **Irakasleari errespeturik ez dioten ikasleak:**

o Ikaskideek beste ikaskideei esan eta erakutsi irakaslea errespetatu behar dela, ez dela iraindu behar **BAI**

o Jolasak egin hurrekin eta errespetua eta kooperazioa landu **BAI**

o Bakartzea, isolatu gelan eta bere taldean **EZ**

o Lekutik aldatu o Bere talde barruan ridikulizatu (hori ez: kontuz ibili!!) **EZ**

• **Goizero, ikasleek 15 minutu behar dituzte prestatu eta lanean hasteko:**

o Gaia ikaskideen artean komentatu.

o Lehenengo 15 minutu horietan gustuko duten zerbait egiteko erabiltzea eta denbora horretan prestatzen ez badira, jarduera hori galduko dutela esatea. **BAI**

o Lanean prest daudenei zoriondu besteen aurrean, besteek ikus dezaten irakasleak zer baloratzen duen o Azkar eta ondo egiten duenari sariak eman. Errefortzu positiboak **BAI**

o Gelako arduradunak ikusi dezala norik prestatzen den lehenago, norik ateratzen dituen liburuak,.. o Astero arduradun ezberdinak besteen jarraipena egin

o Egoera honetarako eta besteetarako: kartulina batean izenak eta egunak jarri eta ongi portatzen direnei gometxa berde jarri eta gaizki egiten direnei gorria. Egun bakoitzean gometxak kontatu denon artean. **BAI**

HEZKUNTZA TESTUINGURUA: FAMILIA:

128. Zer uste duzue dela Familiaren papera Hezkuntzan eta apendizian?

Familiaren papera umearen heziketa eta hazkuntzan, honakoa erabateko indenendentzia eta autonomia lortu arte **laguntzea (funtzio asistentziala), baloreak erakustea (funtzio formatiboa) eta gidaritza bat ematea (funtzio direktiboa)** da.

Beraz, familia eta eskolak zeregin garrantzitsua daukate haurren hezkuntzan eta gizarteratze prozesuan.

Familiaren inguruko hainbat ideia orokor:

- Familiaren funtzioa oso garrantzitsua, ezinbestekoa, funtsezkoa da
- Familia ereduak eboluzioa bizi izan du: tradizioaletik modernora.
- Familia egitura, eredu eta mota desberdinak daude (zabala, tronkala, nuklearra, mistoa, patriarkala, matriarkala, monoparentala, homosexuala, zorrotza, permisiboa, babeslea...).
- Familia mota guztiek eragina dute umeengan (bere garapen pertsonalean eta sozialean)
- Familiaren eginkizuna: umeari autonomia lantzea; laguntza, babesla eta maitasuna ematea.
- Familiak beteko du heziketa papera nagusia (eskolan hasi aurreko urteetan).
- Familian ematen den hezkuntza: ohiturak sustatzea, elikadura, loaren heziketa,...
- Familiak haurra hezi behar du: baloreak transmititu, afektibitatea eman, arauak edo mugak ezarri,...
- Testuinguru hau (familia) eragin handienetarikoa bat da, nahiz eta beste testuinguruak ere garrantzizkoak izan
- Seme-alabei ahalik eta gehien lagundu eta beraien ikasketaz arduratu behar da.
- Eskola eta familia beti harremanetan egon behar dira, partaidetza bateratua izanik.
- Familia eta eskolen arteko harremanetan jarraitasuna eta lankidetzaren egon beharko luke (bata bestearen konplementarioa baita).
- Familia eta eskolaren arteko antzekotasun eta ezberdintasunak badaude eta egongo dira.

129. Zeintzuk dira familiaren eta eskolaren arteko antzekotasunak?

Hasteko, eskola eta familiak haurrari hezkuntza bat ematen diote. Biek kultura bereko kide dira. Hortaz desiragarriak diren balio, gaitasunak... lortzea izango dute helburu komun bezela.

Bien helburu nagusia haurren hezkuntza eta garapena sustatu eta bultzatzea da bere nortasunaren alderdi ezberdinak aintzat hartuz. Haurra zaindu eta arriskuetatik babesteko funtzioa betetzen dute biek.

130. Eta zeintzuk dira familiaren eta eskolaren arteko ezberdintasunak?

Hasteko, testuinguru bakoitzak funtzio ezberdinak betetzen ditu. Bakoitzak espazio eta denboraren antolaketa propioa dauka eta bakoitzean agente ezberdinek hartzen dute parte.

Eskola erakunde izaerako hezkuntza testuingurua da. Tradizio eta forma bereziak ditu eta bere antolakuntza eta burokrasia ezaugarrien arabera irakale zein ikasleentzako rol bereziak ezartzen ditu. Rol hauek, etxean ezagutu duenetik oso bestelakoak izaten ahal dira haurrentzat.

Familian, eguneroko bizimoduko jardueretan parte hartzen du haurrak. Haurrak eskolan egiten dituen jarduerak, bere mundu hurbiletik urrunago geratzen diren testuinguruetan garatzen ditu. Lortu beharreko hezkuntza helburu jakin batzuen arabera diseinatu eta planifikatzen baitira; eta ez bere beharretara.

131. Zeintzuk dira familiaren eta eskolaren arteko jarraitasun edo jarraitasunezaren ondorioak?

Ez-jarraitasunaren kontzeptua haurra bi testuinguru ezberdinetan bizi dituen esperientzia ezberdinei erreferentzia egiteko baliogarria da.

Alde positibo bezala, haurrari eskatzen zaizkion jarduera ezberdinek gaitasun eta abilezia ezberdinak lortzeko aukera ematen diote.

Baina jarraikortasun eza oso nabaria bada ondorio negatiboak izan ditzake. Haurra ez da eskolara ondo egokituko eta bere garapenean arazoak izan ditzake.

Horregatik, haurren garapen osasuntsurako eskolara ondo egokitzea derrigorrezko ezaugarria izanik, eskola eta familiaren artean jarraikortasuna egotea ezinbestekoa da.

132. Zeintzuk dira familia eta eskolaren arteko lankidetzak?

Familiak eta eskolak berezko erantzukizunak dituzte haurren hezkuntzan. Espazio bakoitzak, zeregin eta ardura espezifikokoak ditu haurren hezkuntzan, besteak ondo kubritzera iritsi ezin dena.

Familiaren erantzukizuna ezinbestekoa da ondoko garapenaren inguruan: Autokontzeptua, gizarte abilezia, garapen moral, psikomotrizitatea, ahalmen sortzailea eta zenbait abilezia kognitibo.

Baina, hezitzaileek ere zeregin garrantzitsua dute ikaskuntza horietan. Azkenik, eskolak familiak baino erantzukizun handiagoa du ezagutza akademikoagoak helarazten, esate baterako, gizarte- zientziak edo natur-zientziak, humanitateak, hizkuntza idatzia eta matematika irakasteen. Eduki horiek irakasteko beharrezkoak dira familia gehienek ez dituzten prestakuntza eta ezagutzak.

Autore batzuek gurasoen eta irakasleen arteko komunikazio-maila handiagoa proposatu dute eskola-porrotaren soluzio gisa. Hezitzaileentzat ere garrantzitsuak dira familiarekiko harremanak.

133. Zeintzuk dira familia eta eskolaren arteko lankidetzaren ondorioak?

Eskolak antolaturiko ekimenetan parte hartzen duten gurasoek, gehiago kezkatzen dira haien seme-alaben hezkuntzaz. Gurasoen parte hartzeak ondorio positiboak ekartzen ditu haurraren garapenean, eskolan duen portaeran eta emaitza akademikoetan. Era berean, hizkuntza maila aberatsagoa eta garapen kognitibo hobea dute.

Haur hauek gutxiagotan egiten dute huts eskolara, arreta handiagoa jartzen dute klasean eta arazoak ekartzen ahal dituzten jarrera murriztagoak dituzte.

Izan ere, gurasoek eskolako jardueratan parte hartzeak, eskolak garrantzia duen espazio bat dela erakusten die seme-alabei. Era berean, figura erreferentzialak izanik, haurrak eskolan ahalegindu eta emaitza onak ateratzeko motibatu ahal dituzte. Haien gurasoak arrotu sentitu daitezten.

134. Zure ustez, nolakoa izan beharko litzateke familia eta eskolaren arteko lankidetzak?

Hausnarketa:

Eskola eta familiaren artean lankidetzak estua egon beharko luke. Bereiziki eskolako lehen urteetan, haurrak eskolarako adaptazio egoki bat izan dezan. Modu honetan, haurrak eskolan arazo bat izatekotan familiak jakingo du eta esku hartze bat egin ahalko du (eta alderantziz ere). Lankidetzak eta komunikazioaren bitartez arazoa erraztasunez detektatu eta erantzun azkar bat emateko aukera ematen du.

Denbora pasa ahala lankidetzak maila jeitsi egingo da haurraren independentzia eta autonomia garatu behar delako. Hala ere beti mantendu beharko da kontaktu eta komunikazioa.

Hainbat ideia:

- Lankidetzak ona, zuzena, estua eta egiazkoa izan behar da.
- Komunikazioa izatea oso garrantzitsua da.
- Lankidetzak egotea garrantzitsua da, bi ildo egon daitezkeela kontuan hartuta: bi ildoak desberdinak edo berdinak izan daitezke baina haurrentzat beti izango da aberasgarria. Bi ildoak errespetatzea eta oinarrian balore komunak izatea saiatzea.
- Informazioa elkar trukatu behar dute. Familiakoek ikusi behar dute irakasleek lan egoki bat egiten dutela beraien haurrekin eta irakasleek ere haurrek familian duten egoeraren berri izan behar dute.
- Haurraren garapenaren zailtasunak eta lorpenak komentatu behar dituzte.

135. Eskolako lanak etxean egiterakoan, zein arazo sor daitezke eta nola konpon daitezke?

Egon daitezkeen arazo nagusia haurrak gurasoen laguntza behar izatea da. Hasiera batean, gurasoen maila akademikoak erantzun dezakeen bitartean ez da arazorik egongo. Baina denbora aurrera joan ahala eta mailak igotzen joatean, lanak geroz eta zailagoak izango dira eta gurasoek ezingo diete haien seme-alabei lagunduko.

Arazoak konpontzeko guraso eta familiaren arteko elkarriketak egin ahal dira. Modu honetan irakasleak gurasoei nola lagundu azaldu ahal die, gaiaren inguruko beharrezko informazio eta materiala eskainiz. Modu honetan seme-alaba laguntzeaz gain haien ezagutza maila pixka bat handitzea lortuko dute.

Hala ere, nahiz eta akademikoki prestatu ez egon, gurasoek beti ahalko dute bere seme-alabak animatu, motibatu eta eskolako lanen inguruko interesa azaldu eta ikas ohitura batzuk bultzatu.

136. Gaur egungo familia egitura eta eredu berriak kontuan hartuz, zerbait aldatu egin behar da eskolan?

Gaur egun familia egitura berriak existitzen diren heinean, eskolan familia egitura berri hauek ikustarazi beharko dira. Orain arteko familia egitura tradizionalaz gain, bestelako egitura familiar hauek testu-liburu, ipuin zein edukietan haien presentzia bermatu beharko da. (mono parentalak, dibortziatuak, guraso homosexualak, adoptatuak...)

Izan ere, testuinguru familiar ezberdinetatik iritsitako haurrak espazio bakar batean bilduko dira: gela, eskola. Haien artean elkar-eraginak egongo dira. Beraz, haur guztien adaptazio egokia, haienganako eta familienganako errespetua bermatu eta bazterketa arriskua ekiditeko, familia egitura anitza daudela helarazi eta normalizatu behar da. Horretarako, eduki eta zeregin batzuk aldatu beharko dira. Adb: aita-amaren eguna ordeztatu, familiaren eguna ospatzea...

HEZKUNTZA TESTUINGURUAK: KOMUNIKABIDEETARAKO ETA INFORMAZIOTARAKO TEKNOLOGIAK ETA HEZKUNTZA

137. Zeintzuk dira komunikabidetarako eta informaziorako teknologiak?

Hezkuntzarako erabiltzen diren Teknologia Berrien multzoa da. Besteak beste: mugikorrak, DVD, telebista, irratia, internet, bideojoko, ordenagailuak...

Eskolara azken etorriak: Arbela digitala, proiektoreak, tabletak, liburutegi birtualak...

138. Zertarako erabiliko zenituzke teknologia berri hauek ikaskuntzairakaskuntza prozesuan?

Baliabide teknologikoak beti ere helburu hezitzaileekin erabiltzea posiblea da. Honetarako erabilpen egoki bat sustatu beharko litzateke neurri eta mugak jartzearekin batera. Teknologia hauen erabilpenean irakaslearen presentzia eta jarraipena bermatzea garrantzitsua da.

Gai bat lantzeko orduan (informazio bilaketa eta aurkezpena bereziki) informazio iturri bezala edo baliabide erakargarri eta funtzional bezala erabili daiteke. Baita ere motibazioa pizteko eta ikasketa euskarria aldatzeko ere. Hala ere garrantzitsua da beste motibaizo sistemekin tartekatzea.

139. Nola azalduko zenuke Teknologia hauen eta Hezkuntzaren arteko lotura?

Gaur egun Teknologia gure bizitzaren esparru guztietan eragiten ari den bezala: aisialdi, lanean, giza-harremanetan... Hezkuntzan ere eragiten eta eragingo duela ezin dugu ukatu.

Honek aukera berri eta interesgarriak zabaltzen dituzte aprendizai prozesuan.

Baina informazio ugaria eskaintzeaz gain, gehiegizko informazioa eta antolatu gabekoa ere eskaintzen ditu. Beraz hezkuntzaren xedea: teknologiaren erabilera kritiko eta selektiboa ikasleei erakustea izan daiteke.

Teknologiak ondo erabiliz gero eragin positiboak izaten ahal ditu. Era beran gaizki erabiliz gero negatiboak.

140. Teknologien erabileraren alde onak eta txarrak, zeintzuk dira?

Baliabide hauek testuinguru zehatz batean (eskola, ikasgela) erabiltzen lantzen ditugu, eta honetan alde onak eta txarrak ere eduki ditzakete.

Onak:

- o Informazioa azaltzen eta irudikatzen dutenez kognitiboki errazago eta azkarrago barneratzen da.
- o Portaerari dagokionez ikasleekiko ohiturekin erlazionatzen dira eta baliabide eraginkorrak (positiboki dira).
- o Informazioa asko, azkar eta eguneratua jasotzea posiblea da eta ondorioz informazio prozesamendua eta oroimena laguntzen dute.
- o Ikus-entzunezko pertzepzioa ahalegintzen du eta arreta erakartzen dute.
- o Motibagarriak dira dinamikotasuna ematen diotelako klaseari.

Txarrak:

- o Irakasleak bere irakasteko papera gutxiagotu egiten da.
- o Telebistak balore txarrak, baliagarriak ez diren informazioak jaso ditzakete.
- o Kontsumitzeko erabiltzea
- o Errealitatea eraldatua azaldu daiteke, manipulatu
- o Interaktibotasunik ez dago o Pasibotasuna.
- o Mugikortasuna ezeztatu egiten dute. Sedentarismoa, arazo fisikoak.
- o Isolamendua.
- o Informazio hurrek filtratu gabe jasotzen dute.
- o Informazio gehiegi, eta ondorioz, ezer ez eskuratzea.
- o Idatzizko edo ahozko transmisioaren galera progresiboa dakar (idazkeraren eta irakurketaren, elkar komunikazioaren galerak)
- o Sormena anulatzen dute.
- o Cyberbulling-a
- o Autokontzeptuaren desitxuraketa. Nor zaren asmatzeko aukera.
- o Anonimotasuna erabiltzearen arriskua.